



Instituto Vasco del Conocimiento  
de la Formación Profesional

Lanbide Heziketaren  
Ezagutzaren Euskal Institutua



IRUDIA ETA  
SOINUA

Oinarrizko Curriculum Diseinua

IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN  
PRODUKZIOKO  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA



# AURKIBIDEA

<b>1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA</b>	<b>4. or.</b>
<b>2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA</b>	<b>4. or.</b>
2.1 Konpetentzia orokorra	
2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3 Lanbide-ingurunea	
<b>3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK</b>	<b>5. or.</b>
3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3 Lanbide-moduluak	
1. Ikus-entzunezko proiektuen plangintza	
2. Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa	
3. Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa	
4. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza	
5. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa	
6. Adierazpen-baliabide ikus-entzunezkoak eta eszenikoak	
7. Bitarteko tekniko ikus-entzunezkoak eta eszenikoak	
8. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen administrazioa eta sustapena	
9. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzio-proiektua	
10. Ingeles teknikoa	
11. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
12. Enpresa eta ekimen sortzailea	
13. Lantokiko prestakuntza	
<b>4. GUTXIENEKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK</b>	<b>123. or.</b>
4.1 Espazioak	
4.2 Ekipamenduak	
<b>5. IRAKASLEAK</b>	<b>125. or.</b>
5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
<b>6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK</b>	<b>126. or.</b>
<b>7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK</b>	<b>127. or.</b>
7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	



## 1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Irudia eta Soinua.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: CINE-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

## 2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

### 2.1. Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da ikus-entzunezkoak, ikuskizunak eta ekitaldiak produzitzeko baliabide ekonomikoak, materialak, teknikoak eta giza baliabideak planifikatzea, antolatzea, gainbegiratzea eta kudeatzea, denboran produkzioaren planak edo helburuak betetzen direla ziurtatuz, bai eta ezarritako kostu eta kalitateko baldintzak ere.

### 2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a. Zinematografiako eta ikus-entzunezko lanetako produkzioko laguntza IMS221\_3 (1228/2006 Errege Dekretua, urriaren 27koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
  - UC0703\_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produkzioa antolatzea.
  - UC0704\_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produkzioko baliabideak kudeatzea.
  - UC0705\_3: Zinematografiako eta ikus-entzunezko lanen produkzioaren lan-prozesuak gainbegiratzea.
- b. Telebistako produkzioko laguntza IMS074\_3 (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
  - UC0207\_3: Telebistako proiektuen produkzioa antolatzea.
  - UC0208\_3: Telebistako produkzioko baliabideak kudeatzea.
  - UC0209\_3: Telebistako produktuaren lan-prozesuak kontrolatzea eta egiaztatzea.
- c. Zuzeneko ikuskizunetako eta ekitaldietako produkzioko laguntza IMS437\_3 (abenduaren 18ko 1957/2009 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barnean hartzen ditu:
  - UC1405\_3: Zuzeneko ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen aurreprodukzioa antolatzea eta kudeatzea.
  - UC1406\_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien produkzioa eta antzezpena kudeatzea.
  - UC1407\_3: Zuzeneko ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen emaitzak ebaluatzea.

## 2.3. Lanbide-ingurunea

Titulu hau lortzen duten pertsonak edozein motatako ikus-entzunezko programen produkzioaren sektorean (zinema, bideo, multimedia, telebista, irrati eta *new media*) eta ikuskizunen produkzioaren eta errealizazioaren sektorean (arte eszenikoak, musika-produkzioak eta ekitaldiak) egiten dute lan.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Zinema-produkzioko laguntzailea.
- Bideo-produkzioko laguntzailea.
- Telebista-produkzioko laguntzailea.
- Animazio-produkzioko laguntzailea.
- Multimedia-produkzioko laguntzailea.
- Irrati-produkzioko laguntzailea.
- Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien produkzio-burua.
- Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien produkzio-laguntzailea.
- Konpainiako gerentea.

## 3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK

### 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Ikus-entzunezko programen, ikuskizunen eta ekitaldien produkzioan biltzen diren adierazpen- eta komunikazio-kodeak balioztatzea, eta, horretarako, euren egitura funtzionala eta erlazioak analizatuko dituzte, proiektuen ezaugarri formalak eta adierazpenekoak ondorioztatzeko.
2. Ikus-entzunezko, ikuskizunetako eta ekitaldietako proiektuen produkzioan esku hartzen duten giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta materialen ezaugarriak proiektuaren premia espezifikoekin erlazionatzea, ondoren horiek xehatzeko.
3. Ekitaldi, ikuskizun edo ikus-entzunezko proiektu bat fasetan banatzeko ebaluatzea, eta, horretarako, denborak, baliabideak, kostuak eta kalitateak optimizatuko dituzten estrategiak balioztatuko dituzte haien produkzioa planifikatzeko.
4. Ekitaldi, ikuskizun edo ikus-entzunezko proiektuak abian jartzearen ondoriozko produkzio-kostuak balioztatzea, eta, horretarako, finantziario-formen eta -iturrien ezaugarriak bereiztea, aurrekontuak osatzeko.
5. Ikus-entzunezkoen, ikuskizunen eta ekitaldien produkzioan beharrezko giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta artistikoen kontratuen ezaugarriak bereiztea, eta, horretarako, proiektuaren errealizazioan euren funtzioak eta erantzukizunak balioztatzen dituzte, proiektuaren aukeraketa eta kontratazioa kudeatzeko.
6. Baliabide teknikoaren, materialen, espazialen eta logistikoaren kontratuen ezaugarriak bereiztea, eta, horretarako, baliabideak eskuratzeko moduen eta hornikuntzaren ezaugarriak balioztatzen dituzte, ekitaldi, ikuskizun edo ikus-entzunezko proiektuaren fase bakoitzean baliabideen eskuragarritasuna planifikatzeko.
7. Ekitaldi, ikuskizun edo ikus-entzunezko proiektu baten eguneroko kudeaketan eragiten duten aldagaiak balioztatzea, proiektuaren Laneko Planaren aplikazioa kontrolatzean arazo eta arrisku ohikoenak konpontzeko estrategiak ezagutzeko.
8. Ekitaldi, ikuskizun edo ikus-entzunezko proiektu baten kontrol ekonomikoko erabakietan eragiten duten aldagaiak ebaluatzea, desbideratze-tipologia arruntenak eta proiektuaren aurrekontuaren kudeaketa bermatzeko egin behar dituzten zuzenketak erlazionatuz.
9. Sustapen-planak garatzeko ekitaldi, ikuskizun edo ikus-entzunezko proiektuetan aplikatu daitezkeen *marketinaren* estrategiak eta tresnak balioztatzea, eta,

- horretarako, haren jarraipenean eta kontrolean bat egiten duten elementuak eta erlazioak identifikatuko ditu.
10. Azken bezeroari ikus-entzunezko produktua entregatzeko errekerimenduak betetzeko, kontratuen baldintzak eta produktuaren helburu-baliabideen arabera ikus-entzunezko produktuen azken xedapeneko baldintza estandarizatuak bereiztea.
  11. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuak ustiatzeko eta komertzializatzeko baldintzak balioztatzea, antzetzoki-motagatik sortutako aldagaiak eta lanaren irizpide artistikoari edo komunikaziokoari leialtasuna gordetzeko beharra ezagutuz, ekitaldiaren edo ikuskizun-lanaren Komertzializazio Plana betetzen dela kontrolatzeko.
  12. Ikus-entzunezko banaketara, emanaldi-aretoetara, emisoreetara eta ikuskizunak banatzeko plataforma edo sareetara zuzendutako enpresen ezaugarriak ebaluatzea, euren funtzionamendu-egiturak, jarduteko arauak eta produktoreekin harremanak aztertuz, ikus-entzunezko lana, ikuskizuna edo ekitaldia ustiatzeko planaren errealizazioan parte hartzeko.
  13. Proiektuen alderdi teknikoak, logistikoak, administraziokoak eta fiskalak ixtea kudeatzeko, ekitaldien, ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen proiektuen produkzio-dokumentazioa sortzeko, biltzeko eta kontrolatzeko prozesu osoak antolatzea, aurreikuspenen eta gauzatzeen arteko kontraste-teknikak erabiliz.
  14. Ekitaldi, ikuskizun edo ikus-entzunezko proiektuari lege-esparruaren aplikazioa bermatzeko, hedabideen, ikuskizunen eta ekitaldien erregulazioan dagoen legeria interpretatzea, proiektuen produkzioaren kudeaketan dituen ondorioak analizatuz.
  15. Proiektuen kudeaketan aplikatzeko, ikuskizunen eta ikus-entzunezko sektoreen berezko komunikazioaren eta informazioaren teknologiak erabiltzearekin lotutako programen, gailuen eta protokoloen erabilerak bereiztea, euren ezaugarriak eta aukerak analizatuz.
  16. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
  17. Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
  18. Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.
  19. Gidaritza, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lan-taldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
  20. Komunikazio-estrategiak eta teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzailen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
  21. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
  22. Irisgarritasun unibertsalari eta guztiontzako diseinuari erantzuteko beharrezko lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
  23. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak hobetzeko.
  24. Ekintzailatzeko, enpresako eta ekimen pertsonaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.



25. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

### 3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0915. Ikus-entzunezko proiektuen plangintza	231	1.a
0916. Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa	132	1.a
0917. Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa	140	2.a
0918. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza	165	1.a
0919. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa	160	2.a
0920. Adierazpen-baliabide ikus-entzunezkoak eta eszenikoak	198	1.a
0910. Bitarteko tekniko ikus-entzunezkoak eta eszenikoak	165	1.a
0921. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen administrazioa eta sustapena	200	2.a
E-200. Ingeles teknikoa	40	2.a
0922. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzio-proiektua	50	2.a
0923. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1.a
0924. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2.a
0925. Lantokiko prestakuntza	360	2.a
<b>Zikloa guztira</b>	<b>2.000</b>	

### 3.3 Lanbide moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak





## 1. lanbide-modulua

## IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUEN PLANGINTZA

## a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Ikus-entzunezko proiektuen plangintza</b>
Kodea:	0915
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	231 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	15
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak ea Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Kompetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0207_3: Telebistako proiektuen produkzioa antolatzea. UC0703_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produkzioa antolatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 14.a / 15.a / 16.a / 21.a / 23.a

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ikus-entzunezko proiektu baten errealizazio-aukerak balioztatzen ditu, eta, horretarako, bere ezaugarri espezifikoak eta produkzioa gauzatzeko behar diren prozesuak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Antolakuntzako eta enpresako funtzioen ezaugarriak finkatu ditu, bai eta ikus-entzunezko proiektu baten errealizazioan ematen diren produkzioko prozesuak eta faseak ere, bertan bildutako dokumentazioaren analisian eta interpretazioan oinarrituz.
- Ikus-entzunezko lan baten produkzioan biltzen diren erantzukizunak eta funtzio profesionalak definitu ditu, lanaren tipologia posiblea (zinema, bideoa, telebista, multimedia, irratia eta *new media*), irismena edo neurriak eta generoak kontuan hartuz.
- Ezaugarrien eta errekerimenduen analisian oinarrituz, ikus-entzunezko proiektu baten errealizazioan erabiliko dituen ekipamendu teknikoaren eta teknologien ezaugarri funtzionalak eta eraginkorrak definitu ditu.
- Garatu behar duen ikus-entzunezko proiektu baten generoko ezaugarriak, komunikazio-nahikotasuna, programazioko emankizun-zerrenda batean duen egoera posiblea, eta guztientzako alderdi formalak, estetikoak eta diseinukoak zehaztu ditu, bertan bildutako dokumentazioa analizatu ondoren.

- e) Tipologia (zinema, bideoa, telebista, multimedia, irratia eta new media), irismena edo neurriak eta generoa kontuan hartuz, ikus-entzunezko proiektu bat produzitzeko finantziazio-premia orokorrak aintzat hartu ditu.

2. Ikus-entzunezko proiektu baten produkzioan esku hartzen duten baliabideak xehatzen ditu, eta, horretarako, euren ezaugarri funtzionalak eta eraginkorrak produktu-motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Oinarrizko dokumentua produkzioko unitate logikotan azpibanatu ditu, garatu behar duen ikus-entzunezko proiektuaren tipologia (zinema, bideoa, telebista, multimedia, irratia eta *new media*) kontuan hartuz.
- b) Ikus-entzunezko proiektu baten fase guztien errealizatorako behar diren giza baliabideen, baliabide artistikoen eta teknikoaren beharrak definitu ditu.
- c) Ikus-entzunezko proiektu baten fase guztien errealizatorako behar diren baliabide teknikoaren, materialen, makineriaren eta ekipoen beharrak definitu ditu.
- d) Ikus-entzunezko proiektu baten errealizatorako kokaguneen, dekoratuen, estudioen eta hauei dagokien giropenaren premiak definitu ditu.
- e) Ikus-entzunezko proiektu bat errealizatzeko ikusmenaren, irudiaren eta soinuaren arloetako dokumentazioari dagozkion premia zehatzak definitu ditu.
- f) Ikus-entzunezko proiektu bat errealizatzeko premia guztiak zerrenda koherentetan taldekatu ditu, produkzioko unitate logikoen arabera (eszenak, sekuentziak, multzoak, kokaguneak, dekoratuen multzoa edo sailkatzeko beste item batzuk).
- g) Bertako baliabideen antolaketa eta kanpoko baliabideetara jotzeko aukera hartu ditu kontuan ikus-entzunezko proiektu bat abian jartzeko.
- h) Ikus-entzunezko proiektu baten errealizatorako beharrezko baliabideak identifikatzean optimizazio ekonomikoko, funtzionaleko eta antolakuntzako irizpideak aplikatu ditu.

3. Ikus-entzunezko proiektu bat produzitzeko erabilitako baliabideen ezaugarriak zehatzen ditu, eta, horretarako, produkzio-modu posibleekin, sektoreko finantziazio-iturriekin eta aurrekontuen aukerekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko proiektu baten produkzioan ezarritako errekerimendu eta aukera ekonomikoekin bateragarri diren behin betiko giza baliabideen, baliabide materialen eta logistikoen behar espezifikoa bereizi ditu.
- b) Ikus-entzunezko proiektu bat errealizatzeko baliabide teknikoak eta materialak alokatzeko, eraikitze edo erosteko prozedura egokia erabaki du, modalitate bakoitzak eskaintzen dituen alde onak eta txarrak, eta erabileraren beharrak balioztatu ondoren.
- c) Ikus-entzunezko produkzioko zerbitzuetako enpresen katalogoetan prozedura estandarizatuen bidez kontsultatu ondoren, hornitzaileei eskaintzak egiteko eskaera-dokumentuak formalizatu ditu: teknikarien eta aktoreen agentziak, hitzarmen kolektiboak, bidai-agentziak, garraio-agentziak, alokatzeko, erosteko edo eraikitze enpresak eta beste batzuk.
- d) Baliabideen zehaztapenean oinarrituz, ikus-entzunezko proiektu baten errealizatorako eskubideen negoziazioa eta baimenak eskatzeko premia zehatzak ondorioztatu ditu.
- e) Ikus-entzunezko proiektu baten errealizatorako produkzio-modu egokiari (bertakoa, elkartua, koprodukzioa edo beste bat) buruzko erabakiak dituen eraginak kalkulatu ditu, aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak justifikatuz.

- f) Ikus-entzunezko proiektu baten errealizatorako finantziazio-modu posibleak eta iturri ekonomikoen plana proiektatu ditu.
- g) Ikus-entzunezko proiektu bat produzitzeko laguntza publikoak eta pribatuak, eta diru-laguntzak eskatzeko beharrezko administrazio-izapideak simulatu ditu eta dokumentuak formalizatu ditu.

4. Ikus-entzunezko proiektu bat produzitzeko prozesua planifikatzen du, eta, horretarako, diseinuan aplikatutako prozesu metodologikoa eta hartutako erabakiak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Baliabidearen (zinema, telebista, multimedia, irrati eta *new media*), generoaren eta bere irismenaren edo neurrien arabera, ikus-entzunezko proiektu bat produzitzeko antolakuntza-sistema eta lanaren behin betiko faseak zehaztu ditu.
- b) Xehatze-zerrenden analisisian oinarrituz, ikus-entzunezko proiektu baten produkzio-fase bakoitzerako beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eta logistikoak esleitu ditu.
- c) Produkzioko, blokeetako edo ikus-entzunezko proiektua azpibanatu duten beste edozein unitate koherenteren sekuentzietako bakoitza erregistratzeko behar duten denbora kalkulatu du.
- d) Baliabideak optimizatzeko eta denborari lotutako irizpideak kontuan hartuz, ikus-entzunezko proiektuaren produkzioaren, blokeen edo beste unitate koherente batzuen sekuentzien erregistro-ordena erabaki du.
- e) Ikus-entzunezko proiektuaren produkzioko faseetan halabeharren bat gertatuz gero soluzioak edo jarduera alternatiboak aurreikusi ditu.
- f) Eskura dagoen aurrekontura, tarteko eta amaierako produktuak aurkezteko epeetara, eta eskatutako kalitatera egindako doikuntza egiaztatu du.
- g) Ikus-entzunezko proiektuaren errealizazio-prozesu osoan (aurreproduktzioa, erregistroa eta postproduktzioa) ingurumeneko eta laneko arriskuak prebenitzeko arauak betetzen direla hartu du kontuan.
- h) Ikus-entzunezko proiektu baten produkzio-prozesuaren plangintza- eta jarraipen-dokumentazioa osatu du.

5. Ikus-entzunezko proiektu baten aurrekontua osatzen du, eta, horretarako, proiektua osatzen duten partiden eta kontzeptuen kostuak, batetik, eta merkatuko prezioak eta produkzio-estandarrik, bestetik, alderatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garrantziaren edo neurrien eta finantziazioaren arabera, ikus-entzunezko proiektu baten kudeaketa ekonomikorako aurrekontu-eredua, informatikako aplikazioa eta kalkulu-prozedura egokiena aukeratu ditu.
- b) Ikus-entzunezko proiektuaren produkzio-planaren analisisian oinarrituz, aurrekontu-partidetan giza baliabideen, baliabide materialen, logistikoen eta beste edozein motatakoen beharrak taldekatu ditu.
- c) Ikus-entzunezko proiektu bat produzitzeko ezarritako ezaugarri eta aukera ekonomikoetara ondoen egokitzen diren ikus-entzunezko produkzioarako zerbitzuen hornitzaileei (aktoreen eta teknikarien agentziak, hitzarmen kolektiboak, bidai-agentziak, garraio-agentziak, alokatzeko, erosteko edo eraikitze enpresak eta beste batzuk) galdetu ondoren eskaintza egokienak aukeratu ditu.
- d) Behar den unean ikus-entzunezko proiektu bat administratzen eta kudeatzen gastu arruntei aurre egiteko likidezia erabiltzeko aukera emango duen gastuen aurreikuspena ezarri du.
- e) Ikus-entzunezko proiektu baten epeari, kostuari eta kalitateari buruz aurrez definitutako helburuak betetzeko eta optimizatzeko irizpideak kontuan hartuz baliabide ekonomikoak proiektatu ditu.

- f) Ikus-entzunezko produkzio baten aurrekontua osatzeko eta ondoren kudeatzeko informazio guztia idatziz jasotzen duen memoria ekonomikoaren zatia osatu du.

### c) Oinarrizko edukiak

1. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUEN ERREALIZAZIO AUKERAK BALIOZTATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko proiektu baten bideragarritasuna zehazten duten txostenak egitea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Produkzioko prozesuak eta faseak balioztatzea.</li> <li>• Beharrezko ekipamendu teknikoaren eta teknologien ezaugarri funtzionalak eta eraginkorrak analizatzea.</li> </ul> </li> <li>- Generoko ezaugarriak, komunikatzeko intenzionalitatea, programazioko emankizun-zerrendan duen egoera posiblea eta alderdi formalak, estetikoak eta diseinukoak zehaztea.</li> <li>- Finantzatzeko premia orokorrak kalkulatzeko.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzio baten dokumentazioa sortzeko eta kudeatzeko informatikako aplikazio profesionalak erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko industriaren antolamendu-egitura eta funtzioak: zinema, bideoa, telebista, multimedia, irratia eta <i>new media</i>.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzio-prozesuen tipologia: faseak eta ezaugarriak ingurunearen eta teknologiaren arabera.</li> <li>- Industria zinematografikoa, bideografikoa eta telebistakoa, ikus-entzunezko produkzio-jardueren eboluzio historikoaren arabera.</li> <li>- Ikus-entzunezko generoak eta produktuak. Guztientzako diseinuaren eragileak.</li> <li>- Ikus-entzunezko produktuen produkzioan organigramak eta funtzio profesionalak.</li> <li>- Ikus-entzunezkoak produzitzeko prozesuak.</li> <li>- Irrati- eta telebista-etxeen programazioa.</li> <li>- Zinemako, bideoa eta multimediako lanen finantziakzioa.</li> <li>- Ikus-entzunezko proiektu baten bideragarritasuna zehazteko prozesuak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Burututako lana gauzatzeko kalitatearekin konpromisoa.</li> <li>- Ordena metodologikoa lanaren errealizazioan.</li> </ul>

2. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUAK PRODUZITZEKO BALIABIDEAK BANAKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko proiektu baten produkzio-premiak analizatzeko gidoia banakatzea.</li> <li>- Produkzioko unitate logikoen arabera zerrenda koherentetan taldekatzea.</li> <li>- Ekipo teknikoaren eta pertsona-taldearen beharrak planifikatzea.</li> <li>- Dokumentazio grafikoko eta ikuste- eta soinu-dokumentazioko premiak definitzea.</li> <li>- Produkzio-premien arabera kokagune posibleak kudeatzea eta bilatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzio baten dokumentazioa sortzeko eta kudeatzeko informatikako aplikazio profesionalak erabiltzea.</li> </ul>

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren produkzio-faseetan giza baliabideen, eta baliabide materialen eta logistikoen ezaugarriak eta tipologia.</li> <li>- Kokaguneen, dekoratuen, estudioen eta agertokien tipologia eta ezaugarriak: Hautatzeko irizpideak.</li> <li>- Eszenaratzean erabilitako elementuen ezaugarriak eta tipologia: hautatzeko irizpideak.</li> <li>- Proiektuaren behin betiko dokumentazioaren edo gidoiaren analisis oinarrituta, baliabideak xehatzeko teknikak.</li> <li>- Behar orokorrak eta ikus-entzunezko proiektuaren multzo edo unitate koherenteen eta produkzio-sekuentzien arabera zehatzeko irizpideak.</li> <li>- Bertako baliabideak erabiltzeko eta kanpoko baliabidetara jotzeko balioztatze-irizpideak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orduetgia zorrotz betetzea.</li> <li>- Lan-taldearekin erlazionatzeko prest egotea.</li> </ul>

### 3. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUEN PRODUKZIORAKO BALIABIDEEN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errekerimendu eta posibilitate ekonomikoekin bateragarri diren giza baliabideen, baliabide materialen eta logistikoen behar espezifikoak definitzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko proiektu baten errealizaziorako baliabide teknikoak ea materialak erosteko, eraikitzeko edo alokatzeko prozedura egokia zehaztea.</li> <li>- Proiektua filmatzeko eta produzitzeko beharrezko baimenak idaztea, osatzea eta kudeatzea.</li> <li>- Proiektua gauzatzeko beharrezko giza baliabideak kudeatzea eta aurkitzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aktoreen agentziak.</li> <li>• Teknikarien agentziak.</li> <li>• <i>Casting</i> bat prestatzea eta kudeatzea.</li> </ul> </li> <li>- Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide teknikoak eta materialak kudeatzea eta aurkitzea.</li> <li>- Finantziazio-iturriak bilatzea eta erabakitzea.</li> <li>- Diru-laguntzak eta laguntzak eskatzeko beharrezko administrazioko izapideak eta dokumentazioa formalizatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzio baten dokumentazioa sortzeko eta kudeatzeko informatikako aplikazio profesionalak erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Xehatze-zerrendetan oinarrituz, giza baliabideen eta baliabide materialen eta logistikoen ezaugarriak zehatzeko prozedurak. aukeratzeko irizpideak.</li> <li>- Bikoizketako industria, emanaldi, banaketa, emisio eta produkzioko sektoreko enpresak.</li> <li>- Giza baliabideen, baliabide materialen eta logistikoen hornitzaileei eskaintzak eskatzeko prozedurak.</li> <li>- Ikus-entzunezko proiektuak produzitzeko eskubideen kudeaketa eta baimenen beharra baloratzeko prozedurak.</li> <li>- Produkzio-modalitateak: berezkoa, elkartua eta koprodukzioa. Alde onak eta txarrak.</li> <li>- Ikus-entzunezko proiektuak finantzatzeko iturriak eta moduak: hautatzeko irizpideak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jasotzen dituen argibideak zuhurtasunez interpretatu eta gauzatea.</li> <li>- Ekipo profesionalekin tratatzeko gaitasuna.</li> </ul>

4. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUAK PRODUZITZEKO PROZESUA PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produktu-motaren eta baliabidearen arabera, laneko planaren eredia aukeratzea eta sortzea, baliabideak optimizatuz.</li> <li>- Produkzioaren fase bakoitzerako beharrezko giza baliabideak, baliabide materialak eta logistikoak esleitzea.</li> <li>- Proiektuaren produkzio prozesu osoa planifikatzeko eta jarraitzeko beharrezko dokumentazioa osatzea.</li> <li>- Produkzio-sekuentziak, blokeak edo laneko beste edozein unitate koherente hartzeko kalkulaturako denborak eta erregistro-ordena planifikatzea.</li> <li>- Laneko plana osatzean arrisku profesionalen eta ingurumeneko arriskuen prebentzio-arauak aplikatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzio baten dokumentazioa sortzeko eta kudeatzeko informatikako aplikazio profesionalak erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laneko planaren ereduak: ereduaren tipologia.</li> <li>- Ikus-entzunezko proiektuaren plangintzan laneko planak zehazteko prozedurak.</li> <li>- Unitate koherenteen, multzoen edo produkzioko sekuentzien arabera erregistroko edo errealizazioko denbora eta ordena baloratzeko teknikak.</li> <li>- Laneko plana eraikitzean baliabideak esleitzeko eta optimizatzeko teknikak.</li> <li>- Laneko plana diseinatzeko eta eraikitzeko teknikak, ingurumena eta produktu-mota kontuan hartuz.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa produkzio-talde osoarentzako eskuragarri egon behar duen balio handiko baliabide gisa baloratzea.</li> <li>- Taldeko lanarekin konpromisoa, norberak bere erantzukizuna hartuz.</li> </ul>

5. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUEN AURREKONTUAK OSATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko proiektu baten aurrekontua osatzea.</li> <li>- Proiektua finantzatzeko plana osatzea.</li> <li>- Proiektuaren memoria ekonomikoa gauzatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzio baten dokumentazioa sortzeko eta kudeatzeko informatikako aplikazio profesionalak erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programa-motaren eta baliabidearen arabera aurrekontu-ereduen tipologia: aukeratzeko irizpideak.</li> <li>- Laneko planaren aurrekontu-analisiaren teknikak: optimizazio-irizpideak.</li> <li>- Aurrekontu-partidak: motak diferenteak, zehazteko irizpideen eta produktuaren arabera.</li> <li>- Merkatuko prezioak, eta eskaintzak baloratzea eta aukeratzea: katalogoak, datu-baseak, balioesteko eta aukeratzeko irizpideak.</li> <li>- Baliabide materialen eta logistikoen hornitzaileekin erlazio ekonomikoak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendu-aldaketetara egokitzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzioaren barruan antolakuntza-kudeaketaren garrantzia baloratzea.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu hau aurkezteko eta, ondoren, edukiak sekuentziatzeko modu egokia izan daiteke ikus-entzunezko proiektu bat zer den orokorrean azaltzea. Era horretan, ondo antolatzeak duen garrantzia handia ulertu ahal izango da. Beraz, **1. multzoari** dagokionean, kontuan hartuko dute errealizatzeko aukera balioztatu ahal izateko bete behar dituzten faseen analisia. Horretarako, euren ezaugarri espezifikoak eta produkzioa gauzatzeko beharrezko prozesuak erlazionatuko dituzte. Ikus-entzunezko proiektuaren helburuan kontuan hartu beharrezko faktoreak dira. Era horretan, finantzatzeko behar orokorrak kalkulatu ahal izango dituzte. Prozedurazko eremuari dagokionean, praktika profesionalean erabiltzen dituzten tresna informatikoak ezagutzen hastea komeni da.

Ondoren, 2. multzoko edukiak garatu beharko lirarteke, ikus-entzunezko proiektuaren produkzioan esku hartzen duten baliabideak xehatzeko. Horretarako, euren ezaugarri funtzionalak eta eraginkorrak garatu behar duten produktu-motarekin (zinema, bideoa, telebista, multimedia, irratia edo *new media*) erlazionatuko lituzkete. Halaber, produkzioa eta beharrezko ikuste- eta soinu-dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa fase guztietan gauzatzeko beharrezko giza baliabide artistikoen eta teknikoak (ekipoak, kokaguneak, estudioak, dekoratuak, makineria, materialak eta baliabide teknikoak) beharrak ere definitu beharko lirarteke.

Prozedurazko balioa dutenez, praktikak eta frogapenak garatzea gomendatzen dute, dokumentu batean zein modu digitalean.

Aipatutako praktikak **3. multzoko** prozeduren bidez sakonduko dituzte. Bertan, ikasleak gai izango dira baliabideak (analogikoak edo digitalak izan berdin da) kudeatzeko lanak egiteko. Era horretan, ikus-entzunezko proiektu baten produkzioan ezarritako errekerimendu eta aukera ekonomikoekin bateragarri diren behin betiko giza baliabideen, baliabide materialen eta logistikoen premia espezifikoak zehazteko eta eskatzeko beharrezko dokumentazioak formalizatu ahal izango dituzte. Laguntza publikoak eta pribatuak, eta diru-laguntzak eskatzeko beharrezko administrazio-izapidetzeetarako dokumentu ofizialak betetzen direla ere kontuan hartu behar da.

Ondoren, sekuentziazioan kontua hartuko dute proiektu baten produkzio-prozesuaren plangintza, eta, horretarako, diseinuan aplikatutako prozesu metodologikoa eta hartutako erabakiak justifikatuko dituzte, eta eskura dagoen aurrekontura, tarteko eta amaierako produktuak aurkezteko epeetara, eta eskatutako kalitatera doitzen direla egiaztatuko dute. **4. multzoan** garatutako edukiak dira, eta ikus-entzunezko proiektuaren errealizazio-prozesu osoan (aurreproduktzioa, erregistroa eta postproduktzioa) ingurumeneko eta laneko arriskuak prebenitzeko arauak betetzen direla ezagutzea ere bertan sartu dute. Dagokion *software*aren bitartez, ikus-entzunezko proiektu osoaren produkzio-prozesuaren plangintza- eta jarraipen-dokumentazioa osatzen dute.

Amaitzeko, **5. multzoan** aipatu bezala, landutako eta bildutako dokumentazioan oinarrituz, ikus-entzunezko proiektu baten aurrekontua osatu ahal izango dute, eta,

horretarako, proiektua osatzen duten partiden eta kontzeptuen kostuak, batetik, eta merkatuko prezioak eta produkzio-estandarrak, bestetik, alderatuko dituzte.

Multzoei dagokien sekuentzia-ordena hau koherentea dela dirudi, publizitate spot, erreportaje edo dokumentala bezalako ikus-entzunezko proiektu bat diseinatzeko eta xehatzeko. Horri esker, ikasleek eduki-multzoetan adierazitako prozedurak denbora egokiagoarekin aplikatu ahal izango dituzte.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan zinema, bideo, telebista, multimedia, animazio, irrati eta *new mediako* proiektuen plangintza garatzen dute. Horregatik, ez dituzte ikus-entzunezko produkzioan berezko kontzeptuak bakarrik analizatuko; horietaz gain, ikus-entzunezko produktu bat egiteko helburuarekin gidoiak xehatuko dituzte. Hasieran, irakasleak bere klaseak era kontzeptualean garatuko ditu, ikasleek egitura funtzionala eta bere erlazioak analizatu ahal izateko ezagutzak eskura ditzaten. Era horretan, ekitaldietan, ikuskizunetan eta ikus-entzunezko programen produkzioan bat egiten duten adierazpeneko eta komunikazioko kodeak balioztatu ahal izango dituzte.

Taldetan lan egitea ezinbestekoa da modulu honetan eskuratzen dituzten kontzeptuak praktikatzeko. Era horretan, publizitate-iragarkiak, bideoklipak, dokumentalak edo film dramatikoak bezalako hainbat motatako proiektuak –zinema, bideo, animazio, multimedia eta *new media* eta telebistarako– analizatzeko eta xehatzeko teknikak ikasleek landu ditzaten erraztuko dute. Txostenak eta dokumentuak erabiliko eta landuko dituzte, eskuz zein informatika bidez. Ikasleak jardun-prozedura hauek hartuko ditu eredu gisa, ikasketa mailakatua eta metodologikoki egituratua eskaintzeko. Horrela, une batean, taldetan banatuta, ikus-entzunezko proiektu zehatz bat xehatzeko eta kudeatzeko teknikak aplikatuko dituzte, beharrezko giza baliabide artistikoak, baliabide tekniko eta dokumental zehatzak definitu ondoren. Beranduago, proiektuaren garrantziaren arabera, norberak bere aldetik landu ahal izango du, bakarkako proiektuen errealizazioa bultzatuz.

Landuko dituzten teknikak hobeto ezagutzeko eta aplikatzeko, ikasleek, bakarka edo taldeka, ikerketa-lanak egingo dituzte, heziketa balioanizduna eskuratzeko. Informazioaren teknologia berriak, ezagutzak trukatzeko bideen adierazpena eta eguneratze teknologikoa bultzatuko dituzte. Egindako ikerketak gelan azaldu ahal izango dituzte.

Ikasle bakoitzak eskuratzen dituen ezagutzen eta trebetasunen inguruan irakasleek banakako jarraipena egingo dute, ikasleak emandako aurrerapausoez jabetzeko, eta ikus-entzunezko materialen produkzioarekin eta taldean jarduteko eskatutako eskuduntza eskuratzen dutela egiaztatzeko.

Arlo didaktikotan finkatutako ikaskuntzako emaitzak lortzeak duen garrantzia kontuan hartuz, modulu hau **“Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa”** 0916 moduluko jarduerak prestatzearekin eta garatzearekin koordinatuz lantzea gomendatzen dute. Zehazki, baliabide teknikoak, materialak eta logistikoak kudeatzeko prozedurak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak aukeratzeko eta kontratatze planak erabiliz, eta produkzioaren fase guztiak gainbegiraturaz eta kontrolaturaz, ondoren, landuko duten ikus-entzunezko produktua hedatzeko eta komertzializatzeke.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ikus-entzunezko proiektu baten errealizazioan biltzen diren produkzio-prozesuak eta -faseak definitzea:
  - Erantzukizunak eta funtzio profesionalak.



- Teknologia eta ekipamendu teknikoen ezaugarri funtzionalak eta eraginkorrak egiaztatzea.
  - Dokumentazioa aztertu ondoren, garatuko duten ikus-entzunezko proiektuaren alderdi formalak, estetikoak eta diseinukoak, komunikazio-asmoak eta generoko ezaugarriak zehaztea.
  - Produktorako finantzazioko premia orokorrak kalkulatzeko, euren irismena edo garrantzia kontuan hartuz.
- ✓ Proiektua errealizatzeko eta xehatzeko aukerak balioztatzea:
- Ikus-entzunezko proiektuaren tipologiaren arabera produktio unitate logikotan gidoiaren azpibanaketa eta dokumentazioa analizatzea.
  - Ikus-entzunezko proiektuaren fase guztien errealizatorako behar diren giza baliabideen, baliabide artistikoen eta teknikoen beharrak definitzea.
  - Beharrezko baliabide teknikoen, materialen, makinariaren eta ekipoen beharrak definitzea, bai eta kokaguneen, dekoratuen eta estudioen beharrak ere, euren dagokien giropenarekin batera.
  - Proiektua errealizatzeko ikusmenaren, irudiaren eta soinuaren arloetako dokumentazioari dagozkion premia zehatzak balioestea.
  - Produktio unitate logikoen arabera (eszenak, sekuentziak, multzoak, kokaguneak, dekoratuen multzoa edo sailkatzeko beste item batzuk), zerrenda koherentetan taldekatzea.
  - Bertako baliabideak erabiltzeko aukera eta bideragarri egiteko kanpoko baliabideak erabiltzeko aukera balioestea.
  - Abian jartzeko balioztatzearen erabakitzea.
- ✓ Produktio-diseinua:
- Proiektuaren errealizatorako beharrezko baliabideak identifikatzean optimizazio ekonomikoko, funtzionaleko eta antolakuntzako irizpideak aplikatzea.
  - Produktioan ezarritako errekerimenduekin eta aukerekin bateragarri diren behin betiko giza baliabideen, baliabide materialen eta logistikoen behar espezifikoak bereiztea.
  - Proiektuaren material zehatzak eta baliabide teknikoak erosteko, eraikitze edo alokatzeko prozedura egokia erabakitze, erabilerako premiak, eta alde onak eta txarrak balioztatzea.
  - Proiektuaren errealizatorako baimenak eskatzeko eta eskubideak negoziatzeko premia zehatzak ondorioztatzea eta sailkatzea.
  - Ikus-entzunezko produktorako enpresen zerbitzuak eskatzeko dokumentuak formalizatzea: teknikarien eta aktoreen agentziak, hitzarmen kolektiboak, bidai-agentziak, garraio-agentziak, alokatzeko, erosteko edo eraikitze enpresak eta beste batzuk.
  - Finantziario-modu posibleak eta iturri ekonomikoen plana errealizatzea. Ikus-entzunezko proiektu bat produzitzeko laguntza publikoak eta pribatuak, eta diru-laguntzak eskatzeko beharrezko administrazio-izapideak simulatzea eta dokumentuak formalizatzea ere.
- ✓ Produktio-prozesua planifikatzea:
- Ingurunearen, generoaren eta neurriaren arabera, ikus-entzunezko proiektu baten produktioa antolatzeko sistema eta lanaren behin betiko faseak zehaztea.
  - Xehatze-zerrenden analisis oinarrituz, ikus-entzunezko proiektu baten produktio-fase bakoitzerako beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eta logistikoak esleitzea.
  - Produktio, blokeetako edo ikus-entzunezko proiektua azpibanatu duten beste edozein unitate koherenteren sekuentzietako bakoitza erregistratzeko behar duten denbora kalkulatzeko.

- Baliabideak optimizatzeko eta denborako irizpideak kontuan hartuz, ikus-entzunezko proiektuaren produkzioaren, blokeen edo beste unitate koherente batzuen sekuentzien erregistro-ordena zehaztea.
  - Ikus-entzunezko proiektuaren produkzioko faseetan halabeharren bat gertatuz gero soluzioak edo jarduera alternatiboak aurreikustea.
  - Eskura dagoen aurrekontura, tarteko eta amaierako produktuak aurkezteko epeetara, eta eskatutako kalitatera doitzea eta egiaztatzea.
  - Ikus-entzunezko proiektuaren errealizazio-prozesu osoan (aurreproduktzioa, erregistroa eta postproduktzioa) ingurumeneko eta laneko arriskuak prebenitzeko arauak betetzen direla egiaztatzea.
  - Ikus-entzunezko proiektu baten produkzio-prozesuaren plangintza- eta jarraipen-dokumentazioa osatzea.
- ✓ Ikus-entzunezko proiektu baten aurrekontua osatzea:
- Informatikako aplikazioaren arabera, aurrekontu-eredua osatzea, kudeaketa ekonomikorako kalkulu-prozedura egokienaren bitartez.
  - Ikus-entzunezko proiektuaren produkzio-planaren analisisian oinarrituz, aurrekontu-partidetan giza baliabideen, baliabide materialen, logistikoen eta beste edozein motatakoen beharrak taldekatzea.
  - Proiektua produzitzeko ezarritako ezaugarri eta aukera ekonomikoetara ondoen egokitzen diren ikus-entzunezko produkziarako zerbitzuen hornitzaileei (aktoreen eta teknikarien agentziak, hitzarmen kolektiboak, bidaia-agentziak, garraio-agentziak, alokatzeko, erosteko edo eraikitzeako enpresak eta beste batzuk) galdetu ondoren eskaintza egokienak aukeratzea.
  - Behar den unean ikus-entzunezko proiektu bat administratzen eta kudeatzen gastu arruntei aurre egiteko likidezia erabiltzeko aukera emango duen gastuen aurreikuspena ezartzea.
  - Ikus-entzunezko proiektu baten epeari, kostuari eta kalitateari buruz aurrez definitutako helburuak betetzeko eta optimizatzeko irizpideak kontuan hartuz baliabide ekonomikoak proiektatzea.
  - Ikus-entzunezko produkzio baten aurrekontua osatzeko eta ondoren kudeatzeko informazio guztia idatziz jasotzen duen memoria ekonomikoaren zatia osatzea.

## 2. lanbide-modulua

### ZINEMA, BIDEO ETA MULTIMEDIA PROIEKTUEN KUDEAKETA

#### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa</b>
Kodea:	0916
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0704_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produktio baliabideak kudeatzea. UC0209_3: Telebistako produktuaren lan-prozesuak kontrolatzea eta egiaztatzea.
Helburu orokorrak:	4.a / 5.a / 6.a / 7.a / 8.a / 10.a / 12.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Zinemako, bideo edo multimediako proiektu baten giza baliabideak aukeratzeko eta kudeatzeko prozedurak ezartzen ditu, eta, horretarako, gaitasun eta erantzukizun profesionalak proiektuaren helburuak erdiestearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zinemako, bideo edo multimediako proiektu bat produzitzeko beharrezko giza baliabide teknikoak aukeratzeko eta kontratatzeke plana ezarri du, produkzio-planaren eta proiektuaren dokumentazioaren azterketan oinarrituz, eta proiektu-motaren, bere generoaren eta konplexutasunaren arabera kontratatzeke modalitatea eta lanbide-profila balioztatuz.
- Eskatutako profilen arabera artistak aukeratzeko casting probak egiteko prozesuak planifikatu ditu, aktoreen katalogoak, agentziak eta ordezkariak kontsultatu ondoren, eta proben tipologia, esku hartzeke ordena eta partaideen erantzuna definituz.

- c) Laneko planaren eta produkzioaren errekerimenduen arabera, giza baliabideen, eta baliabide teknikoaren eta artistikoen gaitasuna, egokitasuna eta eskuragarritasuna egiaztatzeko sistema ezarri du.
- d) Burutuko dituen kontratuen klausuletan sartu beharreko teknikarien eta artisten erantzukizun profesionalak definitu ditu, hitzarmen kolektiboak, kaxetak, lan-kategoriak eta, halakorik baleude, aseguruaren baldintzak kontuan hartuz.
- e) Zinemako, bideoeko edo multimediatikoa proiektu baten produkzioaren faseetan giza baliabideen eta euren esku hartzeko baldintzen banaketa programatu du.

2. Zinemako, bideoeko edo multimediatikoa proiektu baten produkzio-prozesuan esku hartzen duten baliabide teknikoaren, materialen eta logistikoen harrera-, kontrol- eta jarraipen-sistema diseinatzen du, eta, horretarako, zerbitzuak hornitzeko enpresa-mota diferenteekin ezartzen dituzten erlazioak bereizten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekipamendu teknikoa jasotzeko, kontrolatzeko eta bere jarraipena egiteko dokumentuan jasotako prozedura ezarri du, baldintzak betetzen direla, ondo funtzionatzen duela eta adostutako unean heldu dela kontuan hartuz.
- b) Produkzio-prozesuaren faseetan behar diren euskarri eta material suntsikorrik jasotzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema ezarri du, arau tekniko estandarizatuak betetzen direla egiaztatuz.
- c) Proiektuaren faseetan esku hartzeko beharrezkoen arabera, zerbitzuak kanpoko enpresa-mota diferenteekin erlazioak definitu ditu, kontratuko klausulak eta euren zerbitzuen baldintzak idatziz.
- d) Proiektua filmatzean/grabatzean egin behar dituzten efektu berezien ezaugarriak dokumentatu ditu, horien ondoriozko segurtasun-baldintzak bilduz.
- e) Laneko plana behin betiko baliabideen eskuragarritasun- eta eraginkortasun-baldintzetara egokitu du, egondako aldaketak azpimarratuz eta antolamendu-mailan soluzioak emanez.
- f) Baliabide materialen, teknikoaren eta logistikoen kontratuak idatzi ditu, aurrekontua optimizatuz eta ordaintzeko baldintza egokienak balioztatuz.
- g) Plan logistikoa finkatu du, langileen eta teknikarien joan-etorriak, bizilekuak eta mantenua ezarritako baldintzetan eta epeetan burutuko dituztela bermatuz.
- h) Filmatzeko edo grabatzeko lekuetan ekipoak eta materialak hornitzeko sistema ezarri du, biltegiatzeko eta segurtasuneko baldintzak aztertuz.

3. Estudioen, kokaguneen eta euren dekoratuen kudeaketa-sistema ezartzen du, eta, horretarako, baimenak eskuratzea, eta gauzatzeko edo egokitze kalitateen eta denboren kontrola lortzen du, eta zinemako, bideoeko edo multimediatikoa proiektuan ezarritako irizpide estetikoak eta ekonomikoak jarraitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Grabazio-estudioak zinemako, bideoeko edo multimediatikoa proiektura teknikoki egokitzen ote diren, eta ezarritako epeetan eskuragarri ote dauden egiaztatu du.
- b) Kokagune-txostenaren edo -fitxaren azterlanetan eta tokian bertan egindako alderatzean oinarrituz, espazioa proiektuaren premietara eta bere eskuragarritasunera egokitze baldintzak egiaztatu eta dokumentatu ditu.
- c) Kokaguneak erabiltzeko baimenak lortzeko dokumentu bidezko prozesuak egin ditu, publikoaren eta pribatuaren artean bereiziz.
- d) Premia eszenografikoak zehaztu ditu, eta girotzeko elementuak eta dekoratuak eraikitze eta instalatzeko epeak eta prozedura finkatu ditu, ezarritako kalitate-estandarrerara doituz.

- e) Estudioak eta kokaguneak erabiltzeko kontratuen klausulak idatzi ditu, eszenografikoki eta teknikoki egokitzeko behar diren denborak, eta produkzioaren aurrekontura egokitzea kontuan hartuz.
- f) Filmaketan/grabazioan zehar estudioan edo kokagunean burutu behar dituzten efektu berezien modalitatea zehaztu du, haien errealizazioa planifikatuz, eta bertako lanak ezaugarri teknikoekin eta espazialekin erlazionatuz.

4. Zinemako, bideoko edo multimediako proiektu bat errealizatzeko eskura dauden baliabide ekonomikoen kudeaketa-sistema ezartzen du, eta, horretarako, kudeaketa-baldintzak eta finkatutako epeetan, kalitatetan eta aurrekontuan proiektua amaitzeko helburua erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Besteak beste erantzukizun zibilarekin, negatiboarekin, materiala galtzearekin eta helburu egokiekin lotutako zinemako, bideoko edo multimediako proiektuen produkziara aplikatu daitezkeen aseguruaren klausulak idatzi ditu, proiektuaren kaudimen ekonomikoa babesteko helburuarekin.
- b) Baliabide ekonomikoen eskuragarritasuna eta kontrola bermatzeko, zinemako, bideoko edo multimediako proiektu baten administrazioan eta kudeaketan aplikatzeko administrazio- eta kontabilitateko prozedurak zehaztu ditu.
- c) Prozesuko fase bakoitzean gastuaren jarraipen-plana diseinatu du, dagozkion gastuen partidak identifikatuz.
- d) Proiektuaren kudeaketa ekonomikorako ordainketen egutegia ezarri du, une bakoitzean beharrezkoak diren kantitate ekonomikoak mugatuz.
- e) Zinemako, bideoko edo ikuskizuneko proiektua produzitzeko laguntza publikoak eskuratzeko behar diren dokumentuak kudeatu ditu.
- f) Produkzioaren administrazio-dokumentazioaren jarraipena bermatzeko sistema ezarri du, berau artxibatzea eta kokagunea bermatuz.
- g) Egile-eskubideen edo hirugarrenen jabetzaren mende dauden edukiak erabiltzeko baimenak eskuratzeko dokumentazioa kudeatu du.
- h) Aurreikuspenekiko errealizazioak alderatzeko balantze ekonomikoa egin du, desbideraketan aurrean zuzentzeko ekintzak proposatuz.

5. Zinemako edo bideoko proiektu bat filmatzea/grabatzea kudeatzeko eta gainbegiratzeko prozedura diseinatu du, bai eta multimedia-proiektu baten produkzioarena ere, eta, horretarako, prozesuan esku hartzen duten jarduerak eta aldagaiak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Artistentzako eta teknikarientzako zitazioen eta deialdien plana egin du, garaiz eta beharrezko egiaztapenak eginez hedatuko dutela bermatuz.
- b) Entseguen planaren aplikazioa eta jarraipena finkatu du, errealizazioak edo zuzendaritzak aurreikusitako emaitzak lortzea kontuan hartuz, prozesu teknikoak doitu eta jantzitegiko, makillajeko, karakterizazioko eta ile-apainketako probak eginez.
- c) Multimediako proiektu baten, 2D edo 3D animazioko proiektu baten, proiektu elkarreragile baten edo bideo-joko baten produkzio-prozesuak kontrolatzeko prozedura diseinatu du, tarteko fase guztien jarraipena eta kontrola bermatuz, muntatzeko, postproduzitzeko eta soinuztatze materialak eduki arte.
- d) Produkzioaren segurtasun-plana planifikatu du, ordena publikoko indarrei zerbitzu hori eskaintzea eskatu ondoren edo enpresa espezializatuen zerbitzuak kontratatu ondoren.
- e) Teknikariek eta artistekin, eta materialen, ekipoen eta zerbitzuen enpresa hornitzaileekin kontratuetan bildutako klausulak betetzen dituztela ziurtatzeko prozedura diseinatu du.

- f) Programa produzitzeko plana betetzeko kontrol-sistema ezarri du, prozesuan zehar sortutako ikus-entzunezko materialak gordetzeaz eta kontrolatzeaz arduratuz.
- g) Eguneroko laneko partea prestatu du eta biharamunerako laneko ordena osatu du, errealizazioko edo zuzendaritzako ekipoarekin partekatutako erantzukizuna kontuan hartuz, eta halabeharrak konpontzeko beste soluzioak iradokiz.
- h) Programaren produkzio-prozesuan zehar sortutako pertsonen arteko halabehar eta problema posibleak konpontzeko teknikak eta negoziazio-estrategiak aplikatu ditu.

6. Zinemako, bideoa edo multimediako proiektu bat muntatzeko eta postproduzitzeko prozesuak kudeatzeko prozedura diseinatzen du, eta, horretarako, bertan esku hartzen duten jarduerak eta aldagaiak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektua muntatzeko, postproduzitzeko eta soinuztatzeko planaren aplikazioa kudeatzeko eta gainbegiratzeko prozedura ezarri du, muntaia-gelen eta ekipoen ezaugarriak eta tipologia, aplikatuko dituen efektuak, soinu-banda eraikitze prozesuak eta produktuaren amaierako doikuntzak zehaztuz.
- b) Ikus-entzunezko materialak entregatzeko eta jasotzeko sistema definitu du; halaber, proiektuaren muntaiari, postprodukzioan eta soinuztatzean esku hartzen duten sailen artean material horiek denboran zehar banatzea ere definitu du: irudiaren muntaia, audioaren muntaia, soinuen grabazioa, musiken grabazioa, nahasketak, laborategi eta postprodukzio digitala, besteak beste.
- c) Barne-balorazioa, eta tarteko eta amaierako produktuen entrega kontuan hartuz, amaierako produktuaren kalitate-baldintzak kontrolatzeko sistema ezarri du, kanpoko aktoreek baliozkotzeko, eta amaierako produktuan aldaketak egiteko beharrezko baliabideen hedapena eta denbora-epeak kontuan hartuz.
- d) Multimediako produktuen eta interaktiboien nabigazio-protokoloak betetzen direla gainbegiratu du, bai eta egiletza-prozesuen errealizazioa eta baliozkotzea ere.
- e) Ustiapen- edo hedapen-kanalaren arabera, masterizazioaren berezitasuna eta PPD (hedatzeko edo emititzeko prest) arauak betetzea bezalako ikus-entzunezko eta multimediako produktuak entregatzeko arau estandarizatuen arabera, amaierako produktuaren ezaugarri teknikoak zehaztu ditu.
- f) Zinemako, bideoa edo multimediako produktua sustatzeko egokia izango den aurrerakin bat edo ikus-entzunezko beste edozein elementu eskuratzeko prozesua diseinatu eta gainbegiratu du.

c) Oinarriko edukiak:

1. ZINEMAKO, BIDEOKO EDO MULTIMEDIAKO PROIEKTU BATEN GIZA BALIABIDEAK AUKERATZEKO ETA KUDEATZEKO PROZEDURAK EZARTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza baliabide teknikoak aukeratzeko eta kontratatzekeo plana lantzea.</li> <li>- Lan-kategorien arabera kontratuak idaztea.</li> <li>- <i>Castina</i> edo artistak aukeratzeko probak egitea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Castina</i> antolatzekeo behar diren baliabideak, metodologia eta mota.</li> <li>• <i> Casting</i>-probak antolatzea.</li> </ul> </li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileak aukeratzeko eta balioztatzeko irizpideak.</li> <li>- Teknikarien eta artisten erantzukizun profesionalak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalen eta proiektu-moten arabera kontratatzekeo</li> </ul> </li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>• klausulak.</li> <li>• Ordainsariak.</li> <li>• Lan-kategoriak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipo profesionalekin tratatzeko gaitasuna.</li> <li>- Taldeko lanarekin konpromisoa, norberak bere erantzukizuna hartuz.</li> </ul>

**2. ZINEMATOGRAFIKO, BIDEOGRAFIKO ETA MULTIMEDIAKO LANEN PRODUKZIOAN BALIABIDE TEKNIKOAK, MATERIALAK ETA LOGISTIKOAK JASOTZEKO, KONTROLATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA DISEINATZEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipamendu teknikoa kudeatzeko dokumentazioa osatzea.</li> <li>- Euskarri eta material suntsikorrak kudeatzeko dokumentazioa osatzea.</li> <li>- Zerbitzuen enpresekin erlazioak analizatzea eta zinemako, bideoko eta multimediako produkzioa babestea.</li> <li>- Filmatzean/grabazioan efektu bereziak kudeatzea eta aplikatzea.</li> <li>- Baliabide materialak, logistikoak eta zerbitzuak eskuratzeko kudeaketak.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipamendu teknikoa kudeatzeko dokumentazio espezifikoa.</li> <li>- Euskarri eta material suntsikorrak kudeatzeko dokumentazioa.</li> <li>- Laneko Plana baliabide eskuragarrietara egokitzeko teknikak.</li> <li>- Plan logistikoa kudeatzeko teknikak.</li> <li>- Ekipoak eta materialak filmaketa- edo grabazio-lekuetara eramateko kudeaketa-teknikak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-taldearekin erlazionatzeko prest egotea.</li> <li>- Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna baloratzea.</li> </ul>

**3. ZINEMATOGRAFIKO, BIDEOGRAFIKO ETA MULTIMEDIAKO LANEN PRODUKZIOAN ESTUDIOAK ETA KOKAGUNEAK KUDEATZEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Estudioen eskuragarritasuna eta egokitzapen teknikoa egiaztatzea.</li> <li>- Kokaguneak kudeatzea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kokagunea proiektuaren beharretara egokitzen dela eta eskuragarri dagoela kontrolatzea.</li> <li>• Kokaguneak erabiltzeko baimenak eta egiaztapenak eskuratzeko dokumentu bidezko prozesuak.</li> </ul> </li> <li>- Efektu berezien ekipoak kudeatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kokagune publikoak eta pribatuak.</li> <li>- Kokaguneak erabiltzeko baimenak eta akreditazioak.</li> <li>- Estudioak eta kokaguneak erabiltzeko kontratuak.</li> <li>- Efektu berezien ekipoak: hautatzeko irizpideak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamenduaren eragiketa-mailako zereginetan laguntzeko interesa izatea.</li> </ul>

4. ESTUDIOEN ETA KOKAGUNEEN, ETA BERTAKO DEKORATUEN KUDEAKETA SISTEMA EZARTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zinemako, bideoko edo multimedialako proiektuak kudeatzeko administrazio- eta kontabilitateko prozedurak erabiltzea.</li> <li>- Produktorako laguntza publikoak eskuratzeko dokumentazioa kudeatzea eta jarraipena egitea.</li> <li>- Egile-eskubideak kudeatzea.</li> <li>- Egile-eskubideen edo hirugarrenen jabetzaren mende dauden edukiak erabiltzeko baimenak kudeatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egile-eskubideak: Administrazio-prozedurak.</li> <li>- Produktorako laguntza publikoak.</li> <li>- Ikus-entzunezko produkzioan aplikatu daitezkeen aseguruak.</li> <li>- Produktioaren balantze ekonomikoa.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.</li> <li>- Zorroztasuna eta ordena kontzeptuen erabileran.</li> </ul>

5. BALIABIDE ESKURAGARRIEN KUDEAKETA SISTEMA EZARTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Postproduzioaren eta muntaiaren alde aurreko plangintza: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Muntatzeko formatuak egokitzea.</li> <li>• Irudia muntatzeko materiala hautatzea.</li> <li>• Soinua muntatzeko materiala hautatzea.</li> <li>• Zinten minutajea, denboren kodea adieraztea, irudiaren eta soinuaren edukia, plano-mota eta iraupena.</li> </ul> </li> <li>- Muntaiaren eta/edo postproduzioaren planifikatzeko muntatze-gidoia egitea, grabatutako irudi-hartualdien ebaluazioa eta gidoi teknikoak kontuan hartuz.</li> <li>- Soinu-tzatze eta Bikoizte Plan bat osatzea, grabatutako soinu-hartualdien ebaluazioa eta gidoi teknikoak kontuan hartuz.</li> <li>- Ikus-entzunezko erregistroa sailkatzea eta kontserbatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laneko plana lantzea eta kudeatzea.</li> <li>- 2D edo 3D animazio- eta multimedia-proiektu, multimedia-proiektu, proiektu interaktibo edo bideo-jokoko proiektu baten produkzio-prozesuak kontrolatzea.</li> <li>- Produktioaren segurtasun-plana kudeatzea.</li> <li>- Teknikariek eta artistek kontratuen klausulak gainbegiratzea, bai eta materialen, ekipoen eta zerbitzuen enpresa hornitzaileekin ere.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Entseguru-plana aplikatzeko eta jarraipena egiteko teknikak.</li> <li>- Produktioa egunero jarraitzeko teknikak.</li> <li>- Egoera gatazkatsuak negoziatzeko eta konpontzeko estrategiak.</li> <li>- Laneko plana kudeatzeko metodoak.</li> <li>- Produktioaren segurtasun-plana.</li> </ul>



## 6. ZINEMAKO, BIDEOKO EDO MULTIMEDIAKO PROIEKTU BATEN FILMAKETA/GRABAZIOA KUDEATZEKO ETA GAINBEGIRATZEKO PROZEDURA DISEINATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektua muntatzeko, postproduzitzeko eta soinuatzeko plana zehaztea eta gainbegiratzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko materialen fluxuen entrega, jasotzea eta zirkulazioa kudeatzea.</li> <li>- Kalitate teknikoa, narratiboa eta adierazkorra kontrolatzea.</li> <li>- Egiletza-prozesuak gauzatea eta balioztatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Multimedia-produktuen eta produktu elkarreragileen nabigazio-protokoloak betetzea eta informatzea.</li> <li>- Egiletza-prozesuak.</li> <li>- Ikus-entzunezko eta multimediatu produktuaren aurkezpen teknikoaren arau estandarizatuak.</li> <li>- Bezeroari produktua aurkezteko teknikak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena eta metodoa, kalitateari garrantzi berezia eskainiz.</li> <li>- Ikuste-lengoaia ezagutzeak duen garrantzia balioztatzea.</li> </ul>

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Modulu hau behar bezala aurkezteko, eta, ondoren, edukiak sekuentziatzeko, ikus-entzunezko proiektu bat balioztatzeke irizpideak, eta teknikarien eta artisten erantzukizun profesionalak azalduz has daiteke, giza baliabide teknikoak eta artistikoak aukeratzeko eta kontratatzeke plana osatu ahal izateko. Horrenbestez, **1. multzoari** dagokionean, kontuan hartuko dute zinemako, bideoke edo multimediatu proiektu baten giza baliabideak aukeratzeko eta kudeatzeko prozedurak ezarri ahal izateko.

Prozedurazko eremuari dagokionean, lan-kategorien arabera kontratuak idaztea komeniko litzateke, eta artistak aukeratzeko probak antolatu beharko lirateke; hau da, ikus-entzunezko proiektu bat kontuan hartuz, zinemako, bideoke edo multimediatu *castina* antolatzeko beharrezko baliabideak eta metodologia erabili beharko lirateke.

Ondoren, **2. multzoko** edukiak garatu beharko lirateke, hots, zinematografiako, bideografiako eta multimediatu lanen produkzioan baliabide teknikoak, materialak eta logistikoak jasotzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema diseinatzea. Horretarako, laneko plana egokitzeko teknikak, plan logistikoa kudeatzeko teknikak, eta filmatzeko edo grabatzeko lekuetara ekipoak eta materialak eramateko kudeaketa-teknikak aplikatuko dituzte. Multzo honetako dokumentazioa osatzeko, gaur egun lanean erabiltzen dituzten hainbat informatikako programa erabiltzeko gomendatzen dute.

Garatzen duten ikus-entzunezko proiektuaren produkzioan kokaguneak eta estudioak kudeatzen dituzte **3. multzoan**. Beraz, prozedurazkoa da, eta bertan kokaguneak edo estudioak teknikoki egokiak eta aproposak diren erabakitzeke gaitasuna izango dute

ikasleek. Ikus-entzunezko proiektuaren dekoratuen, kokaguneen eta estudioen kudeaketa-sistemaren prestakuntzari dagokionean, **4. multzoarekin** erlazionatua dago zuzenean. Beraz, ikasleak beharrezko kudeaketa-eragiketak egiteko gai izango dira.

Aurrerago, **5. multzoa** garatuko dute, kontzeptuak erabiltzean zorrotasunez eta ordena jarraituz, burutu beharrekoko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa ikasleei eskaintzeko. Halaber, zinematografiako, bideografiako eta multimediatik lanen produkzioan baliabide teknikoak, materialak eta logistikoak jasotzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema diseinatuko dute.

Azkenik, **6. multzoan** jasotzen den moduan, landutako eta bildutako dokumentazioa kontuan hartuz, proiektuaren muntatze-, postproduzio- eta soinuztatze-plana kudeatzeko eta gainbegiratzeko prozedurak burutuko dituzte landutako plan logistikoaren arabera.

Multzoen sekuentzia-ordena hau koherentea dela dirudi publizitate spot, erreportaje edo dokumentala bezalako ikus-entzunezko proiektu baten produkzio-kudeaketarako. Horri esker, ikasleek eduki-multzoetan adierazitako prozedurak denbora egokiagoarekin aplikatu ahal izango dituzte.

## 2) Alderdi metodologikoak

Zeregin didaktikotan ezarritako ikaskuntza-arloko emaitzak lortzeko helburuarekin, modulu hau **“Ikus-entzunezko proiektuen plangintza”** modulua jarduera praktikoen prestaketarekin eta garapenarekin koordinatuz lantzea gomendatzen dute, eta, zehazki, aipatutako moduluan landuko duten ikus-entzunezko proiektu baten diseinuan eta plangintzan oinarrituz lan egitea.

Proiektuak taldetan lantzea ezinbestekoa da taldean egindako lana balioztatzeko eta modulu honen prozedurazko izaera berresteko. Irakasleek ikus-entzunezko proiektua planifikatzen eta kudeatzen lagunduko dute, eta praktikan ikasle bakoitzak eskuratuko dituen ezagutzari, trebetasunei eta gaitasunei buruzko banakako jarraipena egingo dute. Era horretan, ikasleek aurrerapausoak eman dituztela, eta taldean jarduteko eta modulu honen helburuak lortzen lagunduko dieten lanak garatzeko gaitasuna lortu dutela ziur egongo dira.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ikus-entzunezko proiektu baten giza baliabideak aukeratzeko eta kudeatzeko prozedurak lantzea:
  - Proiektuaren produkzioarako behar diren giza baliabideak aukeratzeko eta kontratatzeko plan bat osatzea.
  - Proiektuaren xehatze- eta errealizazio-aukerak kontuan hartuz, beharrezko profilen arabera artistak aukeratzeko *casting*-probak egiteko prozesua planifikatzea.
  - Gauzatuko dituzten kontratuak osatzeko teknikarien eta artisten erantzukizun profesionalak definitzea.
- ✓ Produkzio-prozesuan esku hartzen duten baliabide teknikoaren, materialen eta logistikoaren jasotze-, kontrol- eta jarraipen-sistema planifikatzea:
  - Filmaketa- edo grabazio-lekuak kontuan hartuz, produkzio-prozesuko faseetan ekipo, euskarri eta material suntsikorrak edo beharrezkoak ez direnak jasotzeko, kontrolatzeko eta euren jarraipena egiteko sistema prozesatzea.
  - Proiektuaren faseetan esku hartzeko beharren arabera, zerbitzuetako kanpoko enpresa-mota diferenteekin erlazioak zehaztea.

- Laneko plana behin betiko baliabideen eskuragarritasun- eta eraginkortasun-baldintzetara egokitzea.
  - Baliabide materialen, teknikoan eta logistikoan kontratuak idaztea, aurrekontua optimizatuz eta ordaintzeko baldintza egokienak balioztatuz.
- ✓ Estudioak, kokaguneak eta dekoratuak kudeatzeko sistema planifikatzea, ezarritako irizpide estetikoak eta ekonomikoak jarraituz:
- Grabazio-estudioak, kokaguneak eta dekoratuak teknikoki egokiak direla, espazioa proiektuaren premietara egokitzen direla eta zehaztutako epeetan prest egongo direla egiaztatzea. Eta filmaketan/grabazioan zehar estudioan edo grabatuko duten lekuan bertan zein efektu berezi egin behar dituzten zehaztea.
  - Kokaguneak erabiltzeko behar diren baimenak eskuratzeko beharrezko dokumentuak egitea, eta estudio eta kokagune horiek erabiltzeko kontratuen klausulak idaztea.
  - Premia eszenografikoan arabera, girotzeko elementuak eta dekoratuak eraikitzeko eta egokitze denbora eta kalitateen kontrola aplikatzea.
- ✓ Baliabide ekonomiko eskuragarriak kudeatzeko sistema bat diseinatzea:
- Besteak beste erantzukizun zibilarrekin, negatiboarekin, materiala galtzarekin eta helburu egokiekin lotutako zinemako, bideo edo multimediako proiektuen produkzioari aplikatu daitezkeen aseguruaren klausulak idaztea.
  - Proiektuaren administrazioan eta kudeaketan aplikatu daitezkeen administrazio eta kontabilitateko prozedurak zehaztea.
  - Prozesuko fase bakoitzean gastuaren jarraipen-plana diseinatzea, dagozkion gastuen partidak identifikatuz. Proiektuaren kudeaketa ekonomikorako ordainketen egutegia ezartzea, une bakoitzean beharrezkoak diren kantitate ekonomikoak mugatuz.
  - Proiektuaren produkzioarako laguntza publikoak eskuratzeko behar dituzten dokumentuak kudeatzea.
  - Egile-eskubideen edo hirugarrenen jabetzaren mende dauden edukiak erabiltzeko baimenak eskuratzeko dokumentazioa kudeatzea.
  - Produkzioaren administrazio-dokumentazioaren jarraipena bermatzeko sistema sortzea, bere artxiboa eta kokagunea bermatuz.
  - Aurreikuspenekin errealizazioak alderatzeko balantze ekonomiko osatzea.
- ✓ Proiektuaren filmaketa/grabazioa kudeatzeko eta gainbegiratzeko prozedura osatzea:
- Artistentzako eta teknikarientzako zitazioen eta deialdien plana egitea, garaiz banatuko dutela bermatuz.
  - Entseguen planaren jarraipena aplikatzea, prozesu teknikoaren doitzeta eta jantzitegiko, makillajeko, karakterizazio eta ile-apaintetako probak egitea.
  - Multimediako proiektu baten, 2D edo 3D animazio proiektu baten, proiektu elkarreragile baten edo bideo-joko baten produkzio-prozesuaren kontrola diseinatzea, tarteko fase guztien jarraipena eta kontrola bermatuz, muntatzeko, postproduzitzeko eta soinuztatze materialak eduki arte.
  - Produkzioaren segurtasun-plana gauzatzea, zerbitzuak segurtasun-endarrei eskatu ondoren edo enpresa espezializatuen zerbitzuak kontratatu ondoren.
  - Teknikariek eta artistekin, eta materialen, ekipoen eta zerbitzu enpresa hornitzaileekin kontratuetan bildutako klausulak betetzen dituztela ziurtatzeko beharrezko prozedura diseinatzea.
  - Programa produzitzeko plana betetzeko kontrol-sistema aplikatzea, prozesuan zehar sortutako ikus-entzunezko materialak gordetzeaz eta kontrolatzeaz arduratuz.
  - Eguneroko laneko parte egitea, biharamunerako laneko ordena osatzea, errealizazio edo zuzendaritzako ekipoarekin partekatutako erantzukizuna kontuan hartuz, eta halabeharrak konpontzeko beste soluzioak iradokiz.

- Programaren produkzio-prozesuan zehar sortutako pertsonen arteko halabehar eta problema posibleak konpontzeko teknikak eta negoziazio-estrategiak aplikatzea.
- ✓ Ikus-entzunezko proiektu baten muntatze- eta postprodukzio-prozesuak kudeatzeko prozedura osatzea, esku hartzen duten jarduerak eta aldagaiak erlazionatuz:
  - Proiektuaren muntaketako, postprodukzioko eta soinua jartzeko planaren aplikazioa kudeatzeko eta gainbegiratzeko prozedura ezartzea.
  - Ikus-entzunezko materialak entregatzeko eta jasotzeko sistema definitzea; halaber, proiektuaren muntaiari, postprodukzioan eta soinuztatzean esku hartzen duten sailen artean material horiek denboran zehar banatzea ere definitzea.
  - Barne-balorazioa, eta tarteko eta amaierako produktuen entrega kontuan hartuz, amaierako produktuaren kalitate-baldintzak kontrolatzeko sistema ezartzea, kanpoko aktoreek baliozkotzeko, eta amaierako produktuan aldaketak egin ahal izateko denbora kontuan hartuz.
  - Multimediako eta ikus-entzunezko produktuak entregatzeko arau estandarizatuen arabera amaierako produktuaren ezaugarri teknikoak zehaztea. PPD (hedatzeko edo emititzeko prestatua) arauak betetzea.
  - Zinemako, bideo edo multimediako produktua sustatzeko egokia izango den aurrerakin bat edo ikus-entzunezko beste edozein elementu eskuratzeko prozesua diseinatzea eta gainbegiratzeko.

### 3. lanbide-modulua **3** TELEBISTA ETA IRRATI PROIEKTUEN KUDEAKETA

#### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa</b>
Kodea:	0917
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	140 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0208_3: Telebistako produkzioko baliabideak kudeatzea. UC0209_3: Telebistako produktuaren lan-prozesuak kontrolatzea eta egiaztatzea.
Helburu orokorrak:	5.a / 6.a / 7.a / 8.a / 13.a / 14.a / 16.a / 17.a / 18.a / 19.a / 20.a / 22.a / 23.a

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Zuzeneko edo grabatutako telebistako albistegi-programako proiektu baten produkzioa kudeatzeko prozedura diseinatzen du, eta, horretarako, produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera optimizatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Albistegi batean parte hartzen duten arloen artean (tokiko albisteak, nazio-mailakoak, kultura, kirola edo beste batzuk) eguneko informazio-aurreikuspenak zehazteko prozedura ezarri du, albistegiaren eskaletan duten lekuaren eta garrantziaren arabera landu behar dituzten albisteak eta eman behar zaien estaldura proposatuz.
- Kazetaritzako arlo desberdinekin bat etorritik, erreportari-taldeen erantzukizunak definitu ditu.
- Albiste-programaren ezaugarri espezifikoaren arabera, prozesuaren fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzeko behar diren teknikariak edukitzeko sistema ezarri du (ENGko langileak, unitate mugikorretakoak, estudiokoak, grafismokoak eta postprodukziokoak, besteak beste).
- Programan parte hartzen duten gonbidatuen, adituen, espezialisten eta hitz egiten dutenen esku hartzeko baldintzak zehaztu ditu.

- e) Albiste bakoitzerako aurreikusitako estaldura-motaren arabera, prozesuko fase bakoitzean beharrezko zerbitzuak, logistika, kokaguneak, dekoratu errealak eta birtualak, instalazioak, konexioen eta komunikazioen sistemak, materialak eta ekipoen baldintzak kontrolatzeko eta jasotzeko prozedura diseinatu du.
- f) Hirugarrenen jabetzaren edo egile-eskubideen mendeko edukiak erabiltzeko baimenak kudeatzeko prozedura zehaztu du, dagokion ordain ekonomikoa balioztatuz.
- g) Albiste-programaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatze sistema finkatu du.

2. Telebista-emanaldiko proiektu baten produkzioa kudeatzeko prozedura diseinatzen du, eta, horretarako, produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera optimizatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Telebistan emango duten ekitaldiaren programaren edo protokoloaren analisia oinarrituz, produkzioarako datu egokiak eskuratzeko sistema ezarri du, ekitaldiak telebista-kate horren programazio orokorrean duen garrantzia, irismena eta tipologia (kirola, garrantzi informatiboa, ekitaldi berezia edo beste bat) kontuan hartuz.
- b) Programaren ezaugarriekin bat etorriz, telebistako emanaldi-prozesuaren fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzeko behar dituzten teknikariak (muntatzaileak, kamerako, unitate mugikorretako, errealizazio eta komunikazioetako operadoreak, besteak beste) aukeratzeko sistema ezarri du, behar diren deialdiak eta zitazioak eginez.
- c) Emanaldian beharrezkoak diren konexioen antolaketa teknikorako eta administratiborako, eta kanpoko emanaldi-sareak erabiltzeko premia duten prozedurak definitu ditu.
- d) Prozesuaren fase bakoitzean behar diren zerbitzuen, nazio-mailako eta nazioarteko logistikako, kokaguneetako, instalazioetako, komunikazioen eta konexioen sistemetak, materialetako eta ekipotako baldintzak kontrolatzeko eta jasotzeko prozedura diseinatu du. Horretarako kontuan hartu ditu ezaugarri tipologikoak, irismena eta konplexutasuna, bai eta zein herrialdetan eskainiko duten emanaldia ere.
- e) Laneko arriskuen eta produkzioaren segurtasunaren prebentzioari buruzko arauak kontrolatzeko sistema planifikatu du, indar publikoen laguntzaz edo segurtasun pribatuko zerbitzuak kontratatuz.
- f) Eman beharreko programaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatze sistema finkatu du.

3. Estudioan entretenimendu-programako (musikakoa, askotariko ikuskizunak, lehiaketa, magazinea edo beste bat) proiektu baten produkzioa kudeatzeko prozedura diseinatzen du, eta, horretarako, produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera optimizatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produzituak duten entretenimendu-programaren ezaugarriak analizatuz, produkzioarako beharrezkoak diren datuak eskuratzeko sistema finkatu du, programaren tipologia (musikakoa, askotariko ikuskizunak, lehiaketa, magazinea edo beste bat), irismena eta katearen programazio orokorrean duen garrantzia kontuan hartuz.
- b) Entrenimendu-programaren ezaugarri espezifikoaren arabera, prozesuaren fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzeko behar diren teknikariak edukitzeko sistema ezarri du (errealizazio-, produkzio-, dokumentazio-ekipoa eta kamerak, besteak beste).

- c) Programan parte hartzen duten aurkezleen, artisten, gonbidatuen, adituen, espezialisten eta hitz egiten dutenen esku hartzeko baldintzak zehaztu ditu.
- d) Artistak eta/edo laguntzaileak aukeratzeko sistema zehaztu du, beharrezko probak finkatuz eta antolatuz, eta, kopuruari eta motari dagokienean, grabaziora bertaratutako ikusleen ezaugarriak finkatuz.
- e) Entretenimenduko programa-motaren arabera, prozesuko fase bakoitzean beharrezko zerbitzuak, ikusleen eta gonbidatuen logistika, instalazioak, konexioen eta komunikazioen sistemak, materialak eta ekipoen baldintzak kontrolatzeko eta jasotzeko prozedura diseinatu du.
- f) Programaren produkzioan ematen diren prozesuak kontrolatzeko prozedura diseinatu du: jendeari zuzendutako deialdiak, dekoratuak muntatzea eta desmuntatzea, instalazio teknikoak, dekoratu birtualak, entseguen eta erregistroen errealizazioa, postprodukzio-prozesuak, masterraren akabera eta artxibatzea, eta amaierako produktuaren kalitatea balioztatzea, besteak beste.
- g) Hirugarrenen jabetzaren edo egile-eskubideen mendeko edukiak erabiltzeko baimenak kudeatzeko prozedura zehaztu du, dagokion ordain ekonomikoa balioztatuz.
- h) Entretenimendu-programaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatzeko sistema finkatu du.

4. Telebistako programa dramatikoaren proiektu baten produkzioa kudeatzeko prozedura diseinatu du, eta, horretarako, produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera optimizatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ezaugarrien analitika abiatuz, eta katearen programazio orokorrean duen garrantziaren, irismenaren eta tipologiaren arabera (teleantzerkia, telekomedia, telesail dramatikoa, egoera-komedia edo beste bat) egingo duten programa dramatikoa produzitzeko behar diren datuak eskuratzeko sistema finkatu du.
- b)
- c) Programa dramatikoaren ezaugarri espezifikoaren arabera, prozesuaren fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzeko behar diren teknikariak edukitzeko sistema ezarri du (errealizazio- eta produkzio-ekipoa, kamera-operadoreak, dekorazioa, makillajea eta ile-apainketa, eta eszenografia erreala eta birtuala, besteak beste).
- d) Artistak aukeratzeko sistema espezifikatu du, behar diren probak antolatuz, eta artistak kontratatuz eta programara egokitzeko kudeaketak planifikatuz (gidoiak entregatzea, jantzitegirako neurriak eta kontratu-klausulak idaztea, besteak beste).
- e) Programa dramatiko-motaren arabera, prozesuko fase bakoitzean beharrezko zerbitzuak, artisten eta teknikarien logistika, instalazioak, konexioen eta komunikazioen sistemak, materialak eta ekipoen baldintzak kontrolatzeko eta jasotzeko prozedura diseinatu du.
- f) Programa dramatikoaren produkzioan ematen diren prozesuak kontrolatzeko prozedura diseinatu du: jendeari zuzendutako deialdiak, dekoratuak muntatzea eta desmuntatzea, instalazio teknikoak, dekoratu birtualak, entseguen eta erregistroen errealizazioa, laneko plana aplikatzea, masterra postproduzitzeko, akabatzea eta artxibatzea, eta amaierako produktuaren kalitatea balioztatzea, besteak beste.
- g) Hirugarrenen jabetzaren edo egile-eskubideen mendeko edukiak erabiltzeko baimenak kudeatzeko prozedura zehaztu du, dagokion ordain ekonomikoa balioztatuz.
- h) Programa dramatikoaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatzeko sistema finkatu du.

5. Irrati-programako proiektu baten produkzioa kudeatzeko prozedura diseinatzen du, eta, horretarako, produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera optimizatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dokumentazio teknikoaren, eskaletaren, gidoi dramatikoaren, entretenimendu-programaren edukiaren, egingo duten emanaldiaren eta premia informatiboan analisia oinarrituz, eta katearen programazio orokorrean izango duen garrantziaren, irismenaren eta tipologiaren arabera, irrati-programa produzitzeko datu egokiak eskuratzeko sistema ezarri du.
- b) Programaren ezaugarriekin bat etorritik (soinu-teknikariak, mikrofono-arduradunak, unitate mugikorretako, errealizazioko eta komunikazioetako operadoreak, besteak beste), irrati-programaren errealizazio-prozesuaren fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzeko behar dituzten teknikariak aukeratzeko sistema ezarri du, behar diren deialdiak eginez.
- c) Estudioan bertan edo komunikazio-kanal desberdinen bitartez, irrati-programan parte hartzen duten gidarien, aurkezleen, esatarien, berriemaileen, artisten, gonbidatuen, adituen, espezialisten eta parte-hartzaileen esku-hartze baldintzak ezarri ditu.
- d) Ekipoen, komunikazioen eta konexioen sistemen, instalazioen, nazio-mailako eta nazioarteko logistikaren baldintzak, eta irrati-prozesuaren fase bakoitzean behar diren zerbitzuak kontrolatzeko eta jasotzeko prozedura diseinatu ditu, programaren ezaugarriak, garrantzia eta konplexutasuna, eta programa egiten duten lekua kontuan hartuz.
- e) Irrati-programaren produkzioan ematen diren prozesuak kontrolatzeko prozedura diseinatu du: jendeari zuzendutako deialdiak, emanaldietako ekipo teknikoak muntatzea eta desmuntatzea, instalazio teknikoak, entseguen eta erregistroen errealizazioa, laneko plana aplikatzea, masterra muntatzeko, akabatze eta artxibatze prozesuak, eta amaierako produktuaren kalitatea balioztatzea, besteak beste.
- f) Hirugarrenen jabetzaren edo egile-eskubideen mendeko edukiak –batez ere musikari lotuak– erabiltzeko baimenak kudeatzeko prozedura zehaztu du, dagokion ordain ekonomikoa balioztatuz.
- g) Egingo duten irrati-programaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatze sistema finkatu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. TELEBISTAKO ALBISTE PROGRAMEN PRODUKZIOAREN KUDEAKETA PROZEDURA DISEINATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Albistegiak eman aurreko prozesuak analizatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Albistegi baten ereduak errealizazioa.</li> <li>• Konexioak. Estekak. Egile-eskubideak.</li> </ul> </li> <li>- Eguneko albisteen aurreikuspenak zehaztea, eman behar dituzten albistek eta estaldura-mota proposatuz.</li> <li>- Programan parte hartzen duten gonbidatuen, adituen, espezialisten eta hitz egiten dutenen esku hartzeko baldintzak zehaztea.</li> <li>- Albiste-programetan kudeaketa ekonomikoa eta produkzioko eta erantsitako dokumentazioa osatzea.</li> <li>- Prozesuko fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzerako behar diren teknikariak aukeratzeko.</li> <li>- Baimenak kudeatzea, dagokion ordain ekonomikoa balioztatuz.</li> </ul>



	- Albiste-programaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzea eta artxibatzea.
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza taldeak albistegien produkzioan:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalen tipologia: aurkezleak, esatariak, gonbidatuak, adituak, espezialistak, solaskideak eta beste batzuk.</li> <li>• Erreportari-taldeen erantzukizunak.</li> </ul> </li> <li>- Ekipamendu teknikoa, materialak, instalazioak eta zerbitzuak albiste-programetan:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekipamendu teknikoko estandarrak albiste-programetan.</li> <li>• Instalakuntza finko eta mugikorren tipologia, eta tresneria albiste-programetan.</li> </ul> </li> <li>- Logistika albistegitan:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kokaguneak albistegitan, akreditazioak eta baimenak.</li> <li>• Atzerriko herrialdeetara joateko kudeaketa: bisak, segurtasuna eta ekipoen garraioa.</li> </ul> </li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dekoratuak, instalazioak, konexioak, materialak, ekipoa eta abar kontrolatzeko eta jasotzeko prozeduran zorrotasuna.</li> <li>- Informazioa biltzeko, analizatzeko eta bilatzeko ekimena.</li> </ul>

## 2. TELEBISTA EMANALDIEN PRODUKZIOA KUDEATZEKO PROZEDURA DISEINATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emanaldiaren aurreko prozesuak zehaztea:</li> <li>- Hainbat ekitaldi-mota errealizatzea: kirol-ekitaldiak, ekitaldi sozialak, musikari lotuak eta beste batzuk.</li> <li>- Konexioak eta loturak egiaztatzea.</li> <li>- Produkziarako behar diren datuak eskuratzea, tipologiaren arabera emango duten ekitaldiaren protokoloaren edo programaren analisisan oinarrituz.</li> <li>- Telebista-emanaldiko prozesuko fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzerako behar diren teknikariak aukeratzea.</li> <li>- Emanaldian beharrezkoak diren konexioen antolaketa teknikorako eta administratiborako behar dituzten prozedurak erabiltzea.</li> <li>- Ekipoa, materialak, komunikazioen sistemak eta konexioak jasotzeko eta kontrolatzeko diseinua gauzatzea.</li> <li>- Baimenak eskuratzea, dagokion ordain ekonomikoa balioztatuz.</li> <li>- Eman beharreko programaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatzeko sistema finkatzea.</li> <li>- Emanaldietan kudeaketa ekonomikoa gauzatzea eta produkzioko dokumentazioa eta dokumentazio erantsia osatzea.</li> <li>- Produkzioaren segurtasuneko eta laneko arriskuen prebentzioko arauen kontrol-sistema planifikatzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Telebista-emanaldietako giza taldeak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalak emanaldiaren tipologiaren (kirolak, sozialak, musikakoak eta beste batzuk) arabera.</li> </ul> </li> <li>- Ekipamendu teknikoa, materialak, instalazioak eta zerbitzuak emanaldietan:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emanaldietan ekipamendu teknikoko estandarrak.</li> <li>• Instalazio finkoen eta mugikorren tipologia, eta tresneria, emanaldietan.</li> </ul> </li> <li>- Logistika emanaldietan.</li> <li>- Lan egitera joaten diren herrialdeen segurtasuneko eta laneko arriskuak prebenitzeko arauak.</li> </ul>

	- Egile-eskubideak.
<b>jarrerazkoak</b>	- Produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen optimizazioaren garrantziari buruz jabetzea. - Sor daitezkeen egoeretara egokitzea.

### 3. ESTUDIOAN ENTRETENIMENDUKO PROGRAMEN PRODUKZIOAREN KUDEAKETA PROZEDURA DISEINATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produktorako behar diren datuak eskuratzeko sistema aukeratzea eta erabiltzea.</li> <li>- Prozesuko fase bakoitzean lan-kategoria bakoitzerako behar diren teknikariak aukeratzea.</li> <li>- Programan parte hartzen duten aurkezleen, artisten, gonbidatuen, adituen, espezialisten eta hitz egiten dutenen esku hartzeko baldintzak egiaztatzea.</li> <li>- Ekipoen, materialen, komunikazio-sistemen eta konexioen baldintzak jasotzeko eta kontrolatzeko prozedura aplikatzea.</li> <li>- Programaren produkzioan ematen diren prozesuak kontrolatzeko prozedura zehaztea.</li> <li>- Egile-eskubideen edo hirugarrenen jabetzaren mende dauden edukiak erabiltzeko baimenak eskuratzeko.</li> <li>- Entretenimendu-programaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzea eta artxibatzea.</li> <li>- Programa dramatiko diferenteen ereduzko errealizazioa:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Teleantzerkia, telekomedia, telesail dramatikoa, komedia.</li> </ul> </li> <li>- Kudeaketa ekonomikoa, eta produkzioko dokumentazioa eta dokumentazio erantsia, emanaldietan.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Entretenimendu-programen produkzioko giza taldeak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalak, programaren tipologiaren arabera: musikakoa, askotariko ikuskizunak, lehiaketa, magazinea edo beste bat.</li> </ul> </li> <li>- Ekipamendu teknikoa, materialak, instalazioak eta zerbitzuak entretenimendu-programetan:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekipamendu teknikoko estandarrak entretenimendu-programetan.</li> <li>• Instalakuntza finko eta mugikorren tipologia, eta tresneria entretenimendu-programetan.</li> </ul> </li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	- Produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen optimizazioaren garrantziari buruz jabetzea. - Sor daitezkeen egoeretara egokitzea.

### 4. TELEBISTAKO PROGRAMA DRAMATIKOEN PRODUKZIOAREN KUDEAKETA PROZEDURA DISEINATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programa dramatikoak eman aurreko prozesuen errealizazioa.</li> <li>- Programa dramatiko diferenteen ereduzko errealizazioa: teleantzerkia, telekomedia, telesail dramatikoa, egoera-komedia edo beste bat.</li> <li>- Programa dramatikoetan kudeaketa ekonomikoa eta produkzio-dokumentazioa eta eranskina gauzatzea.</li> <li>- Katearen programazio orokorrean duen garrantziaren, irismenaren eta tipologiaren arabera programa produzitzeko behar diren datuak eskuratzeko.</li> </ul>
-----------------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Artistak aukeratzea, behar diren probak antolatuz eta haiek kontratatzeko eta programara egokitzeko kudeaketak planifikatuz.</li> <li>- Ekipoen, materialen, komunikazio-sistemen eta konexioen baldintzak jasotzea eta kontrola egiaztatzea.</li> <li>- Egile-eskubideen edo hirugarrenen jabetzaren mende dauden edukia erabiltzeko baimenak eskuratzea.</li> <li>- Programa dramatikoaren produkzio-prozesuan sortutako administrazioko dokumentazioa osatzea eta artxibatzea.</li> <li>- Programa dramatikoetan kudeaketa ekonomikoa eta produkzio-dokumentazioa eta eranskina.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Telebistan programa dramatikoak produzitzeko giza taldeak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalak, programaren tipologiaren arabera: teleantzerkia, telekomedia, telesail dramatikoak, egoera-komedia edo beste bat.</li> <li>• Aktoreak aukeratzeko prozesuak, <i>casting</i>, agentziak eta ordezkarriak.</li> </ul> </li> <li>- Ekipamendu teknikoak, materialak, instalazioak eta zerbitzuak programa dramatikoetan: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekipamendu teknikoko estandarrak programa dramatikoetan.</li> <li>• Instalakuntza finko eta mugikorren tipologia, eta tresneria programa dramatikoetan.</li> </ul> </li> <li>- Egile-eskubideak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde-lana koordinatzea.</li> <li>- Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.</li> </ul>

## 5. IRRATI PROGRAMEN PRODUKZIOAREN KUDEAKETA PROZEDURA DISEINATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irrati-programa produzitzeko datu egokiak eskuratzea.</li> <li>- Irrati-programaren errealizazio-prozesuaren fase bakoitzeko lan-kategoria bakoitzean behar diren teknikariak aukeratzea.</li> <li>- Gidarien, aurkezleen, esatarien, berriemaileen eta abarren esku-hartze baldintzak zehaztea.</li> <li>- Ekipoen, komunikazio-sistemen eta konexioen baldintzak jasotzea eta kontrolatzea.</li> <li>- Langileen deialdiak egiaztatzea.</li> <li>- Ekipo teknikoen muntaketa eta desmuntaketa egiaztatzea.</li> <li>- Laneko plana, masterra muntatzeko, akabatzeke eta artxibatzeke prozesuak aplikatzea.</li> <li>- Azken produktuaren kalitatea baloratzea.</li> <li>- Egile-eskubideen edo hirugarrenen jabetzaren mende dauden edukia erabiltzeko baimenak eskuratzea.</li> <li>- Sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatzeke sistema aukeratzea eta erabiltzea.</li> <li>- Irrati-programak emititu aurreko prozesuaren errealizazioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irrati-programen ereduak errealizazioa: albistegiak, kirolletakoak, emanaldiak, magazinea, dramatikoak eta beste batzuk.</li> <li>• Konexioak. Estekak. Egile-eskubideak.</li> </ul> </li> <li>- Kudeaketa ekonomikoa, eta produkzioko dokumentazioa eta dokumentazio erantsia.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irrati-programen produkzioko giza taldeak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesionalak, programaren tipologiaren arabera: albistegiak, kirolletakoak, emanaldiak, magazinea, dramatikoak eta beste</li> </ul> </li> </ul>

	<p>batzuk.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipamendu teknikoa, materialak, instalazioak eta zerbitzuak irrati-programetan: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekipamendu teknikoko estandarrak irrati-programetan.</li> <li>• Instalakuntza finko eta mugikorren tipologia, eta tresneria irrati-programetan.</li> </ul> </li> <li>- Logistika irrati-programen errealizazioan.</li> <li>- Kokaguneak eta eszenatokiak irrati-programetan: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Akreditazioak eta baimenak.</li> </ul> </li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Finkatutako epeak betetzeko zorroztasuna.</li> <li>- Koordinazioa ekipoko kideen artean.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu honen bitartez telebistako eta irrati-proiektuen kudeaketari dagozkion funtzioak garatzen dituzte, albiste-programen, telebista-emanaldien, estudioan egindako entretenimendu-programen, programa dramatikoaren eta irrati-programen produkzioaren kudeaketan sakonduz, eta tituluaren lanbide-profila osatzen duten hainbat funtziori erantzunez.

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziak

Modulu honen sekuentziak has daiteke telebistako albistegiaren produkzio-prozesuan esku hartzen duten giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta logistikoak kudeatuz, aukeratuz eta kontratatuz. Horregatik, moduluaren aurkezpenan **1. multzoko** edukia hartuko dituzte kontuan: ekipamendu teknikoa, instalazioen tipologia eta bete beharreko albiste-motaren ondoriozko premiak, logistika eta joan-etorriak, akreditazioak eta beharrezko dokumentazioa.

Produkzio-plana kudeatzeko teknikak eta albistegiaren prozesuaren ezaugarriak ezagutu ondoren, hainbat ekitaldiaren estaldura eta telebista-emanaldiei buruzko **2. multzoko** edukia garatzea egokia dirudi. Horren haritik, egokiak diren datuak eskuratzeko sistema ezarriko dute, emango duten ekitaldiaren programaren edo protokoloaren analisisian oinarrituz, behar dituzten teknikariak, ekipoak eta baimenak aukeratuz, eta sortutako administrazioko dokumentazioa lantzeko eta artxibatze sistemak ezarri. Horretarako, proiektuaren bideragarritasunari begira, giza baliabideen eta baliabide materialen optimizazioak duen garrantzia azpimarratu beharko litzateke.

Proiektuaren kudeaketaren ezagutzarekin jarraituz, sekuentziak kontuan hartuko dituzte **3. multzoko** estudioaren entretenimendu-programei buruzko alderdiak. Bertan ezagutuko dituzte mota honetako programen produkzioaren parte hartzen duten giza taldeak eta talde teknikoak; gainera, beste hainbaten artean egile-eskubideei edo baimenei buruzko programa dramatikoaren emanaldiaren aurretik burutzen dituzten prozesuak ezagutuko dituzte, programa musikala, askotariko ikuskizuna, lehiaketa, magazinea edo beste mota batekoa den kontuan hartuz. Produkzio-prozesu osoa kontrolatzeko helburua dute, proiektuaren ikuspegi globala eskainiz, eta prozesuaren sortutako administrazioko dokumentazioa osatzeko eta artxibatze sistemak ezarri. Ildo horretatik, interesgarria litzateke alderdi praktikoa garatzea entretenimendu-programa bati aplikatutako kontabilitatea osatuz, errentagarritasun ekonomikoa balioztatuz eta kudeaketako informatika-aplikazioen erabilera martxan jarri.

Jarraian, aurreko multzoko prozedura bera jarraituz, lehendabizi, programa dramatiko diferentetan (teleantzerkia, saio dramatikoko telekomedia, egoera-komedia edo beste bat) eratzen dituzten dokumentazio eta kudeaketa ekonomikoko taldeekin eta giza taldeekin erlazionatuta, **4. multzoko** edukiak azalduko dituzte. Era horretan prozedurazko zatia garatu ahal izango dute, antolakuntzako aurretiazko faserako edozein motatako dokumentazio osatuz, proiektuaren ezaugarrien arabera ekipoa sortuz, errealizazioan zehar (deiak, langileen deialdiak, dekoratua muntatzea eta desmuntatzea, laneko plana aplikatzea, postprodukzioko prozesuak) produkzio-ekipoa gainbegiratzuz eta funtzioak adieraziz, eta sortutako administrazio-dokumentazioa eta masterra amaieran artxibatuz. Puntu honetan, aktoreen *casting* bat antolatzea, makillajeko eta jantzitegiko probak egitea, edo kontratuko klausulak idaztea bezalako jarduerak egin ahal izango lirarteke, eta talde-lanaren koordinazioa eta burutu beharreko zereginen plangintzan eraginkortasuna bezalako jarrerak praktikan jartzea bezalako jarduerak burutu ahal izango lituzkete.

Sekuentziazioaren amaieran, irratiko produkzioarekin erlazionatutako alderdiak garatuko dituzte, **5. multzoan** adierazten den moduan. Horretarako, instalazioen tipologia eta ekipamendu teknikoko estandarrak ezagutuko dituzte lehendabizi, irratirako produkzio-prozesu osoa garatu ahal izateko. Eskaletan eta dokumentazio teknikoan oinarrituz, beharren analisia egin daiteke, emitituko duten tokiaren eta programaren ezaugarrien arabera behar diren teknikariak lor daitezke, laneko plan bat egin daiteke, eta egile-eskubideen mendeko musikak erabiltzeko baimenak kudeatu ahal izango dituzte, azkenean, sortutako administrazio materiala biltzeko eta artxibatzeko, eta amaierako produktuaren kalitatearen balioztapena egiteko.

Moduluak prozedurazko balioa duenez, kasu errealekin praktikak eta frogak egitea gomendatzen dute. Prozedura osatzeko, aurreikuspenen eta lortutako emaitzen, eta deskribapen-memoria batean azalduko ondorioen arteko alderatze-balantzea sortuko dute.

Multzoen sekuentzia-ordena honek koherentea dirudi telebista- eta irradi-proiektuen kudeaketa egokia ezagutzeko. Horrela, ikasleek edukiak ezagutuko dituzte eta, ondoren, multzoetan bildutako prozedurak aplikatuko dituzte.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan telebistako eta irratiko proiektuen produkzioaren kudeaketa-teknikak garatzen dituzte. Beraz, irakasleak ikaskuntza teorikoak azalduko ditu teknika horiek identifikatzeko, hala nola, mota honetako prozedura batean sortzen diren eta erabiltzen dituzten dokumentazio-motak. Horretarako, oinarri gisa, produkzioaren prozesu bakoitzean parte hartzen duten material teknikoak eta pertsonak ezagutu behar dira, bai eta lan-sistema edo -fluxu eraginkorra ere. Kontzeptuak identifikatu ondoren, ikasleek prozedura bidez garatuko dituzte, lehen aipatutako dokumentuak kudeatzeko eta osatzeko. Horretarako, Excel bezalako kalkulurako tresnak eta programak erabiltzea komeni da.

Irakasleek banakako jarraipena egingo dute ikasleak eskuratutako trebetasuna ikusteko, aurrera egiten ari dela egiaztatzeko eta, poliki-poliki, telebistako eta irratiko proiektu osoa kudeatzeko behar den gaitasuna eskuratzen duela ikusteko.

Proiektu bat ondo kudeatzeko ezinbestekoa da talde-lana. Horregatik, teknikarien, artisten eta gonbidatuen kudeaketa-sistemaren diseinuan ikasleek buruzagitzako, motibazioko eta negoziazioko teknikak aplikatuz jardungo dute, eta jardueren planen jarraipen-teknikak landuko dituzte. Teknika horiek lan-taldean antolatzeko eta koordinatzeko prozedurak garatzen lagunduko dute; horrela, edozein antolakuntza-mota

planifikatzeaz gain, ikasleek euren sustapenera zuzendutako jarduerak osatzen lan egingo dute.

Talde-lana sustatzeko, aurreko multzoetan aipatutako telebistako eta irrati-ko produkzioaren kudeaketa-mota diferenteko lanak egiten animatuko dituzte ikasleak, burutu beharreko proiektuaren tipologiaren arabera dauden premiak ezagutuz, era horretan behar duten balio-aniztasuna eskura dezaten. Gidoi eta eskaleta profesionalekin zein ikasleek sortutakoekin lan egingo dute. Halaber, telebista-etxeren bat bisitatzeko aukera dago, albistegietan nola lan egiten duten ikusteko.

Modulu honen heziketan komeni da azaldutako jarduerak "IKUS ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN ERREALIZAZIOA" zikloko "Telebistako errealizazioa" moduluarekin koordinatuta garatzea.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Telebistako programa informatiboen produkzioa planifikatzea:
  - Eskaletaren errekerimenduen eta tipologiaren arabera beharrak zehaztea.
  - Beharrezko teknikariak eta materiala aukeratzea.
  - Materialak, ekipoak, instalazioak eta abar jasotzeko eta kontrolatzeko prozedura kudeatzea.
  - Kudeaketa ekonomikoa eta dokumentazioa osatzea (konexioak, parte-hartzaileen esku-hartze baldintzak, joan-etorriak, eskubideak...) eta ondoren artxibatze sistema ezartzea.
  - Laneko planaren denborak zehaztea.
  - Programatutako jarduerak betetzen direla egiaztatzea.
- ✓ Telebista-emanaldien produkzioa kudeatzea:
  - Zereginaren errekerimendu espezifikoaren eta tipologiaren arabeko premiak zehaztea, emango duten ekitaldiaren protokoloaren edo programaren analitika abiatuz.
  - Kanpoko emanaldietako sareak erabiltzeko behar dituzten konexioak kudeatzea.
  - Kudeaketa ekonomikoa eta dokumentazioa osatzea (segurtasuneko eta laneko arriskuen prebentziorako arauak, baimenak...) eta lana aurrerago artxibatze sistema ezartzea.
- ✓ Estudioan entretenimenduko programen produkzioaren kudeaketa prozedura diseinatzea (musikala, askotariko ikuskizuna, lehiaketa, magazinea edo beste bat):
  - Premia xehatuak osatzea, laneko gidoi edo eskaleta batean oinarrituz.
  - Esku hartzen duten sailen laneko plana ezartzea eta ondoren abian jartzea.
  - Proiektuari dagokion dokumentazio guztia egiaztatzea.
  - Aurrekontuen eta proiektuaren bideragarritasuna ebaluatzea, kalkulu-orriak erabiliz.
- ✓ Telebistako programa dramatikoaren produkzioaren errealizazioa (teleantzerkia, telekomedia, sail dramatikoa, egoera-komedia edo beste bat):
  - Gidoi batetik abiatuta premiak zehaztea: *attrezzo*, *casting*, baimenak...
  - Produkzio-planaren errealizazioa (denborak, grabazio-aginduak, deiak) eta postprodukzioaren kontrola.
  - Produkzioko dokumentazioa kudeatzea (sarreraren eta gastuen kontrola, proiektuaren jarraipena eta kontrol ekonomikoa).
  - Etorkizuneko proiektuak optimizatzen laguntzeko deskribapen-memoria batekin alderatzeko balantzea sortzea.
- ✓ Irrati-programen produkzioa diseinatzea:



- Eskaleta batean oinarrituz, langileen premiak, aldi baterako premiak eta material teknikoko premiak definitzea.
  - Egile-eskubideen mendeko edukiak –musikari lotuak– erabiltzeko baimenak kudeatzea, eta dagokion ordain ekonomikoa balioztatzea.
  - Kudeaketa ekonomikoa, estekak eta programan parte hartzen dutenen esku-hartze baldintzak ezartzea.
- ✓ Lanean jokabide-jarrerak edukitzea, eta jarduteko eta elkarri eragiteko moduak:
- Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.
  - Komunikazioa argi, ordenatuta, egituratuta eta zehaztasunez transmititzea.
  - Iniziatibaz eta autonomiaz egoerak, arazoak edo kontingentziak konpontzea.
  - Produkzioaren faseetan esku hartzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen optimizazioaren garrantziari buruz jabetzea.

## 4. lanbide-modulua **4** IKUSKIZUN ETA EKITALDI PROIEKTUEN PLANGINTZA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza</b>
Kodea:	0918
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	165 ordu
Kurtoa:	1.a
Kreditu kop.:	11
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Kompetentzia-atal honi lotuta dago: UC1405_3: Zuzeneko ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen aurreprodukzioa antolatzea eta kudeatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 6.a / 14.a / 15.a / 16.a / 19.a

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Arte eszenikoetako, musikako edo ekitaldiko proiektuaren bideragarritasuna ebaluatzen du, eta, horretarako, haien helburu artistikoak eta ekonomikoak, batetik, eta produkzioa gauzatzeko behar dituzten prozesuak, bestetik, erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ekitaldien eta ikuskizunen produkzioaren sektoreko enpresen egitura funtzionaleko, antolakuntzako egiturako eta tipologiako ezaugarriak zehaztu ditu, titulartasunarengatik, entitate juridikoarengatik, enpresa-egonkortasuneko baldintzengatik, langile-kopuruarengatik eta espazioak erabiltzeko aukerarengatik, besteak beste, bereiziz.
- Ekitaldi, musika edo arte eszenikoetako proiektu baten bideragarritasun dramatikoak edo komunikaziokoa zehaztu du. Horretarako, haren dokumentazioaren eta edukiaren, egitura narratiboaren azterlanean, formatuan, generoan, estiloan eta dramagintzako edo komunikazioko proposamenean oinarritu da.
- Ekitaldi, musika edo arte eszenikoen obra baten produkzioan esku hartzen duten lan arloko erantzukizunak eta funtzioak definitu ditu; horretarako, haiek



balioztatzeko eta ondoren errealizatzeko produkzio-prozesuaren diagrama funtzionalak egin ditu.

- d) Ekitaldia edo ikuskizuna antzezteko proposatutako esparruaren egokitasuna balioztatu du, eskura dagoen dokumentazio teknikoaren eta logistikoaren azterlanean, eta antzezteko espazioen bisita teknikoetan oinarrituz.
- e) Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikoetako proiektua antzezteko esparruen erabilerari eta ingurumen-babesari, aseguruari, baimenei eta egile-eskubideari dagokienean beharrezko administrazio-baldintzak balioetsi ditu, bertan bildutako dokumentazioaren analisisian oinarrituz.
- f) Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa zehaztu du, gastuen eta sarreren aurreikuspena, iturri edo finantziario-baliabide publikoak eta pribatuak, diru-laguntza edo babesle posibleak, eta ekitaldia edo ikuskizuna eskatu duen enpresak esleitutako aurrekontua aztertuz.

2. Ekitaldi, musika edo arte eszenikoetako proiektu bat abian jartzeko beharrezko espazioak eta instalazioak, bitarteko logistikoak eta baliabide teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, euren ezaugarri funtzionalak eta eraginkorrak produktu-motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekitaldi, musika edo arte eszenikoetako ikuskizun bat egiteko beharrezko baliabide teknikoak, luminoteknikoak, soinuak eta ikus-entzunezkoak definitu ditu, ikuskizunaren ezaugarriak, funtzionaltasuna eta aplikazioak balioztatuz, bai eta proiektu teknikora eta artistikora egokitzen diren ere.
- b) Baliabide teknikoak eta artistikoak kontratatzeke edo eskuratzeko prozedurak, eta garraioa, ostatu hartzeko, mantenurako, *caterineko*, biltegiatzeko, eta jendearen arretarako eta segurtasun-zerbitzuetako beharrak zehaztu ditu.
- c) Ikuskizunetarako prestatutako esparrutan eta prestatuta ez daudenetan, ekitaldia edo ikuskizuna abian jartzeko antzezpen-espazioek eta bertako instalazioek bete behar dituzten baldintzak zehaztu ditu: ikusle/eszena diferentetara konfiguratzeko espazioak, kiroldegiak, karpak edo aire zabaleko espazioak, besteak beste.
- d) Proiektua abian jartzeko behar diren elementu material eszenikoen ezaugarriak eta funtzionaltasuna zehaztu ditu: dekoratuak, jantzitegia, atrezzoak eta eszena-tresneria.
- e) Proiektuaren elementu material eszenikoak, espazioak eta instalazioak, baliabide logistikoak eta baliabide teknikoak kontrolatzeko beharrezko dokumentazio teknikoa formalizatu du.
- f) Enpresa hornitzaileekin eta zerbitzuetakoekin batera, ekitaldirako edo zuzeneko ikuskizunerako baliabide materialez hornitzeko modalitateak erabaki ditu, erosketa, alokatzea, *leasing* edo *renting* artean bereiziz.

3. Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikoetako proiektua abian jartzeko behar diren giza baliabide teknikoak eta artistikoak zehazten ditu, eta, horretarako, haien ezaugarri profesionalak, batetik, eta finkatutako baldintza teknikoak, ekonomikoak eta artistikoak betetzea, bestetik, erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektua abian jartzeko behar diren teknikariak eta artistak bereizi ditu, ekitaldien edo ikuskizunen izaera diferentera egokitutako organigrametan adieraziz: antzerkia, dantza, opera, zirkoa, aire zabaleko kontzertua, mitina eta produktu baten aurkezpena, besteak beste.
- b) Ekitaldi edo ikuskizun bat abian jartzean esku hartzen duten giza talde teknikoen eta artistikoen lanpostu bakoitzaren funtzioak, zereginak, kualifikazioak eta hierarkia zehaztu ditu, bai eta bertan esku hartzen duten kolektiboen arteko erlazioak ere.

- c) Aktoreak, abeslariak, musikariak, dantzariak, aurkezleak, artistak edo beste interprete eta parte-hartzaileak aukeratzeko *casting*, entzunaldi eta ikustaldiko probak egiteko prozedura finkatu du, ekitaldiaren edo ikuskizunaren helburuak kontuan hartuz.
- d) Ekitaldi edo ikuskizun baten produkzio-prozesuan esku hartzen duten teknikariak eta artistak kontratatzeke modalitateak definitu ditu, negoziazio-estrategiak eta kontratuak sektorean dagoen lan-araudira egokitzen direla kontuan hartuz.
- e) Teknikariak eta artistak kontratatzeke beharrezko prozesu administratiboei eta fiskalei buruzko dokumentazioa, eta egile-eskubideak lagatzeko eta jabetza intelektualeko legeria betetzeari buruzko dokumentazioa osatzeko sistema finkatu du.

4. Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu baten produkzio-plana diseinatu du, eta, horretarako, plangintza-teknikak ekitaldi- edo ikuskizun-motara egokitzen ditu, eta haien diseinuan aplikatutako prozesu metodologikoa eta hartutako erabakiak justifikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu bat gauzatzeko ematen diren prozesuen errealizatorako behar den denbora zenbatu du: prestaketa, entseguak, muntatzea, antzezpena, desmuntatzea, ixtea eta balantzea.
- b) Ekitaldiaren edo ikuskizunaren errealizazioan esku hartzen duten jardueren zatiko laneko planak osatu ditu, zuzendaritza artistikoaren, zuzendaritza teknikoaren, kudeaketaren eta protokoloaren beharrak kontuan hartuz, eta proiektuan aurreikusitako epeak betetzearekin eta aurrekontuarekin bat ote datozen aztertuz.
- c) Behar dituzten baliabideak eta garatuko dituzten jardueren zatiko lan-planak barne hartzen dituen proiektuaren produkzio-plana egin du, ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketan espezializatutako informatikako aplikazioak erabiliz.
- d) Prestaketa-faseetan edo lokal iraunkor batean edo biran eskainitako ikuskizunetan, proiektuaren produkzioaren faseetan sortutako halabeharren kasuan irtenbideak edo jarduera alternatiboak aurreikusi ditu.
- e) Eskura dagoen aurrekontuarekin, epeak betetzearekin eta proiektuan finkatutako kalitate-baldintzak betetzearekin alderatu du produkzio-plana.
- f) Larrialdi- eta ebakuazio-plana diseinatu du. Bertan biltzen dira esparruaren ezaugarrien arabera laneko arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko neurriak, erabiliko dituzten baliabide teknikoak eta jendea biltzen den lokaletako segurtasuneko araudi espezifikoak.
- g) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuaren produkzio-prozesu osoa planifikatzeko dokumentazioa eta beharrezkoa dena osatu ditu.

5. Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikoetako proiektu baten aurrekontua egiten du, eta, horretarako, hura osatzen duten kontzeptuen eta kontu-sailen kostua, sektoreko ohiko estandarrekin eta merkatuko prezioekin erlazionatu du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Finantziarioaren espezifikotasunaren, neurriaren eta tipologiaren arabera, ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten kudeaketa ekonomikorako aurrekontu-eredua, informatikako aplikazioa eta kalkulu-prozedura egokiena aukeratu du.
- b) Ekitaldiaren edo ikuskizunaren garrantziaren eta tipologiaren arabera, aurrekontu-partidak eta kapituluak zehaztu ditu.
- c) Arte eszenikoen, musika-produkzioen eta ekitaldien berezko jardueretarako, hornitzaileen, zerbitzuetako enpresen eta baliabideen datu-baseen katalogoak kontsultatu ondoren eskaintzak aukeratu ditu.

- d) Merkatuko prezioan eta aukeratutako produkzio-estandarren arabera, ekonomikoki balioztatu ditu ekitaldi edo ikuskizunen proiektuaren aurrekontua osatzen duten aurrekontu-partidak.
- e) Proiektua kudeatzeko eta administrazio-gastuei aurre egiteko zenbat likidezia behar den kalkulatzeko, sarreraren (bertako edo kanpoko baliabideak dituztelako, txarteldegian bildu dutelako edo beste sistema baten bidez jaso dituztelako) eta gastuen (produkzioan eta lokal finko batean edo biran eskainitako ikuskizunetan) proiektzioa egin du.
- f) Ikuskizun- edo ekitaldi- proiektu baten epeari, kostuari eta kalitateari buruz aurrez definitutako helburuak betetzeko eta optimizatzeko irizpideekin baliabide ekonomikoak proiektatu ditu.
- g) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten aurrekontua osatzeko eta ondoren kudeatzeko informazio guztia idatziz jasotzen duen memoria ekonomikoaren zatia osatu du.

### c) Oinarrizko edukiak:

1. EKITALDIKO, MUSIKAKO EDO ARTE ESZENIKOETAKO PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikoetako proiektu baten bideragarritasun dramatiko edo komunikaziokoa zehaztea.</li> <li>- Ekitaldi baten, musika-emanaldi baten edo arte eszenikoetako lan baten produkzioan esku hartzen duten erantzukizun eta funtzio profesionalak definitzea.</li> <li>- Balioztatze edo ondoren errealizatzeko helburuarekin, produkzio-prozesuaren diagrama funtzionalak egitea.</li> <li>- Ekitaldia edo ikuskizuna eskaintzeko proposatutako esparru espezifiko egokia ote den balioztatzea.</li> <li>- Egile-eskubideen, baimenen, aseguruaren, ingurumenaren babesaren eta esparruen erabileraren arloetan beharrezko administrazio baldintzen dokumentazioa analizatzea.</li> <li>- Gastuen eta sarreraren aurreikuspena aztertuz, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa zehaztea.</li> <li>- Ekitaldien edo ikuskizunen lege-esparrua proiektu batera aplikatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldien eta ikuskizunen produkzioaren sektoreko enpresen tipologia, antolakuntza-egitura eta egitura funtzionala: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzeneko ikuskizunak: arte eszenikoak, kontzertuak eta beste batzuk.</li> <li>• Ekitaldiak: kongresuak, mitinak, produktuen aurkezpena eta beste batzuk.</li> </ul> </li> <li>- Ekitaldien eta ikuskizunen produkzio-prozesuko faseak.</li> <li>- Proiektuaren bideragarritasun dramatikoaren eta komunikaziokoaren azterlan-teknikak.</li> <li>- Ikuskizunetarako esparru espezifikoaren egokitasuna balioztatze teknika.</li> <li>- Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen bideragarritasun ekonomikoa analizatzeko teknika.</li> <li>- Diru-laguntzak, babesleak, eta finantziario-iturri edo -baliabide publikoak eta pribatuak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzioak garatzeko ekimena izatea.</li> <li>- Eduki didaktikoko informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta osatzeko ekimena.</li> <li>- Autonomia izatea adierazitako lanak egitean.</li> </ul>

2. EKITALDIKO, MUSIKAKO EDO ARTE ESZENIKOTAKO PROIEKTU BATERAKO BALIABIDE TEKNIKOAK, LOGISTIKOAK ETA INSTALAZIOAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldi bateko, musikako edo arte eszenikotako ikuskizun bat egiteko behar diren baliabide teknikoak definitzea.</li> <li>- Baliabide teknikoen aplikazioak, funtzionaltasuna eta ezaugarriak balioztatzea.</li> <li>- Baliabide teknikoak kontrolatzeko beharrezko dokumentazio teknikoa osatzea.</li> <li>- Ekitaldirako edo zuzeneko ikuskizunerako baliabide materialez hornitzeko modalitateak zehaztea.</li> <li>- Ikuskizuna edo ekitaldia eskaintzeko espazioak kontratatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erregulariki ikuskizunak eskaintzeko antolatutako espazioak.</li> <li>• Erregulariki ikuskizunak eskaintzeko prestatuta ez dauden espazioak: ikusle/eszena konfigurazio aldakorreko espazioak, kiroldegiak, karpak edo aire zabaleko espazioak, besteak beste.</li> <li>• Entseatzeko eta antzezteko espazioen kontratazioaren ohiko klausulak.</li> </ul> </li> <li>- Dokumentazio teknikoa lantzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Premia teknikoen eta logistikoen zerrendak.</li> <li>• <i>Riderrak</i> edo errekerimendu teknikoen orriak.</li> <li>• Eskaleta teknikoak eta eraginkorrak.</li> </ul> </li> <li>- Eszenako elementu materialen kontratuak egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldiak eta ikuskizunak produzitzeko beharrezko baliabide teknikoen ezaugarriak.</li> <li>- Ikuskizuna edo ekitaldia eskaintzeko espazio-motak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erregulariki ikuskizunak eskaintzeko antolatutako espazioak.</li> <li>• Erregulariki ikuskizunak eskaintzeko prestatuta ez dauden espazioak: ikusle/eszena konfigurazio aldakorreko espazioak, kiroldegiak, karpak edo aire zabaleko espazioak, besteak beste.</li> <li>• Entseatzeko eta antzezteko espazioen kontratazioaren ohiko klausulak.</li> </ul> </li> <li>- Baliabideak biltzeko modalitateak.</li> <li>- Eszenako elementu materialak: dekoratuak, jantzitegia, atrezzoak eta eszena-tresneria.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipo profesionalekin tratatzeko gaitasuna.</li> <li>- Jasotzen dituen argibideak zuhurtasunez interpretatu eta gauzatzea.</li> <li>- Burututako lana gauzatzeko kalitatearekin konpromisoa.</li> </ul>

3. EKITALDIETARAKO, MUSIKA EMANALDIETARAKO ETA ARTE ESZENIKOTARAKO GIZA BALIABIDE TEKNIKOAK ETA ARTISTIKOAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektua abian jartzeko behar diren teknikarien eta artisten banakatzea egitea.</li> <li>- Ekitaldien edo ikuskizunen jatorri diferentetara egokitutako organigramak osatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerkia, dantza, opera, zirkoa.</li> <li>• Kontzertua aire zabalean, mitina eta produktu baten aurkezpena, besteak beste.</li> </ul> </li> <li>- Lanpostu bakoitzaren funtzioak, zereginak, prestakuntza eta hierarkia</li> </ul>

	<p>zehaztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Casting probak, entzunaldiak eta ikuskatzeak egitea.</li> <li>- Aktoreak, kantariak, musikariak, dantzariak, aurkezleak, artistak edo beste interpretari edo parte-hartzaile batzuk aukeratzea, ekitaldiaren edo ikuskizunaren helburuetara egokitzen ote diren kontuan hartuz.</li> <li>- Ekitaldi edo ikuskizun baten produkzio-prozesuan esku hartzen duten teknikariak eta artistak kontratatzea.</li> <li>- Teknikariak eta artistak kontratatzeko beharrezko administrazio- eta zerga-prozesuei buruzko dokumentazioa osatzea.</li> <li>- Egile-eskubideak lagatzeari eta jabetza intelektualeko legeria betetzeari buruzko dokumentazioa osatzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitalditan edo ikuskizunetan ekipo teknikoaren eta artistikoen funtzioak eta lanak. Lanpostuen hierarkia eta prestakuntza.</li> <li>- Ekitaldien edo ikuskizunen tipologiaren arabera teknikarien eta artisten organigrama.</li> <li>- Ondokoak aukeratzeko eta kontratatzeko prozesuak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• teknikariak.</li> <li>• artistak.</li> </ul> </li> <li>- Ekitaldien eta ikuskizunen plangintzaren administrazioko, zergen inguruko eta jabetza intelektualari buruzko dokumentazioa.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-taldearekin erlazionatzeko prest egotea.</li> <li>- Halabeharrak konpontzeko ekimena.</li> <li>- Erabakiak hartzeko autonomia izatea.</li> </ul>

#### 4. EKITALDIKO, MUSIKAKO EDO ARTE ESZENIKOTAKO PROIEKTU BATEN PRODUKZIO PLANA DISEINATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldiaren edo ikuskizunaren errealizazioan esku hartzen duten jardueri dagozkien laneko zatiko planak osatzea.</li> <li>- Zuzendaritza artistikoko, zuzendaritza teknikoko, kudeaketako eta protokoloko beharrak identifikatzea eta kalkulatzea.</li> <li>- Proiektuaren produkzio-planaren errealizazioa:</li> <li>- Produkzio-plana eta aurrekontu eskuragarria alderatzea.</li> <li>- Proiektuan ezarritako kalitate-baldintzak gauzatzen direla eta epeak betetzen direla egiaztatzea.</li> <li>- Plangintzako dokumentazioa egitea.</li> <li>- Espazio eszenikoetako larrialdi- eta ebakuazio-plana osatzea.</li> <li>- Ekitaldi edo zuzeneko ikuskizun bat planifikatzeko fasean halabeharrak konpontzeko baliabideak eta alternatibak aukeratzea.</li> <li>- Gantt eta Pert diagramak aplikatzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldien edo ikuskizun baten produkzio-faseen prozesuak eta denborak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Entseguen fasean produkzioaren denborak zehaztea.</li> <li>• Muntatzeko/desmuntatzeko fasean produkzioaren denborak zehaztea.</li> <li>• Emanaldian eta biran produkzioaren denborak zehaztea.</li> </ul> </li> <li>- Produkzio-plana eraikitzeko teknikak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa.</li> <li>• Gantt eta Pert diagramak.</li> <li>• Kostuak eta denborak kalkulatzea: puntu kritikoak, lehentasunak eta lasaiera-denborak.</li> </ul> </li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Halabeharrak konpontzeko ekimena.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabakiak hartzeko autonomia izatea.</li> <li>- Funtzioak garatzeko ekimena izatea.</li> </ul>
--	---

5. EKITALDIKO, MUSIKAKO EDO ARTE ESZENIKOTAKO PROIEKTU BATEN AURREKONTUA OSATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrekontuak gauzatzea ekitaldiaren edo ikuskizunaren tipologiaren arabera.</li> <li>- Hornitzaileen, zerbitzuetako enpresen, eta ekitaldien katalogoak, eta ikuskizunaren industriaren datu-baseak eskuratzea:</li> <li>- Ekitaldien eta ikuskizunen produkzioaren kostuak kalkulatzeko:</li> <li>- Ekitaldien eta ikuskizunen produkzioaren sarrerak identifikatzea eta kalkulatzeko.</li> <li>- Aurrekontuaren hobekuntzara aplikatutako baliabideak optimizatzeko prozesuak.</li> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuaren aurrekontua kudeatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekitaldiaren edo ikuskizunaren tipologiaren arabeko aurrekontuen ereduak.</li> <li>- Ekitaldiaren edo ikuskizunaren plangintzaren memoria ekonomikoa.</li> <li>- Eskaintzak hautatzeko irizpideak.</li> <li>- Aplikazio informatikoak eta kalkulu-prozedurak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzioak garatzeko ekimena izatea.</li> <li>- Eduki didaktikoko informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta osatzeko ekimena.</li> <li>- Autonomia izatea adierazitako lanak egitean.</li> </ul>

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen sekuentziazioan komeni da hasieran ekitaldien eta ikuskizunen produkzioaren sektoreko enpresen tipologiari buruzko ikuspegi orokorra ematea, ekitaldi edo ikuskizun bakoitzaren berezko ezaugarriak aztertu aurretik. Hori dela-eta, ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektuaren bideragarritasunaren ebaluazioari buruzko **1. multzoko** edukiekin hastea gomendatzen dute. Multzo honetan bertan azalduko dituzte produkzio-prozesuko faseak, proiektuaren bideragarritasun dramatiko eta komunikazioko azterlan-teknikak, esparruen egokitasuna balioztatzekeko prozedurak, eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren analisia.

Ondoren, ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu bat planifikatzen lagunduko duten beharrezko instalazioak eta baliabide teknikoak eta logistikoak zehazteko **2. multzoko** edukiekin aurrera jarrai daiteke. Horren haritik, ekitaldiak edo ikuskizunak produzitzeko beharrezko baliabide teknikoaren ezaugarriak aztertuko dituzte, bai eta ekitaldia edo ikuskizuna eskaintzeko eszenako elementu materialak eta espazioak kontratatzea ere.

Sekuentzia gisa, ekitalditarako, musika-emanalditarako edo arte eszenikotarako giza baliabide teknikoak eta artistikoak zehaztea lantzen duen **3. multzoko** edukiek garatuko

dituzte. Derrigorrez aplikatu behar da; berdin da obra eszeniko batekin, musika-produkzio batekin nahiz beste ekitaldi batekin lan egin. Ikasleek teknikarien eta artisten organigramak sortu, lanpostu bakoitzaren zereginak eta hierarkia zehaztu, eta artistak edo beste interpretari batzuk aukeratzeko *casting*, entzunaldi eta ikusteko probak egiteko prozedura ezarri beharko dute, proba horiek ekitaldiaren edo ikuskizunaren asmoetara egokitzen direla kontuan hartuz.

Ondoren, sekuentziazioan produkzio-planaren diseinuari buruzko alderdiak hartuko dituzten kontuan. Funtsean antolakuntzakoak diren eduki horiek plangintzaren alderditan sakontzen duten **4. multzoan** zehazten dituzte. Ikasleek produkzio-faseen prozesuak eta denborak zehaztu beharko dituzte. Gainera, proiektuaren produkzio-planean sartuko dituzten laneko zatiko planak osatu beharko dituzte, ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketan espezializatutako informatikako aplikazioak erabiliz.

Azkenik, **5. multzoan** ekitaldiko, musika-emanaldiko eta arte eszenikotako proiektuaren aurrekontua osatuko dute. Horretarako, aurreko multzoetan bildutako dokumentaziotik abiatuz, ikasleak gai izango dira ekitaldiaren finantziazioaren tipologiara, neurrira eta berariazotasunerara egokitutako aurrekontu bat osatzeko.

Multzoen sekuentzia-ordena hau proiektu bat planifikatzearekin (antzezpen bat, musika-emanaldi bat edo beste mota bateko ekitaldi bat) bat etor daitekeela dirudi. Era horretan, ikasleek eduki-multzoetan adierazitako prozedurak aplikatu ahal izango dituzte.

## 2) Alderdi metodologikoak

“**Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza**” modulu teorikoa eta prozedurazkoa da. Bere helburu da ekitaldiko, musika-produkzioko edo arte eszenikoetako proiektu baterako behar diren baliabide teknikoak, logistikoak, artistikoak, giza baliabideak eta instalazioak zehazteko funtzioak garatzea, bai eta ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu bat osatzea eta produkzio-plana diseinatzea ere.

Funtzio horiek betetzeko, ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintzarekin lotutako teknika-motak proiektu zehatz baten gainean lantzeko gomendatzen dute. Mota diferenteko ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintzako teknikak lantzea komeni da, hala nola, antzerkia, dantza, aire zabaleko kontzertuak eta mitinak, besteak beste. Talde-proiektu honi esker, proiektua planifikatzeko eta abian jartzeko irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerak garatu ahal izango dituzte.

Horren haritik, teknika hauek ikastearen ondorioz, prozesu osoa kudeatzeko erabilitako eta sortutako ereduak dokumentazioaren gaineko informazioa bilatu behar da. Internet bezalako teknologia berriak erabili ahal izango dituzte, eszenako beste proiektu batzuk edo beste mota bateko ekitaldia planifikatzeko ereduak lortzeko.

Irakasleek proiektuaren plangintzari buruzko ekintzak bateratzeko helburua izango dute. Horretarako, modulua osatzen duten multzoen edukiak metodologikoki azalduko dituzte, eta ideia berriak sortzea ahalbidetuko duen ikaskuntza parte hartzailea sustatuko dute. Plangintza osoaren antolakuntzari esker proiektua erraz gauzatuko dute.

Koordinazio didaktikoko lanetan, modulu hau ziklo honetako “**Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa**” eta “**Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa**” moduluekin batera lantzea gomendatzen dute. Halaber, batez ere, telebistako eta ikus-entzunezko eta ikuskizunetako proiektuen errealizazioaren plangintza-funtzioak garatzen dituzten lanbide-arloko beste ziklo batzuetako beste modulu batzuekin ere lantzea gomendatzen dute. Ekitaldien eta ikuskizunen produkzioaren sektoreko enpresaren bat bisitatzeko gomendatzen dute, lan-arloko ingurune fisikoarekin benetako harremana errazteko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektu baten bideragarritasuna:
  - Proiektu baten bideragarritasun dramatikoak edo komunikaziokoak zehaztea.
  - Produkzio-prozesuaren diagrama funtzionalak egitea.
  - Dokumentazioaren azterlanetik eta antzezen-espazioen bisitetatik abiatuz, esparruen egokitasuna balioztatzea.
  - Egile-eskubideen, baimenen, aseguruaren eta ingurumenaren babesaren arloetan beharrezko administrazio baldintzak.
  - Ikuskizuna edo ekitaldia eskatu duen enpresak esleitutako aurrekontuaren eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren azterketa.
- ✓ Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiekturako baliabide tekniko, logistiko eta instalazio egokiak definitzea:
  - Baliabide teknikoak, luminoteknikoak, soinukoak eta ikus-entzunezkoak, proiektuaren funtzionaltasuna, aplikazioa eta egokitzapena balioztatzea.
  - Antzezteko espazioek eta instalazioek bete behar dituzten baldintzak.
  - Eszenako elementu materialen ezaugarriak eta funtzionaltasuna: dekoratuak, jantzitegia, tresneria eta eszena-tresneria.
  - Dokumentazio tekniko formalizatzea.
  - Hornikuntzako modalitateak: erosketak, alokairua, *leasing* edo *renting*.
- ✓ Proiekturako giza baliabide teknikoaren eta artistikoen definizioa:
  - Proiektua abian jartzeko behar diren teknikarien eta artisten banakatzeko egitea.
  - Lanpostu bakoitzaren funtzioak, zereginak, prestakuntza eta hierarkia zehaztea, bai eta talde desberdinen arteko erlazioa ere.
  - Parte-hartzaileak aukeratzeko *casting* probak, entzunaldiak eta ikuskatzeak egiteko prozedurak.
  - Teknikariak eta artistak kontratatze modalitateak.
- ✓ Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu baten produkzio-plana diseinatzea:
  - Proiektua prestatzeko, entseatzeko, muntatzeko, antzezteko, desmuntatzeko, ixteko eta balantzea egiteko behar den denbora zenbatzea.
  - Jardueren laneko planak egitea: zuzendaritza artistikoa, zuzendaritza teknikoa, kudeaketa eta protokoloa.
  - Proiektuaren produkzio-plana prestatzea.
  - Gerta daitezkeen halaberharren aurrean soluzioak edo jardura alternatiboak planifikatzea.
  - Larrialdi- eta ebakuazio-plana diseinatzea.
  - Beharrezko dokumentazioa lantzea.
- ✓ Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu baten aurrekontua osatzea.
  - Ikuskizunaren edo ekitaldiaren tipologiaren arabera aurrekontu-eredua aukeratzeko:
  - Hornitzaileen eta zerbitzu-taldeen enpresen eskaintzak, baliabideak aztertzea...
  - Aurrekontu-partiden balioztatze ekonomikoa.
  - Sarreraren proiektzioa egitea, erabil dezakegun likidotasuna kalkulatzeko.
  - Baliabide ekonomikoak optimizatzea.
  - Memoria ekonomikoa egitea.



## 5. lanbide-modulua **5** IKUSKIZUN ETA EKITALDI PROIEKTUEN KUDEAKETA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa</b>
Kodea:	0919
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	160 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1406_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien produkzioa eta antzezpena kudeatzea. UC1407_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien proiektuen emaitzak ebaluatzea.
Helburu orokorrak:	3.a / 5.a / 6.a / 7.a / 8.a / 9.a / 11.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 19.a / 20.a / 22.a / 23.a

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu bat muntatzeko behar dituzten baliabide teknikoak eta artistikoak aukeratzeko eta kudeatzeko prozedurak ezartzen ditu, eta, horretarako, kontrol-sistemak proiektuaren irismenarekin, tipologiarekin eta materialen ezaugarriekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuaren produkzio-planetik jasotako zatiko planak produkzioaren aukera objektiboetara egokitu ditu, jardueren diagramak eguneratuz eta mugatuz, hauek hedatuz eta betetzen direla egiaztatuz.
- Eszenografiaren, jantzitegiaren, atrezzoaren, tresneriaren eta karakterizazioaren esparruetan beste pertsona batzuek egin behar dituzten lan teknikoen jarraipenaren kontrol-sistema diseinatu du.
- Material eszenikoen entregak egiaztatzeko sistema jarri du martxan, materialak jaso direla ziurtatuko duena eta proiektuaren jarraipen ekonomikoa erraztuko duena.

- d) Besteak beste instalatutako elementu materialak, soinuko ekipo teknikoak, argizatze-ekipoak, egiturak, komunikazio-sistemak, ikus-entzunezko baliabideak edo eszenako makineria muntatzeko planta betetzeko gainbegiratze-prozedurak ezarri ditu, hauek proiektu artistikora eta produkziokora egokitzen direla ziurtatuz.
- e) Ekitaldiaren edo ikuskizunaren muntaketan erabilitako materialaren inbentarioa osatu du, kontrol-sistema bat ezarriz, eta norberaren materialaren eta alokatutakoaren arteko bereizketa idatziz jasoz.
- f) Ekitaldirako edo ikuskizunerako azpiegiturak muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuen ezaugarriak zehaztu ditu, paketatze, garraio, karga, deskarga eta biltegitratzeko prozesuak aipatuz.
- g) Biran materialak kontrolatzeko eta atzerrira ateratzeko aurreikuspenak egin ditu: ekipoak aduanetatik igarotzeko merkantziak aldi baterako onartzeko dokumentuak eta baimenak bideratzea.
- h) Ekitaldi edo ikuskizun baten bira edo antzezpena amaitzean jarraitu behar dituzten protokoloak ezarri ditu, funtzionamendua gainbegiratzeko, matxurak atzemateko, mantentzeko eta konpontzeko, eta material teknikoa eta artistikoa bertako biltegitara edo alokairu-enpresetara itzultzeko.

2. Ekitaldiko, musikako eta arte eszenikoetako proiektua garatzeko, teknikarien, artisten eta gonbidatuen kudeaketa-sistema diseinatzen du, eta, horretarako, kontrol-sistemak proiektuaren tipologiarekin eta irismenarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-prozesu guztietan komunikazioko, negoziazioko eta buruzagitzako teknika egokienak ekitaldian edo ikuskizunean esku hartzen duten guztiei aplikatzea justifikatu du, talde-lana sustatzeko, informazio-fluxuaren zirkulazioa ziurtatzeko, motibazioa handitzeko, eta pertsonen arteko edo sailen arteko gatazkak konpontzeko.
- b) Langileen ordutegia, zatiko edo guztizko entsegu teknikoak, eta ekitaldiaren edo ikuskizunaren antzezpena kontrolatzeko jardueren planaren jarraipenerako sistema osatu du.
- c) Teknikarien, artisten eta esku-hartzaileen kontratu-baldintzak betetzen direla kontrolatzeko prozedura ezarri du.
- d) Langileentzako *catering* edo jatetxeen zerbitzua, ostatuak eta hauen erreserbak, garraioak eta entseguetan, antzezpenetan eta biran zehar dieten kudeaketa planifikatu ditu, zerbitzuaren kalitatearen eta aurrekontu erabilgarriaren arteko oreka bilatuz, eta hartutako erabakiak justifikatuz.
- e) Biran zehar langileak kontrolatzeko eta hauek atzerrira irteteko aurreikuspenak egin ditu, baimenak eta bisak bideratuz, eta beharrezko dokumentazioa osatuz.
- f) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuan parte hartzen duten artistak eta teknikariak euren jatorrira itzultzeko garraioko eta mantenuko plan logistikoa osatu du.

3. Ikuskizuna edo ekitaldia kudeatzeko behar diren administrazio- eta finantza-prozedurak zehazten ditu, eta, horretarako, kudeaketa-baldintzak, batetik, finkatutako epeetan, kalitateetan eta aurrekontuan proiektua amaitzeko bermea, bestetik, erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ordainketa-bideratzeen kudeaketa-sistema definitu du, ekipoen eta zerbitzuen kontratazioan, erosketan edo alokairuan aplikatzeko, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten muntaketan, antzezpenean edo biran.
- b) Kutxako esku-diruaren kontrol-sistema ezarri du, bai eta sarreraren salmentaren edo kaxetaren ondoriozko diru-sarrerena ere, proiektuaren plan ekonomikoan jasotzen direlako.

- c) Sarrerren eta gastuen kudeaketa, aurrekontuen desbideratzea atzematea erraztuko duen proiektuaren jarraipenerako eta kontrol ekonomikorako aplikazio informatikoa aukeratzea justifikatu du.
- d) Langileek lan egindako orduak jasotzeko eta zenbatzeko sistema planifikatu du, gastua automatikoki eguneratuz eta proiektuaren aurreikuspen ekonomikoan islatuz.
- e) Enpresei eta hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak eta produktuak baliagarriak eta egokiak diren ziurtagiriak balioztatzean oinarrituz, ohar ekonomikoak egin ditu.
- f) Ikuskizunaren edo ekitaldiaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jar dezaketen halabeharretatik ikuskizunaren edo ekitaldiaren produkzioa babesteko pertsonen, ekipoen eta materialen gainean aseguru-plana egin du.
- g) Proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa balioztatzeko adierazleak osatu ditu.

4. Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektua sustatzeko entseguak, antzezpena eta jarduerak antolatzen ditu, eta, horretarako, laneko planaren zehaztapenak jarraitzen ditu, eta aplikazioan sor daitezkeen halabeharrak eta aldaketak hartzen ditu kontuan.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku hartzen duten sail teknikoetatik informazioa biltzeko eta atzemandako arazoak konpontzeko zatiko entsegu teknikoaren plan bat ezarri du.
- b) Entseguetara eta antzezpenera, besteak beste aktoreak, musikariak, animazioa, interpretariak eta teknikariak bertaratzea kontrolatzeko sistema diseinatu du, kudeaketako jarraibideak eta halabeharren jakinarazpena kontuan hartuz antolakuntzan eta arlo ekonomikoan.
- c) Laneko planaren interpretazioan oinarrituz, esku hartzen duten guztientzako zatiko entseguen eta entsegu orokorren plan bat definitu du, eta hori gauzatzeko, mantenuko eta *caterineko* zerbitzuak koordinatu ditu.
- d) Jendeari arreta eskaintzeko dauden langileek euren lana betetzen dutela eta sarreretan, aparkalekuetan eta segurtasunean kontrolak funtzionatzen duela egiaztatzeko entseguak egiteko plana aurreikusi du.
- e) Gonbidatuei arreta eskaintzeko harrera, jantziak, VIP gunea, *catering* eta beste zerbitzu batzuk antolatzeko, eta agintariei, sustatzaileei, artistei, babesleei eta VIPei gonbidapenak eta sinestamenduak banatzeko plan bat diseinatu du.
- f) Sormenezko soluzioen proposamena eta proposamen hori kaltetutako sailei jakinaraztea barne hartuko dituen entseguetan atzemandako gorabeheren eta arazoen txostenak osatzeko sistema aurreikusi du.
- g) Antzezpen-espazioan laneko arriskuen prebentzioari eta segurtasunari lotutako neurri guztiak betetzen direla egiaztatu du: Larrialdien plana, mediku-zerbitzuen eskuragarritasuna, segurtasun publikoa eta pribatua, langileentzako, artistentzako eta parte-hartzaileentzako ekipoen egoera, besteak beste.
- h) Proiektua sustatzeko jarduerak aurreikusi ditu, hala nola, prentsa-dossierra osatzea, estreinaldiaren aurrerapena, hedabideetan publizitate-espazioak sartzea, prentsa-deialdiak eta harreman publikotako ekintzak, elementu grafikoaren produkzioa eta promozio-elementuak antzezpen-barrutian kokatzea, besteak beste.

5. Ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektuaren produkzioaren alderdi administratiboak, ekonomikoak, fiskalak, antolakuntzakoak eta sustapenekoak ixteko prozedurak ezartzen ditu, eta, horretarako, produkzio-prozesuan sor daitezkeen elkarren arteko harremanak, eta aurreikuspenen eta emaitzen arteko aldea balioztatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektu baten administrazio-itxierako prozesuak planifikatu ditu, hornitzaileei, teknikariei, artistei eta kontratatutako esku-hartzaileei ordainketa-aginduak,

- jasotako diru-laguntzen emaitza, ordezkartzen sarreren justifikazio ekonomiko eta Gizarte Segurantzako kotizazioak, besteak beste, idatziz emanez.
- b) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten finantza-itxierarako beharrezko kudeaketak zehaztu ditu, hala nola, hornitzaileei ordaintzeko dauden zorrak ordaintzea, kobratzeko zain daudenen fakturazioa, sarreren eta gastuen arteko balantzea egitea, eta memoria ekonomikoan jasotako ondorioa.
  - c) BEZa, PFEZa, langileen Gizarte Segurantzako likidazioa, enpresa-mozkinen aitorpena kalkulatu du, ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuaren itxiera fiskala eta zerga-itxiera egiteko.
  - d) Proiektuaren helburu artistikoak, komunikaziokoak, ekonomikoak, antolakuntzakoak eta sustapenekoak zein neurritan lortu dituzten bilduko duen aurreikuspenen eta emaitzen arteko alderatze-balantzea egitea diseinatu du. Bertatik ateratako ondorioak deskribapen-memoria batean azalduko dituzte.
  - e) Sarreren salmentan lortutako zatiko eta guztizko emaitzak, eta ikuskizuna ustiatu duten denboran erabilitako sistema informatikoaren funtzionamendua balioztatzeko sistema ezarri du.
  - f) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuaren alderdi teknikoekin, banaketakoekin eta sustapenekoekin erlazionatuta, prestatzeko prozesuan, muntaketan, entseguetan, estreinaldian eta biran zehar sortutako eta jasotako informazio dokumental guztia artxibatzeke prozedura osatu du.

### c) Oinarrizko edukiak:

1. EKITALDIKO, MUSIKAKO EDO ARTE ESZENIKOTAKO PROIEKTU BAT MUNTATZEKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA ARTISTIKOAK AUKERATZEKO ETA KUDEATZEKO PROZESUAK EZARTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuaren produkzio-planeko zatiko planak produkzioaren posibilitate objektiboetara egokitzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jardueren diagramak eguneratzea eta mugatzea.</li> <li>• Bere hedapena finkatzea eta edukia egiaztatzea.</li> </ul> </li> <li>- Muntatzeko plana betetzeko gainbegiratze-prozedurak finkatzea.</li> <li>- Ikuskizuna edo ekitaldia muntatzean erabilitako materialaren inbentarioa osatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontrol-sistema bat ezartzea.</li> <li>• Norberaren jabetzakoaren eta alokatutakoaren arteko bereizketa idatziz jasotzea.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu bat amaitzean ekipamendu teknikoa eta artistikoa kontrolatzeko protokoloak aplikatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Funtzionamendua gainbegiratzea.</li> <li>• Matxurak atzematea.</li> <li>• Mantentzea eta konpontzea.</li> <li>• Material teknikoa eta artistikoa itzultzea.</li> </ul> </li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektua produzitzeko plana kudeatzeko teknikak.</li> <li>- Ikuskizunerako edo ekitaldirako azpiegiturak muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuen ezaugarriak.</li> <li>- Eszenografiako lan teknikoen jarraipenaren kontrol-sistema:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jantzitegia.</li> <li>• Atrezzoak.</li> <li>• Tresneria.</li> <li>• Ezaugarritzea.</li> </ul> </li> <li>- Biran materialak kontrolatzea. Atzerrira irteera:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baimenak lortzeko izapideak.</li> <li>• ATA koadernoak.</li> </ul> </li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Muntaia-plana:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Soinuko ekipo teknikoak.</li> <li>• Argiztapen-ekipoak.</li> <li>• Komunikazio-sistemak.</li> <li>• Ikus-entzunezko baliabideak.</li> <li>• Eszenako makineria.</li> </ul> </li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamenduaren eragiketa-mailako zereginetan laguntzeko interesa izatea.</li> <li>- Merkatuan sistema eragileen gainean gertatzen diren aldaketetara egokitzea.</li> </ul>

## 2. IKUSKIZUN EDO EKITALDI PROIEKTU BATEN PRODUKZIOAN TEKNIKARIEN, ARTISTEN ETA GONBIDATUEN KUDEAKETA SISTEMA DISEINATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laneko prozesu guztietan komunikazioko, negoziazioko eta buruzagitzako teknika egokienak erabiltzea, honako helburuak lortzeko:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde-lana.</li> <li>• Informazio-fluxuak zirkulatzea.</li> <li>• Motibazioa.</li> <li>• Gatazkak ebaztea.</li> </ul> </li> <li>- Langileentzako zerbitzuak planifikatzea, zerbitzuaren kalitatearen eta eskuragarri dagoen aurrekontuaren arteko oreka bilatuz:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Catering</i> edo jatetxeak.</li> <li>• Ostatuak eta erreserbak.</li> <li>• Garraiabideak.</li> <li>• Dieten kudeaketa entseguetan.</li> <li>• Antzezpena eta bira.</li> </ul> </li> <li>- Biran langileak kontrolatzeko eta hauek atzerrira ateratzeko aurreikuspenak egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunetako eta ekitaldietako lan-taldeei aplikatutako buruzagitzako, motibazioko eta negoziazioko teknikak.</li> <li>- Ikuskizunetan eta ekitalditan jardueren planen jarraipen-teknikak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Langileen ordutegiaren kontrola.</li> <li>• Entsegu teknikoaren kontrola, zatizkoak edo guztizkoak.</li> <li>• Antzezpenak.</li> </ul> </li> <li>- Sektore bertako kontratu-baldintzak betetzen direla kontrolatzeko teknikak.</li> <li>- Biran eta atzerrira ateratzean langileak kontrolatzeko teknikak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baimenak bideratzea.</li> <li>• Bisak.</li> <li>• Dokumentazio gehigarria.</li> </ul> </li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabideak zorrotz kudeatzea.</li> <li>- Antolamendu-aldaketetara egokitzea.</li> </ul>

## 3. IKUSKIZUNAREN EDO EKITALDIAREN KUDEAKETAN BEHAR DIREN ADMINISTRAZIOKO ETA FINANTZAKO PROZEDURAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresei eta hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak eta produktuak baliagarriak eta egokiak diren ziurtagiriak balioztatzean oinarrituz, ohar ekonomikoak egitea.</li> <li>- Ikuskizun-sektorea kudeatzeko aplikazio informatikoak erabiltzea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sarreraren eta gastuen kudeaketa.</li> <li>• Aurrekontuen desbideratzeak atzematea.</li> <li>• Proiektuaren jarraipena eta kontrol ekonomikoa.</li> </ul> </li> </ul>
----------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileek lan egindako orduak jasotzeko eta zenbatzeko sistema planifikatzea, gastua automatikoki eguneratuz eta proiektuaren aurreikuspen ekonomikoan islatuz.</li> <li>- Proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa balioztatzeko adierazleak osatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa balioztatzeko irizpideak.</li> <li>- Ikuskizunerako edo ekitaldirako aseguru-motak eta hauen ezaugarriak.</li> <li>- Ikuskizunari eta ekitaldiari aplikatutako kontabilitatea.</li> <li>- Ikuskizun-sektorea kudeatzeko aplikazio informatikoak.</li> <li>- Proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa balioztatzeko irizpideak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabideak zorrotz kudeatzea.</li> <li>- Zorroztasunez jardutea, arauen arabera eta txukuntasun eta garbitasun egokiarekin egindako lanak aurkeztean.</li> </ul>

#### 4. IKUSKIZUNAREN EDO EKITALDIAREN ENTSEGUAK ANTOLATZEA, ANTZEZPENA ETA HURA SUSTATZEKO JARDUERAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Entseguak antolatzea eta kudeatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikuskizunak.</li> <li>• Ekitaldiak.</li> <li>• Kongresuak.</li> <li>• Hitzaldiak.</li> <li>• Enpresa-arloko ekitaldiak.</li> </ul> </li> <li>- Ekitaldiaren edo ikuskizunaren antzezpena planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egun horretarako zeregin espezifikoak esleitzea.</li> <li>• Gonbidatuei, agintariei eta babesleei arreta.</li> <li>• Jendeari/ikusleei arreta eta kudeaketa.</li> <li>• Antzeppen-espazioa eta bere ingurunea kontrolatzea.</li> </ul> </li> <li>- Teknikarientzako lan-aginduak planifikatzea.</li> <li>- Ikuskizunaren edo ekitaldiaren fitxa teknikoa egitea.</li> <li>- Entseguetan atzemandako arazoan eta gertakarien txostenak osatzea.</li> <li>- Antzeppen-espazioan laneko arriskuen prebentzioari eta segurtasunari lotutako neurri guztiak betetzen direla egiaztatzea:</li> <li>- Proiektua sustatzeko jarduerak osatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prentsa-dossierra osatzea.</li> <li>• Estreinaldiaren aurrerapena.</li> <li>• Hedabidetan publizitate-espazioak sartzea.</li> <li>• Prentsari zuzendutako deialdia.</li> <li>• Harreman publikoen ekintzak (egiaztapenak eta deialdiak).</li> <li>• Elementu grafikoaren produkzioa.</li> <li>• Antzeppen-esparruan sustapen-elementuak kokatzea.</li> </ul> </li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunetan eta ekitalditan entseguak antolatzea eta kudeatzea.</li> <li>- Dokumentazio-motak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Artistei zuzendutako deiak.</li> <li>• Teknikarientzako lan-aginduak.</li> <li>• Akreditazioak eta deialdiak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Agintariak.</li> <li>○ Kanpoko langileak.</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>- Antzezlekuan laneko arriskuen prebentzioa eta segurtasuna: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Larrialdi-plana.</li> <li>• Medikuzerbitzuak edukitzea.</li> <li>• Segurtasun publikoa eta pribatua.</li> </ul> </li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Langileentzako eta artistentzako ekipoen egoera.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamendu-aldaketetara egokitzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzea.</li> </ul>

### 5. EKITALDIKO, MUSIKAKO EDO ARTE ESZENIKOETAKO PROIEKTU BATEN PRODUKZIOAN ESKU HARTZEN DUTEN ALDERDI GUZTIAK IXTEKO PROZEDURAK

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektu baten administrazio-itxierako prozesuak planifikatzea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hornitzaileei, teknikariei, artistei eta kontratatutako parte-hartzaileei ordaintzeko aginduak.</li> <li>• Jasotako diru-laguntzen emaitza.</li> <li>• Ordezkapenen diru-sarreraren justifikazio ekonomikoa.</li> <li>• Gizarte Segurantzako kotizazioak.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten finantza-itxierarako beharrezko kudeaketak gauzatzea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hornitzaileei ordaintzeke zeuden zorrak ordaintzea.</li> <li>• Kobratzeke dauden kobrantzak fakturatzea.</li> <li>• Sarreraren eta gastuen arteko balantzea egitea.</li> <li>• Memoria ekonomikoan jasotako ondorioa.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuaren itxiera fiskala eta zergari lotutakoa kudeatzea.</li> <li>- Helburuak zein neurritaraino bete diren adieraziko duen aurreikuspenen eta emaitzen arteko alderatze-balantzea sortzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunen edo ekitaldien administrazio-itxiera.</li> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuen finantza-itxiera.</li> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektuaren itxiera fiskala eta zergari lotutakoa:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• BEZ.</li> <li>• PFEZ.</li> <li>• Langileen Gizarte Segurantzaren likidazioa.</li> <li>• Enpresa-mozkinen aitorpena.</li> </ul> </li> <li>- Lan baten prestaketan, muntaian, entsegutan, estreinaldian eta biran sortutako proiektuaren dokumentazioa artxibatzea.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabideak zorrotz kudeatzea.</li> <li>- Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.</li> </ul>

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu honetan garatzen dituzte baliabideen kudeaketari eta produkzioaren, sustapenaren, hedapenaren eta komertzializazioaren kontrolari buruzko funtzioak, zuzeneko ikuskizunen produkzio-prozesuaren barruan eta, zehazki, ekitaldietako, musikako eta arte eszenikoetako proiektuen produkzioko azpiprozesuan. Era horretan, tituluaren lanbide-profila osatzen duten funtzioei erantzuten die.

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen sekuentziazioa has daiteke ekitaldiko, musikako edo arte eszenikotako proiektu baten produkzio-prozesuan esku hartzen duten giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta logistikoak kudeatuz, aukeratuz eta kontratatuz. Horrenbestez,

bere aurkezpenean kontuan hartuko dituzte **1. multzoko** edukiak, produkzio-plana kudeatzeko teknikak, eta enbalatzeak, garraioa, karga/deskarga eta biltegiatzea bezalako muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuen ezaugarriak.

Produkzio-planaren kudeaketa-teknikak, eta muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuen ezaugarriak ezagutu ondoren, egokia dirudi teknikarien, artisten eta gonbidatuen kudeaketa-sistemaren diseinuari buruzko **2. multzoko** edukiak garatzea. Ildo horretatik, buruzagitzako, motibazioko eta negoziazioko teknikak, jarduera-planen jarraipen-teknikak, eta sektorearen kontratu-baldintzak betetzeko kontrol-teknikak aztertuko litzukete.

Proiektuen kudeaketaren ezagutzarekin jarraituz, sekuentziazioan kontuan hartuko dituzte **3. multzoan** jasotako beharrezko prozedura administratiboei eta finantzarioei buruzko alderdiak. Bertan ezagutuko dituzte ekitaldirako edo ikuskizunerako aseguru-motak eta hauen ezaugarriak, eta errentagarritasun ekonomikoko balioztatze-irizpideak. Horren haritik, alderdi praktikoa garatu beharko litzateke, ikuskizunei eta ekitaldiei aplikatutako kontabilitatea osatuz eta, bestetik, dagokion proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa balioztatzeko adierazleak osatuz, eta kudeaketako aplikazio informatikoen erabilera ahaztu gabe.

Ondoren, aurreko multzoko prozedura bera jarraituz, lehendabizi, bideratzen dituzten dokumentazio-moten eta entseguen antolakuntzarekin eta kudeaketarekin lotuta, **4. multzoko** edukiak azalduko dituzte. Era horretan, prozedurazko alderdia garatu ahal izango dute, hala nola, antolakuntza-prozesu honetan sortzen den edozein motatako dokumentazio osatzea, eta antzezpenerako espazioan laneko arriskuen prebentzioa eta segurtasuna egiaztatzea. Azkenik, proiektua sustatzeko beharrezko jarduerak (prentsa-dossiera, publizitatea kudeatzea, prentsa-deialdiak, elementu grafikoak produzitzea, eta abar) garatu ahal izango dituzte.

Sekuentziazioaren amaieran, eta **5. multzoan** jasotzen duten moduan, proiektu baten produkzioan esku hartzen duten alderdi guztiak ixteko prozedurak garatuko dituzte. Moduluak prozedurazko balioa duenez, praktikak eta frogaketak egiteko gomendatzen dute, hala nola, finantzako eta administrazioko itxiera-prozesuak, eta itxiera fiskalaren eta zerga-itxieraren kudeaketa. Prozedura osatuko dute aurreikusitako eta lortutako emaitzen arteko alderatze-balantzea sortuz, deskribapen-memoria batean azalduko ondorioekin.

Multzoen sekuentzia-ordena honek koherentea dirudi ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa egokia ezagutzeko. Horrela, ikasleek edukiak ezagutuko dituzte eta, ondoren, multzoetan bildutako prozedurak aplikatuko dituzte.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien proiektuen produkzioaren kudeaketa-teknikak garatzen dituzte. Beraz, irakasleek ikaskuntza teorikoak azalduko dituzte kudeaketa-teknikak identifikatzeko, eta era honetako prozedura batean sortzen diren eta erabiltzen dituzten dokumentazio-motak eta -ezaugarriak identifikatzeko. Kontzeptuak identifikatu ondoren, ikasleak prozedura bidez garatuko ditu, lehen aipatutako dokumentuak kudeatzeko eta osatzeko.

Irakasleek banakako jarraipena egingo dute ikasleek eskuratutako trebetasuna ikusteko, aurrera egiten ari direla egiaztatzeko eta ikuskizun- eta ekitaldi-proiektua kudeatzeko behar den gaitasuna eskuratzen dutela ikusteko.



Proiektu bat ondo kudeatzeko ezinbestekoa da talde-lana. Horregatik, teknikarien, artisten eta gonbidatuen kudeaketa-sistemaren diseinuan ikasleek buruzagitzako, motibazioko eta negoziazioko teknikak aplikatuz jardungo dute, eta jardueren planen jarraipen-teknikak landuko dituzte. Teknika horiek lan-taldean antolatze eta koordinatzeko prozedurak garatzen lagunduko dute; horrela, edozein antolakuntza-mota planifikatzeaz gain, ikasleek proiektua sustatzera (prentsa-deialdiak, harreman publikotako ekintzak, elementu grafikoaren produkzioa, eta abar) zuzendutako jarduerak osatzen lan egiten lagunduko dute.

Talde-lana sustatzeko, ikasleak proiektu baten produkzioaren kudeaketa-mota diferenteak lantzerantz bultzatuko dute irakasleek, hala nola, antzerkia, dantza, opera, kaleko kontzertuak, mitinak eta produktuen aurkezpenak. Era horretan, gelan bertan azaldu ahal izango dute, eta ikasleek beharrezko balioaniztasuna eskuratuko dute.

Modulu hau lantzean komeni da azaldutako jarduerak ziklo honetako **“Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza”** moduluarekin koordinatuz garatzea.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Zuzeneko ikuskizunaren edo ekitaldiaren muntaketaren produkzioa planifikatzea:
  - Jardueren diagramaren arabera garatu beharreko zereginak zehaztea.
  - Esku hartzen duten sail guztien artean garatu beharreko planen hedapena finkatzea.
  - Beharrezko eszenako materialen zerrenda xehatua osatzea.
  - Proiektuari dagokion dokumentazio guztia egiaztatzea.
- ✓ Laneko planaren produkzioa eta garapena gainbegiratzea:
  - Programatutako jarduerak betetzen direla egiaztatzea.
  - Teknikarientzako lan-aginduak planifikatzea.
  - Ikuskizunaren antzezpena planifikatzea.
  - Segurtasun-neurriak programatzea.
  - Proiektua, komunikazio-plana eta hedabideen plana sustatzeko jarduerak osatzea.
- ✓ Administrazio- eta finantza-prozesuak kudeatzea:
  - Ikuskizunari eta ekitaldiari aplikatutako kontabilitatea osatzea.
  - Sektoreko kudeaketako tresna informatikoak aplikatzea:
    - Sarreraren eta gastuen kudeaketa.
    - Aurrekontuen desbideratzeak antzematea.
    - Proiektuaren jarraipena eta kontrol ekonomikoa.
- ✓ Proiektuaren alderdi teknikoaren, logistikoaren, administratiboaren, ekonomikoaren eta fiskalen itxierarekin lotutako jarduerak kudeatzea:
  - Itxiera finantzarioa eta fiskala bideratzea, proiektuaren hasierako plangintza kontuan hartuz:
    - Ordainketa-aginduak Kontabilitate eta Administrazio Sailari bideratzea.
    - Antzezpenen bidezko diru-sarrerak eta jasotako diru-laguntzak justifikatzea.
    - Ordaintzeko dauden zorrak ordaintzea, kobratzeko dauden kobrantzak fakturatzea, eta sarreraren eta gastuen arteko balantzea.
    - BEZ, PFEZ, langileen gizarte-segurantzaren likidazioa kudeatzea, eta enpresa-mozkinak aitortzea.
  - Etorbizuneko proiektuak optimizatzen laguntzeko deskribapen-memoria batekin alderatzeko balantzea sortzea.

- ✓ Lanean jokabide-jarrerak edukitzea, eta jarduteko eta elkarri eragiteko moduak:
  - Taldeko pertsonekin modu eraginkorrean komunikatzea.
  - Komunikazioa argi, ordenatuta, egituratuta eta zehaztasunez transmititzea.
  - Iniziatibaz eta autonomiaz egoerak, arazoak edo kontingentziak konpontzea.

## 6. lanbide-modulua **6** ADIERAZPEN BALIABIDE IKUS ENTZUNEZKOAK ETA ESZENIKOAK

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Adierazpen-baliabide ikus-entzunezkoak eta eszenikoak</b>
Kodea:	0920
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	198 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	11
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua
Helburu orokorrak:	1.a / 16.a / 23.a

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ikus-entzunezko produktotan erabilitako adierazpen-baliabideak balioztatzen ditu, eta, horretarako, euren ezaugarri funtzionalak eta proiektuaren komunikazio-helburuak lortzea erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Genero-tipologia, komunikatzeko helburua eta ikus-entzunezko produktuen errealizazioan erabilitako adierazpeneko kodeak zehaztu ditu, haiek ikusi eta analizatu ondoren.
- Argazki-konposizioan eta ikus-entzunezko produktutan irudi finkoaren eta mugikorren ezaugarri adierazgarriak, eta euren ezaugarri plastikoak, funtzionalak, semantikoak eta teknikoak balioztatu ditu.
- Aukeratutako enkoadratzearen erabilera formalak eta adierazpenekoak, kamera-angeluak eta bere mugimenduek ikus-entzunezko egoerak konpontzeko sartzen dituzten komunikazio-arloko ondorioak balioztatu ditu.
- Irudiaren kontzeptu espazialen adierazpen- ea komunikazio-balioak erlazionatu ditu, hala nola, eremua, eremuz kanpoko, eta planoen barruko eta kanpoko mugimenduak, ikus-entzunezko kontaketa-interpretazioarekin.
- Ikuslearen aldetik, eszena enkoadratuen ulertzeko eta interpretatzeko konposizioko eta diseinuko forma batzuk edo besteak harteak dituen adierazpeneko ondorioak eta ondorio funtzionalak justifikatu ditu.

- f) Ikus-entzunezko eta irudi finkoko mezuetan manipulatzeko teknikak aplikatu izanaren komunikazio-ondorioak balioztatu ditu.

2. Ikus-entzunezko egoerak ebazten ditu, eta, horretarako, ikus-entzunezko lengoiaren teknika estandarizatuak aplikatzen ditu, eta ikus-entzunezko produkzio batean narrazioko jarraitutasuna eta jarraitutasun formala mantentzen bermatzen duten elementuak balioztatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikus-entzunezko kontaketei jarraipena (narratiboa, pertzepziokoa, formala, mugimendukoa, ekintzako eta zuzendaritzakoa, beste hainbat modutan) emateko teknikak zuzen edo oker aplikatzeko ondorioak baloratu ditu.
- Puntuazio-zeinuen eta efektuen narrazioko eta adierazpeneko funtzionaltasuna, eta hauek teknikoki ondo egitea, batetik, eta ikus-entzunezko produkzio batean mezua era ulergarrian transmititzea, bestetik, erlazionatu ditu.
- Subjektu baten mugimenduarekin, eta pertsonaia bat, bi edo gehiagoren hartzeekin, egoeren erabakian jarraitutasuna burutzeko teknikak aplikatu ditu.
- Ikus-entzunezko muntaketaren teoriaren eboluzio historikoan sortutako ekarpen azpimarragarrienak bereizi ditu.
- Denboraren, espazioaren, ideien edo edukiaren tratamenduen balorazioan oinarrituz, ikus-entzunezko produktu baten muntaian alternatiba posibleak justifikatu ditu.
- Ikus-entzunezko hainbat egoera ebazteko lengoiaren adierazpen-baliabideak aplikatuz sormeneko soluzioak ekarri ditu.

3. Ikus-entzunezko edo irrati-programako produktu baten soinu-banda diseinatzen du, eta, horretarako, soinu-lengoiaren adierazpen-baliabideak aplikatzen ditu, eta lengoia hori artikulatzeko eta konbinatzeko aukerak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikus-entzunezko edo irrati-ko produkzio baten soinu-banda osatzen erabilitako soinu-baliabideen balio funtzionala, adierazpenekoa eta komunikatzekoa zehaztu ditu.
- Zinema mutua zinema soinudunean eraldatzeko prozesuan soinu-osagaiak ekarri zituen ekarpen teknologikoak eta adierazpenekoak bereizi ditu.
- Ikus-entzunezko produkzio baten soinu-banda zehatu du, bere eraketan erabilitako soinu-lengoiaren baliabide espezifikoak sailkatzeko.
- Irrati-generoen egiturako eta adierazpeneko ezaugarriak eta ezaugarri funtzionalak bereizi ditu, irrati-kateen emankizun-zerrenden analisisian oinarrituz.
- Ikus-entzunezko produktu baten eta irrati-programa baten soinu-banda diseinatu du, produktu horren komunikatzeko baldintzei erantzunez.

4. Ikus-entzunezko lan bat eszenaratzearen ezaugarriak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, proiektuaren helburuen eta bere garai historikoaren arabera lan hori osatzen duten elementuen artean ezarritako erlazioak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikus-entzunezko lan bat eszenaratzea osatzen duten elementuek betetzen dituzten funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikatzekoak erlazionatu ditu.



- b) Ikus-entzunezko lan baten osagai eszenografikoaren egokitasuna ebaluatu du, bertako giropena, eta bertako dekorazioaren eta atrezzoaren osatzen duten elementuen azterketa oinarri gisa hartuz.
- c) Ikus-entzunezko lan batean bere kromatismoaren eta argiztapenaren aukeraketak eskaintzen duten komunikatzeko eta adierazpeneko helburuak lortzea baloratu du.
- d) Ikus-entzunezko lan bat eszenaratzean eragina duten jantziak, makillajea, karakterizazioa eta estilistikako beste elementu batzuk egokiak ote diren zehaztu du.
- e) Zinemako eta telebistako lan baten interpretazioan adierazpeneko eta komunikatzeko baliabide gisa erabilitako gorputz-lengoiaren eta keinuzko kodeen funtzioak bereizi ditu.
- f) Zinemak eta telebistak historikoki esperimendatutako adierazpeneko eboluzioa eta eboluzio teknikoak, batetik, eta eszenaratzea erabiltzeko gaur egungo moduak eta formak, bestetik, erlazionatu ditu.

5. Egitura narratiboa eta bere gaikako ideia aitortzean oinarrituz, ikus-entzunezko gidoi bat zehazten du, eta, horretarako, eraikuntza-prozesua eta erabilitako kodeen adierazpen-aukerak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko industrian erabiltzeko ikus-entzunezko gidoi-motak eta -formatuak bereizten dituzten ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Aurretik badagoen literatura-lan bat ikus-entzunezko gidoi batera egokitzeak sortutako zailtasunak, abantailak, ezaugarriak eta prozesuak baloratu ditu.
- c) Analizatu ondoren, fikzioko ikus-entzunezko gidoi baten egitura narratiboa eta gaikako ideia bereizi ditu.
- d) Sekuentzia dramatiko baten literaturako gidoia osatu du, fase estandarizatuak jarraituz: ideia, dokumentazioa, *story line*, argumentua eta tratamendua zehaztea.
- e) Zati bat literatura-gidoi batetik aterata sekuentzia dramatiko bat gidoi teknikoaren berezko egiturara eta storyboardera eraldatzeko prozesua burutu du.
- f) Gidoi bat errealizatzeko bideragarritasuna ebaluatu du, bere egitura analizatu eta aurrez zehaztutako produkzio-testuinguru batean dituen baliabideen beharra zehaztu ondoren.

6. Eszenako egoerak konpontzen ditu, eta, horretarako, ikuskizunaren eta ekitaldien lengoiako teknika estandarizatuak erabiltzen ditu, eta euren ezaugarri funtzionalak eta proiektuaren komunikatzeko helburuen lorpena erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktuaren tipologia, komunikatzeko asmoa, gaia, argumentua eta ikuskizunaren edo ekitaldiaren egitura dramatikoa, narratiboa edo komunikaziokoa zehaztu ditu, haien gidoia, liburua edo partitura analizatu ondoren.
- b) Lengoaia eszenikoak osatzen dituzten elementuen adierazpen-ezaugarriak, eta euren ezaugarri plastikoak, funtzionalak, semantikoak eta teknikoak baloratu ditu, ikuskizun edo ekitaldi analitiko abiaturik.
- c) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu bat abian jartzeko behar diren pertsonaien eta parte-hartzaileen ezaugarri tipologikoak eta deskribatzaileak definitu ditu.
- d) Interpretatzeko teknika diferenteak erabiltzeko aukerak balioztatu ditu, proiektuaren komunikatzeko helburuak lortzeko egokiena aukeratu arte.
- e) Gidoia, liburuaren edo partituraren analitiko abiaturik, jantzitegiaren, makillajearen eta karakterizazioaren ezaugarriak zehaztu ditu, ikuskizun- edo ekitaldi-proiektua eszenaratzeko.

- f) Libreto bateko sekuentzia dramatikoak gidoi teknikora egokitzekeo prozesu osoa garatu du.
- g) Multimediako ikuskizun edo ekitaldi batean produktu bat aurkezteko eskaleta sortzeko prozesu osoa garatu du.

7. Ikuskizun bat edo ekitaldi bat eszenaratzeko ezaugarriak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, antzeppenaren narrazioko eta adierazpeneko asmoak proiektuaren helburuekin eta garai historikoarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikuspegi historikoa eta garaikidea kontuan hartuz, ekitaldiekin eta arte eszenikoekin erlazionatutako eskola eta mugimendu artistiko eta profesional azpimarragarrienak bereizten dituzten ezaugarriak aipatu ditu.
- b) Ikuskizunek edo ekitaldiek eta arte eszenikoek historikoki esperimintatutako eboluzio teknikoak eta adierazpenekoak, eta eszenaratzeko zehazteko gaur egungo moduak eta formak erlazionatu ditu.
- c) Ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzeko osatzen duten elementuek betetzen dituzten funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikatzekoak zehaztu ditu.
- d) Ikuskizun bat eszenaratzeko ezaugarriak zehaztu ditu, bere testuinguru historikoa kontuan hartuz, eta proiektuaren dokumentazioaren irakurketan eta analisisian oinarrituz.
- e) Ikuskizun edo ekitaldi baten adierazpeneko eta komunikatzeko asmoa lortzeko argiztapen-elementuen eta -eskemen egokitasuna zehaztu du.
- f) Ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzeko esku hartzen duten musikako, soinuko, ikus-entzunezko edo beste edozein motatako elementuen ezaugarriak zehaztu ditu.
- g) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten agertokia janzteko materialak eta teknikak adierazi ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. IKUS ENTZUNEZKO PRODUKZIOTAN ERABILITAKO ADIERAZPEN BALIABIDEAK BALIOZTATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko produktuen errealizazioan genero-tipologia identifikatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produktuak ikustea eta analizatzea.</li> <li>- Komunikazio-ondorioak balioztatzea.</li> <li>- Irudiaren espazioko kontzeptuen adierazpen- eta komunikazio-balioa ikertzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko manipulazio-prozedurak erabiltzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produktuak identifikatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko generoak analizatzeko metodologia.</li> <li>- Mezuak sortzeko teknikak.</li> <li>- Agertokia zatitzeko teknikak.</li> <li>- Mugimendua ikus-entzunezko mezuak analizatzean eta eraikitzean.</li> <li>- Geografia iradokiak eraikitzea: eremua eta eremuz kanpo.</li> <li>- Komunikazio-intentzionalitatea eta adierazpen-kodeak.</li> <li>- Ikus-entzunezko produktuen errealizazioan aplikatutako konposizio-teknikak.</li> <li>- Irudiaren oinarrizko ezaugarriak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Terminologia teknikoak erabiltzen zehaztasuna.</li> <li>- Zorroztasuna irizpideak aplikatzean.</li> </ul>

## 2. IKUS ENTZUNEZKO EGOERAK KONPONTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarraitutasunaren mantentze-teknikak zuzen edo oker aplikatzearen ondorioak egiaztatzea.</li> <li>- Muntaiaren teknikak aplikatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produktu baten muntaiaren alternatiba posibleak identifikatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko egoerak identifikatzea.</li> <li>- Muntaiaren teknikak aplikatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko manipulazio-prozedurak aplikatzea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produktuen analisia egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko kontaketen jarraitutasuna:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• pertsonaia baten desplazamenduan.</li> <li>• subjektu estatiko baten edo biren hartualdietan.</li> <li>• bi, hiru edo pertsonaia gehiagoren hartualdietan.</li> </ul> </li> <li>- Ikus-entzunezko errealizazioko oinarriko teknikak.</li> <li>- Ikus-entzunezko muntaiaren historian ekarpen nagusiak.</li> <li>- Kontaktetan espazioa/denbora artikulatzea.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna irizpideak aplikatzean.</li> <li>- Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.</li> </ul>

## 3. SOINU BANDEN DISEINUA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabilitako soinu-baliabideen balio funtzionala, adierazkorra eta komunikaziokoa zehaztea.</li> <li>- Soinu-banda baten eraikuntzan erabilitako soinu-lengoiaren baliabide espezifikoak sailkatzea.</li> <li>- Soinu-banden eraikuntzan soinuaren espazio/denbora neurriak aplikatzea.</li> <li>- Irrati-generoen egiturazko ezaugarriak, adierazpeneko ezaugarriak eta ezaugarri funtzionalak bereiztea.</li> <li>- Ikus-entzunezko produktu baten eta irrati-programa baten soinu-banda errealizatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Soinuaren oinarri adierazkorak.</li> <li>- Soinu-banda eraikitze teknikak.</li> <li>- Irrati-programak errealizatzeko teknikak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irrati-generoak.</li> <li>• Puntuazio-zeinuak irratan: sintonia, gortina, segida eta musika-kolpea.</li> <li>• Irratiko gidoia eta eskaleta.</li> </ul> </li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.</li> <li>- Lana garatzean kalitatearekiko konpromisoa izatea.</li> </ul>

## 4. IKUS ENTZUNEZKO LANAK ESZENARATZEKO EZAUGARRIAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko lan baten eszenaratzea osatzen duten elementuek betetzen dituzten funtzio teknikoak,</li> </ul>
----------------	--

	<p>adierazpenekoak eta komunikatzekoak aplikatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere giropena eta bere dekorazioa eta atrezzoak osatzen duten elementuak aukeratzea.</li> <li>• Bere kromatismoa eta argiztapena aukeratzea.</li> <li>• Jantzitegia, makillajea, karakterizazioa eta estilistikako beste elementu batzuk aukeratzea.</li> <li>• Interpretazioan baliabide adierazgarri eta komunikazio-baliabide gisa erabilitako gorputz-lengoaia eta keinuen kodeak ikertzea.</li> </ul> <p>- Zinemak eta telebistak historikoki esperimentatutako adierazpeneko eboluzioa eta eboluzio teknikoak, batetik, eta eszenaratzea erabiltzeko gaur egungo moduak eta formak, bestetik, egiaztatzea.</p>
kontzeptuzkoak	<p>- Eszenaratzearen funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikaziokoak.</p> <p>- Teknika eszenografikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Argiztapena, giropena, dekorazioa, atrezzoak, makillajea, karakterizazioa eta ile-apainketa.</li> </ul> <p>- Keinuen kodeak interpretazioan.</p> <p>- Ingurunearen arabera eszenaratzearen antzekotasunak eta diferentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zinema, telebista, multimedia, bideo-jokoak edo <i>new media</i>.</li> </ul> <p>- Mugimendu zinematografikoen eta telebistaren eboluzio historikoa, eszenaratzeari dagokionean.</p>
jarrerazkoak	<p>- Terminologia teknikoak erabiltzen zehaztasuna.</p> <p>- Zorroztasuna irizpideak aplikatzean.</p>

## 5. IKUS ENTZUNEZKO GIDOIAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<p>- Aurretik badagoen literatura-lan bat ikus-entzunezko gidoi batera egokitzea sortutako zailtasunak, abantailak, ezaugarriak eta prozesuak identifikatzea eta kalkulatzea.</p> <p>- Analizatu ondoren, fikzioko ikus-entzunezko gidoi baten egitura narratiboa zehaztea.</p> <p>- Sekuentzia dramatiko baten literatura-gidoia osatzea.</p> <p>- Zati bat literatura-gidoi batetik aterata sekuentzia dramatiko bat gidoi teknikoaren berezko egiturara eta storyboardera egokitzea.</p>
kontzeptuzkoak	<p>- Ikus-entzunezko gidoi-motak eta -formatuak. Ezaugarri bereizgarriak.</p> <p>- Fikziozko ikus-entzunezko kontaketen narrazio-teknikak.</p> <p>- Literatura-gidoia: ideia, dokumentazioa, <i>story line</i>, argumentu-sinopsia eta tratamendua.</p> <p>- Literaturako gidotik gidoi teknikorara: plangintza.</p> <p>- <i>Storyboarda</i> eraikitzekeo teknikak.</p>
jarrerazkoak	<p>- Autonomia, garbitasuna eta argitasuna krokisak prestatzean eta esleitutako lanak aurkeztean.</p> <p>- Terminologia teknikoak erabiltzen zehaztasuna.</p>



## 6. AGERTOKIKO EGOERAK EBAZTEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizun edo ekitaldi baten ezaugarri tipologikoak eta deskribapenekoak identifikatzea.</li> <li>- Proiektu bat abian jartzeko behar diren parte-hartzaileak eta pertsonaiak zehaztea.</li> <li>- Libreto bateko sekuentzia dramatikoak gidoi teknikora egokitzeko prozesu osoa burutzea.</li> <li>- Eskaleta osatzea.</li> <li>- Testuak egokitzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunen eta ekitaldien tipologia.</li> <li>- Keinu-kodeen eta elementu estilistikoaren funtzioak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jantzitegia, makillajea, karakterizazioa eta ile-apainketa.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizunetan eta ekitaldietan erabilitako gidoen, eskaleten, liburuen eta partituren ezaugarriak.</li> <li>- Testuak egokitzea.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autonomia, garbitasuna eta argitasuna krokisak prestatzean eta esleitutako lanak aurkeztean.</li> <li>- Terminologia teknikoaren erabiltzen zehaztasuna.</li> </ul>

## 7. EKITALDI EDO IKUSKIZUN BAT ESZENARATZEKO EZAUGARRIAK EBALUATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eszenikoekin lotutako eskola eta mugimendu artistiko eta profesional azpimarragarrienak ikertzea.</li> <li>- Ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzea osatzen duten elementuek betetzen dituzten funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikatzekoak identifikatzea.</li> <li>- Ikuskizun bat eszenaratzeko ezaugarriak identifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuinguru historikoa, nahitakotasun adierazgarria eta komunikatiboa.</li> <li>• Musika, soinu, ikus-entzunezko edo beste edozein motatako elementuen ezaugarriak.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten agertokia jantzeko materialak eta teknikak aukeratzea eta erabiltzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunen eta ekitaldien eboluzio historikoa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola eta mugimendu artistiko eta profesionalak.</li> <li>• Agertokiak.</li> </ul> </li> <li>- Lengoaiaren eszenikoa.</li> <li>- Musikaren, soinuen, ikus-entzunezkoen eta beste elementu batzuen funtzioak.</li> <li>- Eszena-jantzia.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autonomia, garbitasuna eta argitasuna krokisak prestatzean eta esleitutako lanak aurkeztean.</li> <li>- Terminologia teknikoaren erabiltzen zehaztasuna.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Lanbide-modulu honen bitartez, ezagutzaren beharrari erantzuten diote. Ezagutza hori ezinbestekoa da zinema, bideo, telebista, multimedia, arte eszeniko, musika-produkzio eta, orokorrean, ekitaldien produkzioetan ikus-entzunezko lengoaiaren eta lengoia eszenikoaren funtzioak aplikatzeko.

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen sekuentziazioa has daiteke Ikus-entzunezko produktotan erabilitako adierazpen-baliabideak balioztatuz, eta, horretarako, euren ezaugarri funtzionalak eta proiektuaren komunikazio-helburuak lortzea erlazionatzen dituzte. Horretarako, kontuan hartuko dituzte **1. multzoko** edukiak, generoaren tipologia identifikatzeari dagokionean, komunikatzeko intentzioari eta ikus-entzunezko produktuen errealizazioan erabilitako adierazpeneko kodeak, bere errealizatorako konposizio-teknikak, mezuen sorrera eta ikus-entzunezko manipulazio-prozedurak.

Ondoren, kontakizunetan narrazio-jarraitutasuna mantentzeko ikus-entzunezko egoerak konpontzeari eta espazio/denboraren artikulazioari buruzko **2. multzoko** edukiak garatu daitezke. Kasu horretan, jarraitutasun narratiboa, pertzepziozkoa, formala, mugimendukoa, ekintzakoa eta zuzendaritzakoa mantentzeko teknika estandarizatuak aztertuko dituzte. Halaber, Ikus-entzunezko muntaketaren teorien eboluzio historikoan sortutako ekarpen azpimarragarrienak bereiziko dituzte.

Muntatzeko teknika nagusiak ezagututa, **3. multzoko** edukiak landu daitezke. Bertan, ikasleek ikus-entzunezko produktu baten edo irrati-programa baten soinu-banda diseinatzen ikasiko dute, soinu-lengoaiaren baliabide adierazgarriak aplikatuz, eta artikulatzeko eta konbinatzeko dituzten aukerak erlazionatuz.

Ikus-entzunezko lan baten funtzio teknikoak, adierazgarriak eta komunikaziokoak bilduta, **4. multzoko** edukiak aztertuko dituzte. Bertan, ikus-entzunezko lan bat eszenaratzeko ezaugarriak ikasiko dituzte, proiektuaren asmoen arabera lana osatzen duten elementuen artean ezarritako erlazioak (girotzea, dekorazioa eta atrezzoak, kromatismoa eta argiztapena...) analizatuz.

Eszenaratzearen eta narrazioaren ezaugarriak aztertuta, **5. multzoan** adierazitakoarekin jarrai dezakete. Bertan, ikus-entzunezko gidoi baten bideragarritasuna zehazten dute, bere egitura narratiboa eta gaiari buruzko ideia ezagutu ondoren eta bertan oinarrituz, eta eraikuntza-prozesua bere aukera adierazgarriekin erlazionatuz. Horretarako, ikus-entzunezko industrian erabilitako ikus-entzunezko gidoi-motak eta -formatuak bereizten dituzten ezaugarriak zehaztuko dituzte.

Eraikuntza-prozesuarekin jarraituz, **6. multzoko** edukiak azter ditzakete eta agertokiko egoerek konponketa azter dezakete, ikuskizunaren lengoaiaren teknika estandarizatuak aplikatuz, euren ezaugarri funtzionalak proiektuaren komunikatzeko helburuak lortzarekin erlazionatuz, eta ikuskizunen tipologia, gidoiaren ezaugarriak, eskaletak, interpretatzeko keinu-kodeen funtzioak, eta karakterizazioa eta bere elementu estilistikoak aztertuz.

Azkenik, eszenaratzearen ezaugarriak ebalua daitezke, antzezpenaren narrazio-intentzionalitatea eta intentzionalitate adierazgarria proiektuaren helburuekin eta bere garai historikoarekin erlazionatuz. Era horretan, eskolen eboluzio historikoa, ikuskizunen

eta ekitaldien mugimenduak, eszenografiako elementuen balio adierazgarriak analizatu ahal izango dituzte, **7. multzoan** adierazten den bezala.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan zuzeneko ikuskizunetan eta ekitalditan ikus-entzunezko lengoaiaren eta lengoia eszenikoaren funtzioak aplikatzeko ezinbesteko ezagutza lantzen dute. Beraz, irakasleek ikaskuntza teorikoak azalduko dituzte adierazpeneko teknikak eta lengoia eszenikoko teknikak, eta mota honetako prozedura batean erabiltzen dituzten eta sortzen dituzten baliabide-motak eta -ezaugarriak identifikatzeko. Kontzeptuak identifikatu ondoren, ikasleek, prozedurazko moduan, aurretik aipatutako baliabideen analisia garatuko dute.

Halaber, ikaskuntza batez ere praktikoak garatuko dituzte, eta, horretarako, soinu-banden diseinu-multzoetan aipatutako irudi, bideo, soinu eta infografiako softwarea, eta narrazio-jarraitutasuna mantentzeko muntaiaren teknika estandarizatuak eta gidoiak landuko dituzte. Irakasleak prozedurazko eskolak garatuko ditu, eta espero dituen helburuen arabera emaitzak lortzeko taldeen gainean jardungo du.

Irakasleek banakako jarraipena egingo dute ikasleek eskuratutako trebetasuna ikusteko, eta aurrera egiten ari direla eta behar den gaitasuna eskuratzen dutela egiaztatzeko.

Proiektuak taldetan lantzea ezinbestekoa da modulu honen prozedurazko izaera berresteko. Horrela, ikasleek proiektu eszenikoen adierazpeneko eta eszenaratzeko teknikak landu ditzaten laguntza emango diete irakasleek. Teknika horiek irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerekin lotuta daude, haien egitura narratiboan eta gaiaren inguruko ideian oinarrituz. Bertan, eraikuntza-prozesua eta ekitaldi hauen aukera adierazgarriak erlazionatzen dituzte.

Talde-lana sustatzeko, batera egindako lanen bitartez, ikasleek ikuskizun-mota diferenteak analiza ditzaten bultzatuko dute, hala nola, antzerkia, dantza, opera, kaleko kontzertuak, mitinak eta produktuen aurkezpenak. Era horretan, gelan bertan azaldu ahal izango dute, eta ikasleek beharrezko balioaniztasuna eskuratuko dute.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓

- ✓ Ikus-entzunezko produktiotan erabilitako adierazpen-baliabideak balioztatzea:
  - Ikus-entzunezko produktuen errealizazioan genero-tipologia identifikatzea.
  - Ikus-entzunezko produktuak ikustea eta analizatzea.
  - Irudiaren oinarritzko ezaugarriak identifikatzea.
  - Mezuak sortzeko teknikak identifikatzea.
  - Komunikazio-ondorioak balioztatzea.
  - Irudiaren espazioko kontzeptuen adierazpen- eta komunikazio-balioa erlazionatzea.
- ✓ Ikus-entzunezko lanak eszenaratzeko ezaugarriak ebaluatzea:
  - Bere giropena eta bere dekorazioa eta atrezzoak osatzen duten elementuak aztertzea.
  - Zinemak eta telebistak historikoki esperimintatutako adierazpeneko eboluzioa eta eboluzio teknikoak, batetik, eta eszenaratzeko erabiltzeko gaur egungo moduak eta formak, bestetik, erlazionatzea.
  - Teknika eszenografikoak analizatzea: Argiztapena, giropena, dekorazioa, atrezzoak, makillajea, karakterizazioa eta ile-apainketa.

- ✓ Ikus-entzunezko gidoiak zehaztea:
  - Lan baten egokitzapenak eragiten dituen prozesuak, ezaugarriak, abantailak eta zailtasunak balioztatzea.
  - Ikus-entzunezko gidoi baten egitura narratiboa karakterizatzea.
  - Sekuentzia dramatiko baten literatura-gidoia eratzea.
  - Ikus-entzunezko gidoi-motak eta -formatuak aplikatzea.
  - Teknika narratiboak aplikatzea.
  
- ✓ Agertokiko egoerak ebaztea:
  - Ikuskizun edo ekitaldi baten ezaugarri tipologikoak eta deskribapenekoak definitzea.
  - Libreto bateko sekuentzia dramatikoa gidoi teknikora egokitzeko prozesu osoa garatzea.
  - Eskaleta osatzea.

## 7. lanbide-modulua

## 7

## BITARTEKO TEKNIKO IKUS ENTZUNEZKOAK ETA ESZENIKOAK

## a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Bitarteko tekniko ikus-entzunezkoak eta eszenikoak</b>
Kodea:	0910
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua
Helburu orokorrak:	2.a / 6.a / 10.a / 15.a

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen proiektutan erabili behar dituzten argi- eta eszenoteknia-ekipoen baldintza teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta eragileak analizatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Emisio-teknologiarekin, fotometriarekin, kolorimetriarekin, argi-sorta motarekin, tentsioarekin, potentziarekin eta argi-eraginkortasunarekin lotutako ikuskizuneko, agertokiko eta ikus-entzunezko hainbat proiektutan beharrezkoak diren iturri naturalen, gorien, fluoreszenteen eta deskargakoen ezaugarriak ebaluatu ditu.
- Ikuskizunetako, eszenako eta ikus-entzunezko proiektutan, kokaguneen, eszenen, dekoratuen, aurkezleen, gonbidatuen, ikusleen eta antzezleen gainean, argiteriaren efektuak alderatu eta definitu ditu zuzeneko argi, argi errefraktatu, argi islatu eta argi modularreko tresna finkoekin zein robotizatuekin.
- Potentziari, fase elektrikoei, kable-sekzioei, konektoreei, koadro elektrikoei eta lineen banaketari dagokienez multzo elektrogeno edo elektrizitate-hartuneko aukerak definitu ditu, ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen proiektutan.
- Telebistako, antzezteko eta ikuskizunetako proiektutarako mahai-argien eta dimmer-en konfigurazio diferentek zehaztu ditu, bertan sartutako argi-materialaren, eta adierazpeneko eta dramatikako asmoen arabera.
- Ikuskizunetako, eszenako eta ikus-entzunezko proiektutan erabilitako argi-aparatu moten gainean, kolore efektuen iragazkien, eta kolore-tenperaturako bihurkarien, neutroen eta barreatzaileen erabilera zehaztu du.

- f) Ikuskizun, eszena, telebista eta zinematografiako hainbat proiektutara egokitutako eszena-makineria eta elementu eszenografiakoak definitu ditu.

2. Ikus-entzunezko proiektutan erabiliko dituzten telebistako, bideoke eta zinemako irudiak jasotzeko ekipamenduaren ezaugarri teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta operatiboak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Helburuen parametro teknikoak eta enkoadraketaren elementu morfologikoen gainean dituzten efektuak erlazionatu ditu.
- b) Ikus-entzunezko grabazio edo filmazio-motetarako egokiak diren pelikula fotokimikoan, zinta magnetikoan, disko optikoetan, memoria-txarteletan eta disko gogorretan erregistroko alternatibak justifikatu ditu.
- c) Segundoko irudiei, esplorazioari, definizioari, itxura-erlazioari eta formatuari dagokienean bideoan eta zineman proiektu diferenteetarako egokiak izango diren kameran ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Ikus-entzunezko proiektuekin eta hauen argiztatze-baldintzekin lotuta, bisore-doikuntzak, matrize digitaleko doikuntzak, beltzen maila, buxadura-denborak, kolore-tenperaturetara moldagarritasuna eta argi-sentsibilitateari dagokionean, kameran gaitasunak ebaluatu ditu.
- e) Kamerek eskaintzen dituzten denbora-kodeen aukerak, kamera batekin edo gehiagorekin grabaziotan denbora-kodeen erregistro-metodoak, eta ondoren egingo dituzten laborategiko eta postprodukzioko prozesuak erlazionatu ditu.
- f) Kameran klipen katalogazio eta kudeaketa digitaleko aukerak ebaluatu ditu.
- g) Kameran edo audioko ekipo espezifiktan soinua jasotzeko baldintzak definitu ditu, eta kameran kanpoko sarrerak eta bere mikrofonoen monitorizatzeko, kontrolatzeko eta doitzeko beharrak zehaztu ditu.
- h) Filmaketa edo grabazioko baldintzekin lotuta, kamera-euskarriak ebaluatu ditu, eta kamera-mugimenduen oinarri narratibo eta estetikoekin erlazionatu ditu.

3. Ikus-entzunezko proiektuetan, antzezpenetan, ikuskizunetan, musika-grabaziotan eta irrati-programetan soinu egokiko ekipamenduaren ezaugarri teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta operatiboak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dramatikako eta komunikazioko asmoen, soinuak jasotzeko edo zabaltzeko ekipamenduaren eta espazioen ezaugarri akustikoen arabera, ikuskizunen eta ikus-entzunezko proiektutan beharrezko osagaien eta mikrofonoen ezaugarri teknikoak definitu ditu.
- b) Ikuskizunen eta ikus-entzunezko proiektutan erabiliko dituzten audioko erregistroko eta grabazioko ekipoen eta bozgorailuen, potentzia-etapen, banagailuen, amplifikadoreen, nahaste-mahaien, informatikako ekipoen, erreprodukzio-ekipoen eta mikrofonoen baldintzen arabera, kable- eta konektore-mota diferenteekin audio-lineen beharrak justifikatu ditu.
- c) Zinematografiako filmaketetan eta ikus-entzunezko grabaziotan zuzeneko soinu-erregistroko ekipoen eta audio-mahaien konfigurazio diferenteak egokiak direla justifikatu du.
- d) Telebistako zuzeneko programetan eta grabaziotan amplifikazio-ekipoen eta audio-mahaien, zuzeneko ikuskizunen eta antzezpenen beharrak zehaztu ditu, estudioen, aretoen eta hainbat espazioen baldintza akustikoak kontuan hartuz.
- e) Musikako, bikoizketako eta soinu-efektutako estudiantako grabaziotan, audio-ekipamenduko konfigurazioen zehaztapen teknikoak eta ezaugarri operatiboak definitu ditu.



- f) Irrati-programetarako eta musika-grabazioko proiektutarako, irrati-estudioko eta grabazio-estudioko konfigurazioen egokitasuna justifikatu du.

4. Errealizazio-kontrolako baliabide teknikoaren konfigurazioa zehazten du, eta, horretarako, telebista-programetan multikamerako hainbat estrategiatara egokitzen du, eta bere ezaugarri funtzionalak eta eragileak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarraitutasuneko kontrolaren eta unitate mugikorren, telebistako platoa eta errealizazio-kontrolaren konexioen eta ekipoen diagrama justifikatu ditu.
- b) Bideo-nahasgailuen eta hauen gaitasunen ezaugarriak ebaluatu ditu, sarrerako lineak aukeratzeko eragiketegi, sinkronizazioari, oinarritzko busei eta osagarriei, trantsizioei, inkrustazioei, DSKri eta efektu digitalei dagokienean.
- c) Telebistako programetan audio-mahaiaren sarrerako lineen beharrak, eta kontrolean eta estudioan mahai horretatik hainbat lekutara egindako bidalketak definitu ditu.
- d) Errealizazioko postuen, kameren, kudeaketaren, audio-mahaiaren, bideo-erreproduktorearen eta -grabazioaren, kameren kontrolaren, argi-kontrolaren, grafismoaren eta kanpoko konexioen arteko komunikazio-eskema diseinatu du.
- e) Bideo eta audioko euskarrien eta formatuen aukeraketa justifikatu du, bai eta audio segi bideo motako, eta bideo eta audio kapsulatuko teknologiena ere.
- f) Kameren eta euren kontrol-unitateen espezifikazioak ebaluatu ditu, eta hainbat programa grabatuta eta zuzeneko emisiotan irudien doikuntza-eragiletak justifikatu ditu.
- g) Eszenografia birtualeko sistemen gaitasun teknikoak, eta kamerekin eta irudi-nahasgailuarekin duten lotura zehaztu ditu.

5. Edizio, grafismo, animazio, efektu, soinu-zatze, formatu-aldaketa eta amaierako prozesuen baldintzen arabera, ikus-entzunezko proiektutan postproduktzioeko ekipamendua zehazten du, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta eraginkorrak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Postproduktzioeko ekipamenduaren ezaugarri eragileak eta espezifikazio teknikoak, batetik, eta zinema, bideo eta telebistako proiektutan muntatze- eta edizio-metodologiak diferentek, bestetik, erlazionatu ditu.
- b) Muntatzeko eta postproduktzio hainbat proiektutan edizio linealaren eta edizio ez-linealaren egokitasuna justifikatu du.
- c) Edizio ez-linealeko ekipa baten multzoen diagrama eta edizio-sistema, bere periferikoak, sareetara eta zerbitzarietara konexioa, magnetoskopiorekin edo beste erreproduktore, grabagailu eta matrize batzuekin konexioak diseinatu ditu, jasotzeko edo digitalizatzeko, editatzeko eta helburu duen euskarrira iraultzeko prozesuen eraginkortasuna ziurtatuz.
- d) Ikus-entzunezko proiektuak banatzeko euskarrietan eta edizio-prozesuan erabili behar dituzten erakusketa-estandarrei, fotograma nagusiei, audio- eta bideo-codecei, bit-tasei, konprimatze-estandarrei, kuantifikazioei, laginketa-maiztasunei, ustiapenari, formatuei eta grabazioko euskarriei dagokienean, edizio-proiektuko erabakiak justifikatu ditu.
- e) Postproduktzio-prozesuaren amaieran entregatuko dituzten materialen aukera teknikoak finkatu ditu, ikus-entzunezko hainbat proiektutan banatzeko kanaletarako, laborategitarako eta beste enpresa batzuetarako offline eta online grabazioak eta edizio-erabakien zerrendak barne hartuz.
- f) Editore ez-linealen gaitasunak eta postproduktzio proiektuen exigentziak erlazionatu ditu, proiektu-aukerei, formatu diferentek onartzei, audio- eta bideo-pistei, trantsizioei, efektuei, sinkronizatzeko eta orekatzeko gaitasunei, prozesatze-

denborei, errotulazioko eta integrazioko ahalmenei dagokienean, grafismoko, konposizio bertikaleko eta 3Dko aplikazioekin.

- g) Ikus-entzunezko proiektuak soinuatzeko prozesutan beharrezkoak diren audioko postprodukzio-aplikazioak eta ekipamenduko ezaugarriak ezarri ditu.
- h) Telebistako albistegitako funtziotara egokitutako albisteak editatzeko sistema birtualen aukera teknikoak eta operatiboak zehaztu ditu.

6. Multimedia-proiektutan ekipamendu teknikoaren egokitasuna definitzen du, eta, horretarako, bere espezifikazioak ebaluatzen ditu, eta proiektuen beharrek eta ingurunearen errekerimenduekin lotuta bere gaitasunak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesadoreei, memoriari, disko gogorrari, grabatzeko eta erreproduzitzeko unitate optikoei, txartel grafikoari, pantailari eta periferikoei dagokienean, multimediako proiektutarako informatikako ekipoen zehaztapenak definitu ditu.
- b) Informatikako ekipoak sarean konfiguratzeko beharrak, zerbitzaria/bezeroak erlazioak, biltegitratzeko eta segurtasuneko kopiarako metodoak, eta, funtzioen arabera, multimedia-proiektuko kideentzako baimenen protokoloak zehaztu ditu.
- c) Irudien tratamenduko aplikazioen gaitasun teknikoak eta eragileak, bektore-ilustrazioa, 2D animazioa, 3D animazioa eta modelatzea, diseinu interaktiboa, web diseinua, bideo-edizioa eta egilea justifikatu ditu, hainbat proiektu interaktiborekin, ikus-entzunezko web-diseinukoekin, bideo-jokoetakoekin, eta DVDn egiletasunekoekin eta beste euskarri batzuekin erlazionatuz.
- d) Multimediako hainbat proiektutara egokituta, bideo-erreproduktoreen, audio-lineen, mikrofonoen, eskanerren eta argazki-kameren bitartez eskuratutako baliabideetarako, irudi, audio eta bideoko artxiboko formatu eta aukera zehatzak erabiltzea justifikatu du.
- e) Eskuragarritasun-maila diferenteko erabiltzaileen beharrak eta ustiapen-baliabideen exigentzia teknikoak zehaztu ditu, eta multimedia-aplikazioen irteera-aukerak haietara egokitu dira.

7. Edozein euskarri edo sistema bidez emitituko edo banatuko dituzten ikus-entzunezko eta multimediako programen ezaugarri interaktiboak, multikanalak eta multimediak, eta aukera teknikoak definitzen ditu, eta, horretarako, haien ezaugarri teknikoak aztertzen ditu eta aukerak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) LTD, IPTV, satellite, kable, *streaming*, *podcast* eta telefonia mugikor bidez emango dituzten telebistako programak konfiguratzeko aukerak eta zerbitzu teknikoak definitu ditu, euren parametroen arabera.
- b) Emisio analogiko, DAB irrati digitaleko estandar, LTD, *streaming*, *podcast* eta telefonia mugikor bidez emango dituzten irrati-programen aukera teknikoak justifikatu ditu, sistema bakoitza definitzeko parametro teknikoak betetzeari dagokionean.
- c) *set-top-box*, deskodegailu interaktibo, telefono-linea, SMS, Internet edo kable bidez telebista interaktiboko programetan itzulera-kanaleko beharrak eta euren aukera teknikoak justifikatu ditu.
- d) Euskarri-motari, edukierari, bideo-formatuei, audio eta bideo kodifikazioari-deskodifikazioari, biten tasari, eskualdeei eta bateragarritasunari dagokienean, euskarri digitalen bitartez hedatu behar dituzten ikus-entzunezko produktuak konfiguratzeko aukerak zehaztu ditu, bai eta egiletzako eta nabigazioko baldintzak ere.
- e) Euskarri digitalen bitartez zabalduko dituzten musika-produktuen konfigurazio-aukerak justifikatu ditu, euskarri-motari, modulazioari, laginketa-maiztasunari,



kuantifikazioari, seinale-zarata erlazioari, maila dinamikoari, grafikoei eta menu interaktiboei dagokienean.

- f) Internet, LTD, telefonia mugikor eta euskarri digitalen bitartez hainbat plataformatarako zabalduko dituzten bideo-joko eta proiektu interaktiboen ezaugarri teknikoak finkatu ditu.

### c) Oinarrizko edukiak:

#### 1. IKUSKIZUNETAN ETA IKUS ENTZUTEZKO HEDABIDETAN BEHARREZKOAK DIREN ARGITERIAKO ETA ESZENOTEKNIAKO EKIPOEN BALDINTZA TEKNIKOAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Argi-iturri naturalen eta artifizialen neurketa fotometrikoak.</li> <li>- Argi-iturri naturalen eta artifizialen kolore-tenperaturaren neurketak.</li> <li>- Ikuskizunak eta ikus-entzunezko hedabideak argitzeko instalaziotan konfigurazio elektrikoak eta diagramak interpretatzea.</li> <li>- LED, fluoreszentsia, deskarga, goritasun-lanparak eta ikus-entzunezkoak argitzeko iturrien katalogoen interpretazio teknikoak.</li> <li>- Eszenoteknia eta argitzeko softwarea ebaluatzea.</li> <li>- Eszenako makineria konfiguratzea eta funtzionatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Argiaren fisika. Argi-iturri naturalen eta artifizialen kolore-tenperaturak.</li> <li>- Kolorimetria: magnitudeak eta neurtzeko tresnak.</li> <li>- Fotometria: magnitudeak eta neurtzeko tresnak.</li> <li>- Argiaren adierazpen-kalitatea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Argi zuzena.</li> <li>• Argi errefraktatua.</li> <li>• Argi islatua.</li> </ul> </li> <li>- Kolore-tenperaturako bihurketak: iragazkien bitarteko doikuntzak.</li> <li>- Ikuskizunetan eta ikus-entzunezko hedabidetan argi-instalaziotarako elektrizitate aplikatua.</li> <li>- Fluoreszentsia, deskarga eta inkandeszentziako lanparak eta ikus-entzunezkoak argitzeko iturriak.</li> <li>- LED teknologia argiterian.</li> <li>- Ikuskizunetarako eta ikus-entzunezko hedabidetarako argiteria-ekipoak: sorta irekiko proiektoreak, lentedun proiektoreak, argi arineko islagailuak, tresna modularrak eta robotizatuak.</li> <li>- Eszenoteknia eta antzerki-arkitektura.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuaren espezifikazioak ikustea.</li> <li>- Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa.</li> <li>- Terminologia teknikoa erabiltzen zehaztasuna.</li> </ul>

#### 2. ZINEMAN, BIDEOAN ETA TELEBISTAN IRUDIA JASOTZEKO EKIPOEN EZAUGARRI TEKNIKOAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zineman eta bideoan erabilitako foku-distantzien errendimenduari buruzko dokumentazio teknikoa analizatzea.</li> <li>- Bideo digitaleko erregistro-sistemen ezaugarri teknikoak zenbatzea.</li> <li>- Bideokamera baten eskuliburuaren ezaugarri teknikoak interpretatzea.</li> <li>- Zine-kamera baten eskuliburuaren ezaugarri teknikoak interpretatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zinemako eta bideoko helburuak: motak, parametroak eta osagarriak.</li> </ul>

	<p>Ikus-entzunezko produktiotan erabilitako helburuen ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Foku-distantziak.</li> <li>• Optikaren eta enkoadraketaren arteko erlazioa.</li> <li>• Ereku-sakontasuna.</li> <li>• Ereku-sakontasunean eragiten duten faktoreak (irekiera, milimetrajea, eta fokatze-distantzia).</li> </ul> <p>- Irudia jasotzeko teknologietarako erregistro-euskarri egokiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideoa: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Formatuak: Movie (MOV), AVI, MPEGs.</li> <li>○ Txartelen tipologia: SD / SDHC, P2, Flash...</li> </ul> </li> <li>• Zinema: ASA sentsibilitatea eta kolore-tenperaturak.</li> </ul> <p>- Erregistro-ekipoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideokameren ezaugarri teknikoak eta errendimendua.</li> <li>• Zine-kameren ezaugarri teknikoak.</li> </ul> <p>- Zine-kameren eta bideokameren euskarriak. Eskuzko kamerarako osagarriak, <i>steadycam</i>, <i>bodycam</i> eta antzekoak.</p> <p>- Elementu osagarriak: travelling, dollies, lumak, garabiak eta buru beroak.</p> <p>- Kamera-sistema robotizatuak.</p>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuaren espezifikazioak ikustea.</li> <li>- Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa.</li> <li>- Terminologia teknikoa erabiltzen zehaztasuna.</li> </ul>

3. IKUS ENTZUNEZKO HEDABIDETAN, IRRATIAN ETA IKUSKIZUNETAN SOINU EGOKIKO EKIPAMENDUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mikrofono-mota diferenteekin soinua jasotzeko probak egitea.</li> <li>- Ikus-entzunezko, irrati eta ikuskizunetako proiektutan, ingurune ezaugarri akustikoen edo nahi den emaitzaren arabera mikrofonoak aukeratzea.</li> <li>- Ikus-entzunezkoetarako, ikuskizunetarako eta irratiarako audio-mahai analogikoekin eta digitalekin oinarritako eragiketak egitea.</li> <li>- Telebistako eta irratiako estudiantarako eta agertokitarako anplifikazioa eta lineak konfiguratzeko.</li> <li>- DVD-RAM, disko gogor edo memoria-txartelean audio-grabagailuen ezaugarri teknikoak analizatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Audio-seinalearen parametroen unitateak eta neurriak.</li> <li>- Seinalea modulatzeko (AM, FM, PCM, eta abar)</li> <li>- Audio-seinalea grabatzeko eta gordetzeko formatuak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Digitala.</li> <li>• Analogikoa.</li> </ul> </li> <li>- Ikus-entzunezko, irrati eta ikuskizunetako proiektutan soinua jasotzeko mikrofonoen ezaugarri tekniko orokorrak.</li> <li>- Ikus-entzunezkoetarako, ikuskizunetarako eta irratiarako audio-mahai analogikoen eta digitalen zerbitzu teknikoak. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ateak.</li> <li>• Erreberberadoreak.</li> <li>• Ekualizadoreak.</li> <li>• Ekipoen sinkronizagailuak.</li> </ul> </li> <li>- Telebistako estudiantan, grabazio-estudiantan, irratian, ikuskizunetan eta espazio eszenikotan audioa anplifikatzea.</li> <li>- Zinematografiako eta ikus-entzunezko zuzeneko soinurako, musika-</li> </ul>



	<p>grabaziotarako, eta telebistako eta irratiko programetarako audioko erregistro digitaleko ekipoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irrati-estudioen eta grabazio-estudioen konfigurazioaren ezaugarriak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuaren espezifikazioak ikustea.</li> <li>- Azalerraten diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa.</li> <li>- Terminologia teknikoa erabiltzen zehaztasuna.</li> </ul>

**4. TELEBISTAKO JARRAITUTASUN KONTROLA, UNITATE MUGIKORRA ETA ERREALIZAZIO KONTROLEKO BALIABIDE TEKNIKOEN KONFIGURAZIOA ZEHAZTEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errealizazioko kontrol-sistema bateko ekipoen eskuliburu teknikoak interpretatzea: bideo-nahasgailuak, sinkronismo-sorgailuak, matrizeak edo bideoko <i>patch-pannel</i> aurreselektoreak, kamerak eta kameraren kontrol-unitateak, bideo-erreproduktoreak eta grabagailuak, titulazailak, <i>autocue</i> sistemak eta eszenografia birtualeko sistemak.</li> <li>- Errealizazioko kontrol-sistema bateko ekipoen artean konektatzeko multzo-diagramen interpretazio teknikoa.</li> <li>- Jarraitutasuneko sistema informatikoaren eta ekipoen arteko lotura.</li> <li>- Kamera baten elementu teknikoaren konfigurazioa eta doikuntza:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• TBko estudioan.</li> <li>• Emankizunean.</li> </ul> </li> <li>- CCU bidez seinalea egiaztatzea eta doitzea.</li> <li>- Baliabide teknikoaren artean konexioak egitea, nahi dugun konfigurazioaren arabera, eta ondo funtzionatzen duela eta seinalea ondo jasotzen dela egiaztatuz.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nahasgailuen ezaugarri teknikoak, sinkronismo-generadoreak, <i>patch-pannel</i>, bideo-aurreselektoreak, kamerak eta CCUk, magnetoskopia, tituladoreak, <i>autocue</i> sistemak eta eszenografia birtualeko sistemak.</li> <li>- Telebistako jarraitutasun-kontrolerako audio- eta bideo-ekipamendua.</li> <li>- Emanaldietan eta estudioan telebista-kameraren ezaugarri teknikoak. Zuri-balantzea, beltz-balantzea, tenperatura-iragazkiak, NDak, audioko eta bideoko puntako seinaleak, esposizioa konpentsatzeko sistemak...</li> <li>- Kameraren kontrol-unitateen eta kontrol eragileen ezaugarri teknikoak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuaren espezifikazioak ikustea.</li> <li>- TBko eta bideoko seinalearen erreferentziako neurri zuzentzaileen aplikazioan zorrotasuna.</li> <li>- Teknologia berriak ikertzeko interesa.</li> </ul>

**5. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUTAN POSTPRODUKZIO EKIPAMENDUA ZEHAZTEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Magnetoskopia digitalen ezaugarri eragileen interpretazio teknikoa.</li> <li>- Bideo-lineen editoreen ezaugarri eragileen interpretazio teknikoa.</li> <li>- Postprodukzio-gela ez-linealen konfigurazioak analizatzea.</li> <li>- Edizio ez-linealeko proiektuko konfigurazioak analizatzea.</li> <li>- Edizio ez-linealeko proiektuaren iteerako konfigurazioak analizatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Magnetoskopia digitalen ezaugarri teknikoak eta eragileak.</li> <li>- Bideoko editore linealen ezaugarri teknikoak eta eragileak.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Postprodukzio ez-linealeko gelen ekipamendua.</li> <li>- Edizio ez-linealeko aplikazioen ezaugarri teknikoak eta eragileak.</li> <li>- Zinematografiako eta ikus-entzunezko postprodukzio-proiektutan edizio linealaren eta edizio ez-linealaren egokitasuna zehazteko faktoreak.</li> <li>- Albisteak idazteko eta editatzeko sistema birtualen ezaugarri teknikoak eta eragileak.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuen espezifikazioak ikustea.</li> <li>- Ekipoen eboluzio teknikorako interesa.</li> </ul>

<b>6. MULTIMEDIA PROIEKTUTAN EKIPAMENDU TEKNIKOAREN EGOKITASUNA DEFINITZEA</b>	
<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Multimedia-produkzioko <i>software</i>en ezaugarriak eta prestazioak ebaluatzea.</li> <li>- Multimedia-proiektuaren eragiketa teknikoak baldintzatzen dituzten helburuko baliabideen ezaugarriak analizatzea: pantaila-tamainak, audioko eta bideo bideoko baldintzatzaileak, bideo- eta audio-formatuak, eta irisgarritasuneko eta erabilerako baldintzak.</li> <li>- Multimedia-produkziorako ekipoen sistema bat konfiguratzeko.</li> <li>- Multimedia-produktu bat sortzeko faseak analizatzea, <i>hardware</i> eta <i>software</i> beharrak antzemanez.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Multimedia produkzioarako ekipamendu informatikoaren ezaugarri teknikoak.</li> <li>- Biltegitratzeko sistemak: tipologia eta zerbitzuak.</li> <li>- <i>Sarrerako eta irteerako Hardwarea</i>: eskanerren zerbitzuak, tableta grafikoak eta inprimagailuak.</li> <li>- Multimedia-proiektutarako egokiak diren bideo, audio eta irudiko artxibo-formatuak.</li> <li>- Multimedia-produktuak sortzeko egile-tresna bereziak.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalerrak diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa.</li> <li>- Multimedia-produkzioan ekipo eta konfigurazio egokiak ikertzeko jakin-mina.</li> </ul>

<b>7. MULTIMEDIAKO ETA IKUS ENTZUNEZKO PROGRAMEN AUKERA TEKNIKOEN, ETA MULTIMEDIA ETA MULTIKANAL EZAUGARRIEN ETA EZAUGARRI INTERAKTIBOEN DEFINIZIOA</b>	
<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideo-seinalea deskribatzea eta analizatzea.</li> <li>- Seinale analogikoen eta digitalen arteko diferentziak analizatzea.</li> <li>- TBko sistemak deskribatzea eta analizatzea.</li> <li>- Neurtzeko tresnak erabiliz, seinaleak neurtzea eta interpretatzea.</li> <li>- A/D eta D/A bihurketa analizatzea.</li> <li>- TB digitalean erabilitako arauak sailkatzea.</li> <li>- TBko seinale digitalak transmititzeko moduak deskribatzea.</li> <li>- A/D irradian maiztasun-bandak eta modulazioa analizatzea.</li> <li>- CD eta DVD audioari buruzko audiorako formatuen propietateak baloratzea.</li> <li>- DVD eta Blue-rayri buruz bideoarako formatuen propietateak baloratzea.</li> <li>- Emititzen ari den audio-seinale baten parametro teknikoak</li> </ul>



	(modulazioa, laginketa-maiztasuna, kuantifikazioa, seinale-zarata erlazioa, maila dinamikoa) aukeratzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Telebista-sistemak. PAL kodifikazioa eta sistema.</li> <li>- Telebista-estandarrek definizio estandarrean eta emisio-formatuak LTD, IPTV, satelite, kable eta mugikortasun bidez.</li> <li>- Bereizmen handirako gaur egungo sistemak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Definitutako arau teknikoak: Estatu Batuetakoa (ATSC), europarra (DVB-T) eta japoniarra (ISDB-T)</li> </ul> </li> <li>- HD eta Full HD. Bereizmen handiko parametroak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bereizmenak.</li> <li>• Ekortze-dualtasuna.</li> <li>• Frame-maiztasuna.</li> <li>• Itxura-erlazioa.</li> <li>• Konektagarritasuna. DVI edo HDMI.</li> </ul> </li> <li>- Audio- eta bideo-formatuak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• DVDa.</li> <li>• Blu-ray</li> </ul> </li> <li>- Bideo-seinale analogikoen eta digitalen ezaugarriak.</li> <li>- Irudiak digitalizatzea. Irudiak konprimitzea.</li> <li>- Telebista interaktiboa: baliabideak, estandarrek, deskodegailu interaktiboak eta itzulera-kanalak.</li> <li>- Seinaleak transmititzea, jasotzea eta hedatzea.</li> <li>- Modulazioa, maiztasun-bandak eta irrati analogikoko eta digitaleko estandarrek.</li> <li>- Telefonia mugikorrean irrati interaktiboko teknologiak eta hargailuak.</li> <li>- Ikus-entzunezko eta musikako produktuak banatzeko euskarri digitalak.</li> <li>- Interneten <i>streaming</i> eta <i>podcast</i> hedapena, audiorako eta ikus-entzunezko hedabidetarako.</li> <li>- Internet, LTD, telefonia mugikor eta euskarri digitalen bidez interaktiboaren hedapenaren ezaugarriak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa.</li> <li>- Eskuliburu teknikoen espezifikazioak ikustea.</li> </ul>

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Modulu hau bi atal nagusitan egitura daiteke, hots, irudiari dagozkionak eta audioari dagozkionak. Bi kasuetan, ekipamendu-azterketa analogikoa eta digitala ezar daitezke sekuentziazioan. Bi atal horiek garatzean multzo diferentetako edukiak txandaka daitezke, ikuskizunen eta ikus-entzunezko proiektutara egokitutako ekipamenduen gaineko lan tekniko posiblei koherentzia emateko helburuarekin.

Irudiaren atala:

Hasteko, egokia da **1. multzoan** aurkituko ditugun espektro elektromagnetikoaren eta argiaren fisikaren ezaugarriei buruzko azalpena egitea. Aldez aurreko kontsiderazio honi esker argiztapen-irudiei, kolore-tenperaturari, neurketa fotometrikoei, eta ikus-entzunezko

eta eszenografiako testuinguruei aplikatutako konfigurazioei buruzko edukiak garatu ditzakegu.

Ondoren, **2. multzoan** aipatzen diren irudi-erregistroko ekipoen edukiak garatzea egokia dirudi. Ezaugarri teknikoan azterlana zinemako, bideo- eta telebistako kaptazio-ekipoen lotuta egongo da. Hala ere, teknologia digitalaren garapena kontuan hartuz, egokia dirudi bideo- eta TBko kamerak ezagutzeari garrantzi handiagoa ematea.

Jarraian, **7. multzoan** lantzen diren bideo-seinale analogikoa eta digitala, eta telebistako estandarrak aztertu behar dira. Horrela, neurri-tresnekin seinalea interpreta daiteke eta, behar denean, seinale hori zuzendu daiteke.

Bideo-seinalearen kontrola seinale-tratamenduko ekipoetan landu eta alda daiteke, grabatzen hasi aurretik. Eduki horiek **4. multzoan** eta **5. multzoan** biltzen dira. **4. multzoan** telebistako errealizazio baten berezko jarduerak garatuko dituzte, kameran eta CCUen, sinkronismoen generadoreen, bideo-nahasgailuen, *patch-panel* bidezko interkonexioen, titulatzailen, *autocue* eta eszenografia birtualeko sistemen gainean jardunez. **5. multzoan** bideo- edizio-gela baten postproduktioari buruzko edukiak gara daitezke, sarrerako eta irteerako konfigurazioak, errendimendu teknikoak eta edizio-moduak aipatuz. Bi multzoen edukiak elkarrekin garatu daitezke. Puntu honetan, **2. multzoa** eta **7. multzoa** har daitezke, erregistro-euskarriei, formatu-motei eta hedatzeko modu berriei buruzko edukiak elkartzeko.

Audio-atala:

Audioari buruzko erreferentziak homogeenagoak izan daitezke 3. multzoan bateratzen badituzte. Bertan, soinu-baliabideen ezaugarri teknikoak definitzen dituzte. Soinuaren izaerari eta bere neurtzeko unitateei buruzko ikuspegi globala emanez hasia komeni da.

Aurrerago landuko diren unitatetan, mikrofonoen ezaugarri teknikoak baloratu ahal izango dituzte, seinale-tratamenduko ekipoak dituzten audio-mahaiekin jardungo dute, eta grabatzeko euskarri diferentek landuko dituzte.

Ikuskizunen barrutitan, irrati-estudiotan eta ikus-entzunezko baliabideei (postproduktio- gelak eta telebistako errealizazio-kontrol- gelak) aplikatutakoetan erabilitako berezko soinu-baliabideen berezitasunak bereizi beharko lirateke. Audioko eduki horiek ere beste multzo batzuetan biltzen dira, hala nola, **4. multzoan** eta **7. multzoan**, baina **3. multzoaren** hedapen gisa landu daitezke.

Azkenik, **6. multzoan** bideoaren eta audioaren baldintza teknikoak ebaluatzeko eta multimedia-proiektutara egokitze- aukera egongo litzateke. Irudiko, audioko eta bideo- formatuak erabiltzeaz gain, ikasleak gai izango dira mota honetako produktio baterako beharrezko *hardwarea* eta *softwarea* zehazteko.

## 2) Alderdi metodologikoak

“**Bitarteko tekniko ikus-entzunezkoak eta eszenikoak**” moduluaren bitartez zeharkako prozedurazko ezagutzaren beharrari erantzuten zaio; ezinbestekoa, ikus-entzunezko eta ikuskizunetako programen errealizazio-prozeduren azpian dauden oinarri teknologikoak definitzeko. Bertako edukietan irudiaren eraketari eta ikuspegiari eta kolorea jasotzeko buruzko prozesu fisikoak azaltzen dituzte; halaber, entzute-prozesua azaltzen dute. Horiek guztiak irudiak eta soinuak jasotzeko, erreproduzitzeko eta transmititzeko baliabideen diseinu teknikoarekin erlazionatzen dituzte.

Horrenbestez, moduluaren helburuak lortzea ahalbidetzen duten ikaskuntzako jarduerak honako arlo hauekin lotuta daude: bideo- eta zinemako kameran sistema optikoen eta

objektiboen aukeraketa, telebistako estudioen instalazio teknikoaren krokisa osatzea, telebistako jarraitutasun-kontrolen eta unitate mugikorren funtzionamendua, multimedia programetan informatikako ekipamendua eta postprodukzioko sistemak aukeratzea, edizio-postprodukzioko instalazioen krokisa osatzea, eta ikuskizunen, irratia eta ikus-entzunezko baliabideen prozesuen askotariko tipologia bat erabakitze argiztapeneko eta soinuko konfigurazioak aukeratzea.

Oinarrizko printzipio gisa, modulua azaltzean planifikatutako hainbat ekintza gauzatu behar dituzte helburu zehatz batzuekin. Ekintza horiek ikaskuntzaren garapena ebaluatzen lagundu behar dute, eta ikasleei laneko egoera zehatzei erantzuteko ahalmena eman behar diete. Zeharkako ezagutzaren aplikazioa egiaztatze, beste modulu batzuen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuetan ikasleek lortutako emaitzak eta iritziak hartu ahal izango dituzte kontuan.

Metodologia didaktiko gisa, irakaslearen azalpenak maila kontzeptualean eta enpirikoan problemak analizatzeko eta ebazteko jarduerekin osatuko dituzte, ikasleek heziketa sendoa eta heldua ziurtatzeko helburuarekin. Horren haritik, programazioan landutako eta aipatutako ikaskuntzako jardueretan sakonduko dituzten edukiei buruzko alderdiak ikertuko dituzten lan-taldeak eratu ahal izango dituzte. Irakaslearekin koordinatutako metodologia aktibo honek ezagutza eguneratzeko ohitura dinamikoak sortzen ditu, eta etengabeko berrikuntza teknologikoari errazago aurre egiten eta onartzen laguntzen du.

Era berean, ikaskuntza bultzatuko duten eta ebaluazio-tresna gisa erabili ahal izango dituzten kasu praktikoak gauzatzea, eta ikus-entzunezko proiektutara eta ikuskizunetara egokitutako ekipamenduko proiektu teknikoak edo *riderrak* definitzeko proiektuak gauzatzea gomendatzen dute. Hala, ikasleak eta, oro har, taldeak zein aurrerabide egiten duten jakiteaz gain, gabeziak antzeman eta neurri zuzentzaileak hartu ahal izango dira.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Musika-girotea burutzea:
  - Musika-paisaia klasikotan eta modernotan.
  - Programa-tipologiaren arabera: kirolekoa, entretenimendukoa, informatiboa edo publizitatekoa, besteak beste.
- ✓ Argi-iturriak analizatzea eta argiztapen-ekipoak aukeratzea:
  - Unitate fotometrikoak zerrendatzea:
    - Unitateen arteko erlazioa.
    - Iturri naturalen eta artifizialen neurketa.
  - Eszenaren kolore-tenperaturaren eta erregistro-baliabidearen arteko egokitze-metodoak definitzea.
  - Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako argi-iturriak, argi-mahaiak eta dimmerrak konfiguratzea, proiektuaren premia termokolorimetrik eta adierazpenekoak kontuan hartuz.
  - Argiztapen-ekipoen eskuliburuak interpretatzea.
- ✓ Jasotzeko eta erregistratzeko ekipoen ezaugarri teknikoak ebaluatzea:
  - Honakoen dokumentazio teknikoa aztertzea:
    - Foku-distantziak.
    - bideo eta zinemako kameraren ezaugarriak: formatua, itxura-erlazioa, definizioa, azterketa eta segundoko irudiak, argi-sentsibilitatea, irabazia, kolore-tenperaturetara egokigarritasuna, buxatze-denborak, beltzen maila eta doikuntzak matrize digitalean, denboren kodea eta soinua jasotzea.
    - bideo digitalaren erregistro-euskarriak: pelikula fotokimikoa, zinta magnetikoa, disko optikoak, memoria-txartelak eta disko gogorrak.

- ✓ Bideo- eta telebista-seinalearen analisisa:
  - Bideo-seinalearen ezaugarririk garrantzizkoenak adieraztea.
    - Bideo-seinalea osatzen duten elementuen egitura eta maila normalizatuak adieraztea.
    - Laginketa digitala.
    - Konprimitze-sistemak.
  - TBko emisio-sistemak eta modulazio-modu diferenteak alderatzea.
  - Neurketa-ekipoekin jardutea eta bideo-seinalea zuzentzea.
  
- ✓ TBko errealizazioko eta edizio-postprodukzioko kontrolean ekipoen konfigurazioaren definizioa:
  - Telebistako errealizazioaren kontrol-sistema baten konexioan esku hartzen duten ekipoen eskuliburu teknikoaren interpretazioa.
  - Edizioko (lineala eta ez-lineala) eta postprodukzioko gelen konexioan esku hartzen duten ekipoen eskuliburu teknikoaren interpretazioa.
  - Konektatzeko zerbitzuen eta multzoen diagramen interpretazio teknikoak:
    - Errealizazioko postuen, kameren, kudeaketaren, audio-mahaiaren, bideo-erreprodukzioaren eta -grabazioaren, kameren kontrolaren, argi-kontrolaren, grafismoaren eta kanpoko konexioen arteko komunikazio-eskema.
  
- ✓ Multimedia-proiektutako ekipamendu teknikoaren zehaztea:
  - Informatikako ekipoen sareko konfigurazioaren analisisa: zerbitzaria/bezeroak erlazioak, segurtasun-kopiak biltegitratzea eta multimedia-proiektuko kideentzako baimenak.
  - Multimediako hainbat proiektutarako *hardwarea* eta *softwarea* zehaztea:
    - Irudien tratamendua, bektore-ilustrazioa, 2D animazioa, 3D animazioa eta modelatzea, diseinu interaktiboa, web diseinua, bideo-edizioa eta egilea justifikatu ditu, hainbat proiektu interaktiborekin, ikus-entzunezko web-diseinukoekin, bideo-jokoetakoekin, eta DVDn egiletasunekoekin erlazionatuz.
    - Multimedia-proiektutarako bideo, audio eta irudiko formatuen eta helmuga-baliabideen ezaugarriak.
  
- ✓ Soinu-baliabideen ezaugarri teknikoaren definizioa:
  - Audio-seinalearen neurketa-unitateen analisisa.
  - Honako elementu hauen errendimenduari buruzko zehaztapen teknikoaren balorazioa:
    - Mikrofonoak.
    - ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako nahaste-mahaiak.
    - Seinalea tratatzeko ekipoak.
    - Grabagailuak.
  - Audio-ekipoen eskuliburu teknikoaren interpretazioa, eta irratiko eta grabazioko estudiantan konektatzea.



## 8. lanbide-modulua 8

**IKUS ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN ADMINISTRAZIOA ETA SUSTAPENA**

## a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen administrazioa eta sustapena</b>
Kodea:	0921
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	200 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	11
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua
Helburu orokorrak:	4.a / 5.a / 6.a / 8.a / 9.a / 11.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen proiektuaren administrazioan aplikatu behar den lege-araudia ebaluatzen du, eta, horretarako, produktu-motaren eta bere produkzio-fasearen arabera gauzatu behar dituzten kudeaketak balioztatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Garatuko duten ikus-entzunezko produktuari edo ikuskizunari aplikatzeko lege-araudiaren eta erregulazio juridikoaren ezaugarri espezifikoak zehaztu ditu.
- Proiektuaren produkzio-fasearen, lanaren –jatorrizkoa edo egokitua– izaeraren, eta aurreikuspen komertzialen arabera, garatuko duten ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren jabetza intelektualaren kudeaketaren berezko izapidetzeak zehaztu ditu.
- Copyleft eta Creative Commons aldagaiaren bitartez ikus-entzunezko lan edo ikuskizun baten egile-eskubideak administratzeko jarraitu beharreko izapidetzeak definitu ditu.
- Lege-gordailuaren kudeaketaren berezko bideratzeak zehaztu ditu, ikus-entzunezko produktu baten eta ikuskizun baten administrazioan eta garapenean eragiten duten araudiaren gako-alderdiekin bat etorritz.
- Ikus-entzunezko lan baten edo ikuskizun baten ondoriozko azpiproduktuen edo merchandising-en kudeaketaren berezko izapidetzeak zehaztu ditu, Marken legearen araudiaren gako-alderdien arabera.

- f) Ikus-entzunezko lan bat edo ikuskizun bat produzitzeko laguntzak jasotzeko deialdi publikotan sartzeko beharrezko errekerimenduak, prozedurak eta dokumentuak zehaztu ditu.
- g) Ikus-entzunezko proiektu baten edo ikuskizun baten ezaugarrien, eta horiek ustiatzeko aukeren arabera, diru-laguntza publikoen bidez lor ditzaketen finantzatzeko eta amortizatzeko diru-kopuruak kalkulatzeko aurreikuspen ekonomikoa egin du.
- h) Ikus-entzunezko lan batean edo ikuskizun batean ohorearen, intimitatearen eta norberaren irudiaren eskubideari buruzko lege-araudia betetzen dela bermatzeko burutu behar dituzten kudeaketak zehaztu ditu.

2. Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen produkzioan esku hartzen duten giza talde teknikoaren eta artistikoen kontratuen ezaugarriak balioztatzen ditu, eta, horretarako, kontratuen tipologia eta sektorearen lan-baldintzak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten ebazpenean aplika daitezkeen kontratuen baldintza espezifikoak, kontratazio-modalitatea eta tipologia zehaztu ditu, proiektuaren ezaugarrien eta aurrekontuen muga arabera.
- b) Ikuskizunaren eta ikus-entzunezko sektorearen jardura profesionala erregulatzen duten hitzarmen kolektiboen klausula orokorrak eta ezaugarriak hartu dituzte kontuan, proiektuaren ebazpenean aplikatu ahal izateko.
- c) Lanpostuaren eta dokumentu ofizialetan aplika daitezkeen lengoaiaren eta estiloaren berezko baldintzen arabera, lan-kontratuen klausulak idazteko dauden aukera desberdinak balioztatu ditu.
- d) Emaiza ekonomikoak hobetzeko eta bi aldeentzako hitzarmen onena bermatzeko, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten ebazpenean planteatutako kontratu-baldintzen alternatibak proposatu ditu.
- e) Kudeaketako prozesu estandarizatuen arabera, erakunde ofizialen aurrean kontratu-dokumentua balioztatzeko, formalizatzeko eta bideratzeko prozedura zehaztu du.

3. Ondasun, zerbitzu eta ekipamendu logistikoz hornitzeko kontratuen ezaugarriak balioztatu ditu, eta, horretarako, sektorearen eskaintza komertziala produkzioaren premiekin erlazionatu du, eta akordioak ixteko erabilitako negoziazio-teknikak zehaztu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten ebazpenean aplika daitezkeen alokairu, salerosketa, *leasing* eta *renting* kontratu-motak eta -baldintzak aukeratu ditu, baliabide bakoitzaren premia espezifikoaren balorazioan oinarrituz.
- b) Hornikuntza-motaren, proiektuaren ezaugarrien eta aurrekontuen muga arabera, ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktura egokitutako kontratazio-modalitatea aukeratu du.
- c) Hornikuntzaren berezko baldintzen arabera eta dokumentu ofizialetan aplika daitezkeen lengoaia eta estiloa jarraituz, alokairu, salerosketa, *leasing* edo *renting* bidezko kontratuaren klausulak idazteko dauden aukerak balioztatu ditu.
- d) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat ebazteko beharrezko hornitzaileak azpikontratatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- e) Emaiza ekonomikoak hobetzeko eta bi aldeentzako hitzarmen onena lortzeko, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat ebazteko planteatutako kontratu-baldintzen aukera alternatiboen posibilitateak balioztatu ditu.
- f) Proiektu baten kontratuak ebazteko erabili behar dituzten negoziazio-teknika eraginkorrenen ezaugarriak zehaztu ditu, ikuskizunen eta ikus-entzunezko enpresan akordio-mota eta -estilo arruntenak kontuan hartuz.

4. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen proiektua ekonomikoki, kontabilitatearen ikuspegitik eta fisikoki administratzen du, eta, horretarako, sektorearen berezko aldagaiak eta eskatutako dokumentazio espezifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen produkzioko ereduako enpresa bati egotzi dakizkikeen ustiapen-kostuen ezaugarriak zehaztu ditu, bertako jardueren analisisian eta bere emaitzen kontuan oinarrituz.
- b) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat administratzeko beharrezko bankuekin eta kutzako eragiketen ezaugarriak zehaztu ditu, bere datu ekonomikoen ezagutzan eta kontrastean oinarrituz.
- c) Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen proiektuaren ezaugarrien arabera, gastuaren kontrolerako eta jarraipenerako sistemak hartu izanaren alde onak eta txarrak balioztatu ditu, obligazio eta konpromiso ekonomikoen eta fakturazio-aurreikuspenen arabera.
- d) Indarrean dagoen araudiak markatutako baldintzen eta egitura estandarraren arabera, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten balantze ekonomikoa eta emaitzen kontua kalkulatu ditu.
- e) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen produkzio-enpresa baten egutegi fiskala eta horri lotutako obligazioak planifikatu ditu.
- f) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen enpresa baten kudeaketa fiskaleko dokumentazioa formalizatu du, inprimaki ofizialek eta araudiak ezarritako jarraibideen arabera.

5. Ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktuaren ustiapen komertziala planifikatzen du, eta, horretarako, banaketa-sareen eta -kanalen ezaugarriak, eta merkatuaren egituraketa deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktu baten ustiapen-kanalak zehaztu ditu, produktuaren berezko ezaugarriak eta itxaropen komertzialak kontuan hartuz.
- b) Ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktu bat banatzeko eta erakusteko kontratuen klausulak idatzi ditu, produktuaren berezko ezaugarriak kontuan hartuz eta sektorearen egituraketarekin bat etorrituz.
- c) Ikus-entzunezkoen proiektu baten ebazpenean Espainiako eta Batasuneko zinema zabaltzea sustatzeko dauden laguntza posibleak aplikatu ditu, zinemari eta telebistan erakusteko duen eragina balioztatuz.
- d) Ikuskizun-proiektu baten ebazpenari ikuskizunaren kultura sustatzeko dauden laguntza posibleak aplikatu dizkio, antzezpenen eta txarteldegi bidezko diru-sarreretan izango duen eragina balioztatuz.
- e) Ikuskizuna edo ikus-entzunezko lan bat aurkezteko ikuskizuneko eta ikus-entzunezko merkatu, jaialdi, erakusketa eta lehiaketa aproposak aukeratu ditu, produktuaren izaera, eta finkatutako ustiapeneko eta merkataritzako helburuak kontuan hartuz.
- f) Ikuskizun edo ikus-entzunezko lan baten ustiapen komertziala planifikatu du, badauden erakusteko eta banatzeko kanalen arabera, eta produkzioa errentagarri egiteko baldintza ekonomiko abantailatsuenekin.
- g) Produktu-motaren arabera banatzeko eta erakusteko sareen bitartez, ikuskizun edo ikus-entzunezko lan baten amortizazioa kalkulatu du, ustiapen komertzialerako aukerak kontuan hartuz,

6. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen proiektua sustatzeko plana osatzen du, eta, horretarako, produktu-motaren arabera sustatzeko teknikak eta estrategiak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Tipologiaren eta ezaugarrien arabera, ikus-entzunezko produktu edo ikuskizun baten sustapenean aplika daitezkeen marketineko elementuak definitu ditu.
- Produktu bat ustiatzeko marketineko plana osatu du, ikus-entzunezko produktuaren edo ikuskizunaren, eta hauen kontsumitzaileen edo merkatuaren berezko ezaugarriak kontuan hartuz.
- Ikus-entzunezko produktua edo ikuskizuna ustiatzean jarraitu behar dituzten sustapen-estrategiak zehaztu ditu, kanpainaren helburuen, irismenaren eta eragin posiblearen arabera.
- Ikus-entzunezko produktuaren edo ikuskizunaren publizitate-kanpaina egin du erabilitako euskarrietan eta baliabidetan, finkatutako sustapen-helburuak jarraituz.
- Sustapenaren aurrekontuaren eta helburu den merkatuaren edo jendearen arabera, publizitate-kanpaina abian jartzeko garatu behar den baliabideen plana egin du.
- Ikuskizunaren edo ikus-entzunezko proiektuaren izaeraren eta irismenaren arabera, publizitate-kanpainan garatuko duten harreman publikoen estrategia bereizi du.
- Finkatutako baliabideen planaren, publizitate-kanpainaren eta *marketin*-planaren balorazioan oinarrituz sustapen-gastua kalkulatu du.

### c) Oinarrizko edukiak:

1. IKUS ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN PROIEKTUAREN ADMINISTRAZIOAN LEGEZKO ARAUDIA EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Garatuko duten ikus-entzunezko produktuari edo ikuskizunari aplikatzeko lege-araudiaren eta erregulazio juridikoa identifikatzea.</li> <li>- Ikuskizun edo ikus-entzunezko lan baten kudeaketaren berezko izapidetzeak egitea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuaren produkzio-fasearen, lanaren izaeraren –jatorrizkoa edo egokitua–, eta itxaropen komertzialen arabera, jabetza intelektuala kudeatzea.</li> <li>• Creative Commons eta Copyleft aldaeraren bitartez egile-eskubideak kudeatzea.</li> <li>• Lege-gordailua kudeatzea.</li> <li>• <i>Merchandisina</i> kudeatzea, marken legearen arabera.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizunaren edo ikus-entzunezko lanen produkziarako laguntza publikoak eskuratzearekin eta erabiltzearekin erlacionatutako bideratzeak osatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Deialdi publikoak eskuratzeko beharrezko errekerimenduak, prozedurak eta dokumentuak zehaztea.</li> <li>• Proiektuaren ezaugarrien eta haiek ustiatzeko aukeren arabera, diru-laguntza publikoen bitartez eskura daitezkeen finantzatzeko eta amortizatzeak kopuru ekonomikoak kalkulatzeko.</li> </ul> </li> <li>- Ohorearen eskubideari, intimitateari eta norberaren irudiar buruzko lege-araudia betetzeak dituen mugak egiaztatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunaren eta ikus-entzunezko industriaren erregulazio juridikoa:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irratiaren eta telebistaren araudi erregulatzaileak.</li> <li>• Jarduera zinematografikoaren araudi erregulatzaileak.</li> <li>• Ikuskizunaren araudi erregulatzaileak.</li> <li>• Publizitatearen araudi erregulatzaileak.</li> <li>• Ohorearen, intimitatearen eta norberaren irudiaren eskubidearen araudi erregulatzaileak.</li> </ul> </li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Babesaren araudi erregulatzailerak.</li> <li>- Ikuskizunaren eta ikus-entzunezko produktuaren erregulazio juridikoa:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jabetza intelektualaren legea.</li> <li>• Copyleft eta Creative Commons.</li> <li>• Marken legea.</li> <li>• Lege-gordailuaren legea.</li> </ul> </li> <li>- Produktorako, banaketarako eta erakusketarako laguntza publikoen programak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Programa europarrak.</li> <li>• Estatuko programak.</li> <li>• Erkidegoetako programak.</li> </ul> </li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren aldeko interesa eta iraunkortasuna zailtasunen aurrean.</li> <li>- Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.</li> <li>- Norberaren lana planifikatzea eta bete beharreko epeak aurreikustea.</li> </ul>

**2. GIZA TALDEEN, TALDE TEKNIKOEN ETA ARTISTIKOEN KONTRATUEN EZAUGARRIAK BALIOZTATZEA**

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen sektorean lan-harremanen lege-araudia interpretatzea.</li> <li>- Sektorean lanbide-jarduera arautzen duten hitzarmen kolektiboak analizatzea.</li> <li>- Proiektuaren ezaugarrien eta aurrekontuen mugen arabera, lan-kontratuen baldintza espezifikoak, kontratazio-modalitatea eta tipologia aukeratzea.</li> <li>- Lanpostu beraren baldintzen arabera, eta dokumentu ofizialetan aplikatu daitezkeen estiloa eta lengoaia jarraituz, lan-kontratuen klausulak idaztea.</li> <li>- Eraitza ekonomikoak hobetzeko eta bi aldeentzako hitzarmen egokiena bermatzeko, proposamen alternatiboak osatzea.</li> <li>- Erakunde ofizialen aurrean kontratu-dokumentua balioztatzeke, formalizatzeke eta bideratzeko prozedura prestatzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen sektorean lan-harremanen lege-araudia.</li> <li>- Sektoreko Gizarte Segurantzaren erregimenak.</li> <li>- Sektoreko hitzarmen kolektiboak.</li> <li>- Lan-kontratuak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tipologia.</li> <li>• Kontratazio modalitateak.</li> <li>• Baldintza bereziak.</li> </ul> </li> <li>- Lan-kontratu formalizatzeke prozedurak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Klausulak.</li> <li>• Baldintzak.</li> <li>• Iraupena.</li> <li>• Bideratzeak.</li> <li>• Diru-laguntzak.</li> <li>• Dokumentazio ofiziala.</li> </ul> </li> <li>- Dokumentu ofizialen lengoaia eta estiloa.</li> <li>- Nominak eta gizarte-aseguruak.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.</li> <li>- Norberaren lana planifikatzea eta bete beharreko epeak aurreikustea.</li> <li>- Taldean lan egiteko prest egotea eta lankideekiko errespetua.</li> </ul>

3. ONDASUNAK, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDU LOGISTIKOA HORNITZEKO KONTRATUEN EZAUGARRIAK BALIOZTATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Alokatzeko, salerosketako, <i>leasing</i> eta <i>rent</i>en kontratuen baldintzak eta mota aukeratzea eta erabiltzea.</li> <li>- Hornikuntza-motaren, proiektuaren ezaugarrien eta aurrekontuen mugen arabera, kontratazio-modalitate egokia aukeratzea eta erabiltzea.</li> <li>- Hornikuntzaren beraren baldintzen arabera, eta dokumentu ofizialetan aplika daitezkeen estiloa eta lengoiaia jarraituz, kontratuaren klausulak idaztea.</li> <li>- Hornitzaileak azpikontratatzeko baldintzak zehaztea.</li> <li>- Proposamen alternatiboak idaztea, emaitza ekonomikoak optimizatzeko.</li> <li>- Proiektu baten kontratuak ebazteko negoziazio-teknika eraginkorrenak aukeratzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Merkataritzako kontratuak erregulatzeko araudia: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Produktuak eta zerbitzuak alokatzea eta salerostea.</li> <li>• <i>Leasing</i> eta <i>renting</i>.</li> </ul> </li> <li>- Hornitzaileekin azpikontratatzeko.</li> <li>- Kontratuen formalizaziora aplikatutako negoziazio-teknikak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren aldeko interesa eta iraunkortasuna zailtasunen aurrean.</li> <li>- Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.</li> <li>- Norberaren lana planifikatzea eta bete beharreko epeak aurreikustea.</li> <li>- Taldean lan egiteko prest egotea eta lankideekiko errespetua.</li> </ul>

4. IKUS ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN PROIEKTUAREN ADMINISTRAZIO EKONOMIKOA, KONTABILITATEKOA ETA FISKALA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizunetako eta ikus-entzunezko produkzioko ereduak enpresa bati egotzi dakizkiokeen ustiapen-kostuak kalkulatzeko, bertako jardueren analisian eta bere emaitzen kontuan oinarrituz.</li> <li>- Ikuskizunetako eta ikus-entzunezko proiektu bat administratzeko behar diren kutxako eragiketak eta bankuekin eragiketak zehaztea.</li> <li>- Gastuaren jarraipen- eta kontrol-sistema diferenteak hartzeak dituen alde onak eta txarrak egiaztatzea.</li> <li>- Proiektu baten emaitzen kontua eta balantze ekonomikoa egitea.</li> <li>- Ikuskizunetako edo ikus-entzunezko produkzio-enpresa baten egutegi fiskala eta horri lotutako obligazioak planifikatzea.</li> <li>- Ikuskizunetako edo ikus-entzunezko enpresa baten kudeaketa fiskaleko dokumentazioa osatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kudeaketa ekonomikoa, finantzarioa eta fiskala: kontzeptuen, irismenaren eta mugen definizioa.</li> <li>- Ikuskizunetako eta ikus-entzunezko enpresaren ustiapen-kostuak sailkatzea.</li> <li>- Plangintza ekonomikoko eta finantzarioko tresnak.</li> <li>- Kutxako eragiketak eta bankuekin egindakoak.</li> <li>- Informazio ekonomikoko eta finantzarioko tresnak.</li> <li>- Zerga-obligazioak.</li> <li>- Kudeaketa ekonomikoko programa informatikoak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren aldeko interesa eta iraunkortasuna zailtasunen aurrean.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.</li> <li>- Norberaren lana planifikatzea eta bete beharreko epeak aurreikustea.</li> </ul>
--	--

**5. IKUS ENTZUNEZKO EDO IKUSKIZUNEN PRODUKTUAREN USTIAPEN KOMERTZIALA PLANIFIKATZEA**

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktu bat ustiatzeko kanalak zehaztea.</li> <li>- Ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktu bat banatzeko eta erakusteko kontratuen klausulak idaztea.</li> <li>- Espainiako eta Batasuneko zinemaren hedapena sustatzeko dauden laguntza posibleak ikus-entzunezkoen proiektu batean aplikatzea.</li> <li>- Ikuskizunaren kultura sustatzeko dauden laguntza posibleak ikuskizun-proiektu batean aplikatzea.</li> <li>- Ikuskizun edo ikus-entzunezko lan bat aurkezteko merkatu, jaialdi, erakusketa eta lehiaketa egokiak aukeratzea.</li> <li>- Ustiapen komertziala planifikatzea, badauden banaketa- eta erakusketa-kanalen arabera.</li> <li>- Ustiapen komertzialerako aukeren arabera, ikuskizun edo ikus-entzunezko lan baten amortizazioa kalkulatzeko.</li> </ul>
-----------------------	--

<p>kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuskizuna eta ikus-entzunezkoa banatzeko eta erakusteko industria:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Banaketaren sektorea egituratzea.</li> <li>• Erakusketaren sektorea egituratzea.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizunen eta ikus-entzunezko produkzioaren ziklo komertziala.</li> <li>- Banatzeko eta erakusteko kontratuak.</li> <li>- Azokak, lehiaketak eta jaialdiak.</li> <li>- Komunikazio- eta informazio-sareen bitartez ikus-entzunezko lana erakustea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sare digitalaren gaur egungo ingurunea.</li> <li>• Obrak kodifikatzeko nazioarteko sistema.</li> <li>• Euskarriak eta transmisioak.</li> <li>• Ordainketa:</li> </ul> </li> <li>- Zine espainiarraren eta batasunekoaren hedapena sustatzeko laguntzak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pantaila-kuota eta programa nazionalak eta Batasunekoak telebistan eskaintzea.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskizunaren kultura sustatzeko laguntzak.</li> </ul>
-----------------------	---

<p>jarrerazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren aldeko interesa eta iraunkortasuna zailtasunen aurrean.</li> <li>- Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.</li> <li>- Norberaren lana planifikatzea eta bete beharreko epeak aurreikustea.</li> <li>- Taldean lan egiteko prest egotea eta lankideekiko errespetua.</li> <li>- Parte-hartze aktiboa, ekimen pertsonala eta sormena eskaintako soluzioetan.</li> </ul>
---------------------	---

**6. IKUS ENTZUNEZKOEN PROIEKTUTARAKO ETA IKUSKIZUNETARAKO SUSTAPEN PLANAK OSATZEA**

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tipologiaren eta ezaugarrien arabera, ikus-entzunezko produktu edo ikuskizun baten sustapenean aplika daitezkeen marketineko elementuak zenbatzea.</li> <li>- Marketineko plana osatzea, ikus-entzunezko produktuaren edo ikuskizunaren, eta hauen kontsumitzaileen edo merkatuaren berezko ezaugarriak kontuan hartuz.</li> <li>- Sustapen-estrategiak zehaztea, kanpainaren helburuak, irismena eta</li> </ul>
-----------------------	---

	<p>eragin posiblea kontuan hartuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Publizitate-kanpaina egitea erabilitako euskarrietan eta baliabidetan, finkatutako sustapen-helburuak jarraituz.</li> <li>- Publizitate-kanpaina martxan jartzeko inplementatu beharreko baliabideen plana osatzea.</li> <li>- Proiektuaren izaeraren eta irismenaren arabera, publizitate-kanpainen zehar garatu beharreko harreman publikoen estrategia definitzea.</li> <li>- Finkatutako baliabideen planaren, publizitate-kanpainen eta marketing-planaren balorazioan oinarrituz sustapen-gastua kalkulatzeko.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sustatzeko helburuarekin, ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktuaren berezko ezaugarriak.</li> <li>- Ikus-entzunezko merkatua eta ikuskizunetakoak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkatu-motak eta segmentazioa.</li> </ul> </li> <li>- <i>Marketing</i> edo <i>marketing mix</i> politikak.</li> <li>- Marketin-plana: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elementuak.</li> <li>• Estrategiak.</li> <li>• Helburuak.</li> </ul> </li> <li>- Publizitate-kanpaina: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Faseak eta aplikazioa.</li> </ul> </li> <li>- Baliabideen plana: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hautatzeko irizpideak.</li> </ul> </li> <li>- Harreman publikoetako teknikak.</li> <li>- Marketina eta sustapena jarraitzeko eta kontrolatzeko sistemak.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanaren aldeko interesa eta iraunkortasuna zailtasunen aurrean.</li> <li>- Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.</li> <li>- Norberaren lana planifikatzea eta bete beharreko epeak aurreikustea.</li> <li>- Taldean lan egiteko prest egotea eta lankideekiko errespetua.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziak

Modulu honetako edukien banaketa, neurri handi batean, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat planifikatzeko, produzitzeko eta ustiatzeko prozesuan ondoz ondo aplikatzen dituzten eskuduntzekin bat dator. Hori dela-eta, eta eduki jakin batzuk irakaskuntza-ikaskuntza prozeduraren beste uneren batean zentzu handiagoa izan dezaketela kaltetu gabe, moduluaren edukien multzoen ordena jarraitzea gomendatzen dute.

1. **multzoan** planteatzen duten moduan, ikus-entzunezko eta ikuskizuneko proiektua sektorean indarrean dagoen lege-testuinguruan kokatuz modulua hastea proposatzen dute. Horretarako, araudi orokorra eta produktu edo azpisektore espezifikoetan eragiten duena kontuan hartuko dituzte. Ikuskizunean eta ikus-entzunezko produktuan eragiten duten legezko mugekin batera, industria bultzatzeko erregulazioak analizatuko dituzte. Ildo horretatik, erakunde-maila diferentiek eskaintzen dituzten laguntza publikoen egiturari orientatzen ikasi beharko dute.



Ondoren, **2. eta 3. multzoei** jarraituz, ezinbestekoa dirudi ikus-entzunezko lanaren edo ikuskizunaren produkzioa ahalbidetzen duten giza baliabideak eta baliabide materialak kontratatzearekin lotutako trebetasunei denbora luzea eskaintzea. Giza taldeari dagokionean, sektorea arautzen duen laneko legeria aztertuko dute, kasu bakoitzerako eskura dauden kontratatzeko modalitateak kontuan hartuz. Baliabide materialei dagokienean, proiektu bakoitzaren aurrekontu-mugei eta -ezaugarriari ondoen egokitzen zaizkien hornikuntza-aukeren artean hautatzen ikasiko dute. Jarduera praktikoaren zati bat dagozkien lan-kontratuak eta merkataritza-kontratuak formalizatzeari eskaintzea proposatu dute, dokumentu ofizialen lengoaiaren eta estiloaren arabera kontratua idaztea barne hartuz.

Beraz, **4. multzoan** adierazitakoaren arabera, modulua ikuskizuneko edo ikus-entzunezko proiektuaren administrazio ekonomikora bideratuko litzateke. Lehendabizi, proiektuari dagokion aurrekontua kalkulatu dute, gastuko eta fakturazioko aurreikuspenak aplikatuz. Aurrerago, proiektuaren kontabilitatea egingo dute. Horretarako, gastua kontrolatzeko metodoak erabiliko dituzte tarte onargarrien barruan mantentzeko. Proiektu baten administrazioaren atal honetarako informatikako programa espezifikoak erabili behar dira. Azkenik, proiektua lortzearen ondoriozko zerga-betebeharrak betetzeko egutegia antolatuko dute.

Emitzazko produktuaren ustiapenak modulua hurrengo zatia hartuko luke, **5. multzoan** bildutako edukiak kontuan hartuz. Gaur egun mota honetako produktu bat ustiatzea ahalbidetzen duten banaketa-modu eta -kanal diferenteak daudela azpimarratu behar da. Gaur egun dauden hedatzeko laguntza posibleak aztertuko dituzte, bai eta produktuak sustatzen eta komertzializatzen lagundu dezaketen azokak eta jaialdiak ere. Multzo honetan eskuratutako ezagutza oso baliagarria da ikuskizunaren edo ikus-entzunezko obraren amortizazioa ondo kalkulatzeko.

Azkenik, **6. multzoan** adierazitakoaren arabera, ikuskizuna eta ikus-entzunezko merkatua analizatuko litzateke, produktua sustatzeko plana osatzeko helburuarekin. Produktu-motara ondoen egokitzen den sustapen-estrategia zehaztu behar dute eta publizitate-kanpainaren ardatz nagusiak definitu behar dituzte, erabili beharreko hedabideen aukeraketan arreta berezia jarriz. Atal honetan ikasleei publizitate-teknikak eta harreman publikotako teknikak irakatsi beharko zaizkie.

## 2) Alderdi metodologikoak

Ikuskizunak eta ikus-entzunezko lanak eta proiektuak sustatzeko eta administratzeko esparruaren barruan kasuistika posible zabalena aplikatzeko trebetasuna eta abileziak garatzen ditu moduluak. Horregatik, kasu diferente guztiak konpontzera bideratua dagoen eta nagusiki prozedurazkoa den metodologia erabiltzea gomendatzen dute. Irakasleek ikasleei modulua edukiak ulertzeko esparrua eskaini beharko diete, bai eta zeregin bakoitzari ekiteko funtsezko gakoak ere. Bertatik abiatuta, ikasleei proposatuko dizkieten problemak ebazten gero eta autonomia handiagoz lan egin dezaten eskatuko diete.

Bi zeregin-mota aurreikusi dituzte, bakoitzaren lan-bolumenaren eta helburu-kopuruen arabera: alde batetik, gaitasun zehatzak eskuratzera bideratuak, eta, bestetik, trebetasunen sekuentzia bat garatzen dutenak. Lehen motan “taldeko aktoren baten kontratua idaztea” edo “animazio-produktuen Europako feriei buruzko txosten laburra egitea” bezalako ariketak sartuko lirateke. Bigarren mota ikuskizun edo ikus-entzunezko lanaren proiektu zehatzean –erreal edo irudimenezkoa– oinarritzen da, lan hori administratzearekin eta sustatzearekin lotutako lanak burutzeko. Ildo horretatik, beste modulu batzuekin, bai eta beste ziklo batzuekin ere, behar bezala koordinatzea gomendatzen dute, ikasleek proiektu errealetan parte hartzeko aukera izateko. Bereziiki interesgarria litzateke, hasieratik komertzializatu arte proiektu bat osorik administratzea.

Lan asko taldetan egingo dituzte, lanbide-alor honen berezko taldeko lan egiteko moduak erreproduzituz. Ikuskizun edo ikus-entzunezko enpresaren testuinguruan kokatzen saiatu behar da lana. Bertan garatuko da proiektua, hipotetikoki behintzat. Hori bereziki egokia izango da administrazio ekonomiko, kontabilitate, zerga-obligazio eta abarri lotutako edukiak lantzen dituztelako. Era berean, arreta berezia jarri behar da eskainitako soluzioak proiektu bakoitzaren ezaugarri espezifikoetara egokitzeko, eta beti aurrekontuen mugak kontuan hartuz. Halaber, problema bakoitzerako alternatiba diferenteak eskaintzeko sustatuko dute, ikasleek eskura dituzten baliabideak ondo erabiltzen ikasteko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ikuskizun edo ikus-entzunezko lan baten berezko lege-izapidetzeak kudeatzea:
  - Jabetza intelektualaren kudeaketa.
  - Egile-eskubideak kudeatzea.
  - Lege-gordailua kudeatzea.
  - *Merchandisinen* kudeaketa.
  - Laguntza publikoen kudeaketa.
- ✓ Lan-kontratuak egitea:
  - Kasu bakoitzean kontratazio-tipologia eta -modalitatea aukeratzea.
  - Baldintza espezifikoak finkatzea.
  - Kontratu-klausulak idaztea.
  - Kontratuak formalizatzea eta bideratzea.
- ✓ Ondasunak, zerbitzuak eta ekipamendu logistikoak hornitzeko kontratuak egitea:
  - Kasu bakoitzean kontratazio-modalitate egokia aukeratzea.
  - Kontratuen baldintzak eta mota aukeratzea.
  - Kontratu-klausulak idaztea.
  - Kontratuak formalizatzea eta bideratzea.
- ✓ Ikuskizun edo ikus-entzunezko lan baten finantzazioa eta amortizazioa kalkulatzeko:
  - Laguntza publiko posibleak kalkulatzeko.
  - Produkzio-kostuak kalkulatzeko.
  - Kostu fiskalak kalkulatzeko.
  - Amortizazioa kalkulatzeko.
  - Balantze ekonomikoa egitea.
- ✓ Ikuskizun baten edo ikus-entzunezko lan baten ustiapen komertziala planifikatzeko:
  - Banaketa- eta erakusketa-kanalak zehaztea.
  - Merkatuak, jaialdiak, erakusketak eta lehiaketak aukeratzea.
  - Banaketa- eta erakusketa-kontratuak idaztea.
- ✓ *Marketin*-plana prestatzea:
  - Sustapen-estrategiak zehaztea.
  - Publizitate-kanpaina prestatzea.
  - Baliabideen planak prestatzea:
  - Sustapen-gastua kalkulatzeko.

## 9. lanbide-modulua INGELES TEKNIKOA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Ingeles teknikoa</b>
Kodea:	E-200
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko konpetentziak

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskaintako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- b) Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarrizko funtzionamendua.
- c) Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- d) Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- e) Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- g) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.
- h) Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- i) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze-edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berriazko informazioa atera du eskaintako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezua interpretatu dute: e-mail, fax, beste batzuen artean.
- d) Sektoreko web-orri bateko oinarriko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berriazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarrekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- j) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.
- l) Nork bere prestakuntza eta lanbide-konpetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabilitako jarraibideen araberrako Curriculum Vitae egin du.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

### c) Oinarriko edukiak:

1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.</li> <li>- Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.</li> <li>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.</li> <li>- Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehenetsunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantza adierazpena eta bestelakoak.</li> <li>- Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak.</li> <li>- Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa.</li> <li>- Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.</li> <li>- Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adetasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.</li> <li>- Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko terminologia espezifikoak.</li> <li>- Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboaren erabilera, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.</li> <li>- Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.</li> <li>- Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.</li> <li>- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>- Informazio-trukean bete-beteen parte hartzea.</li> <li>- Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.</li> <li>- Hizkuntza bakoitzaren berezko adetasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.</li> </ul>

## 2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hainbat formatutan emandako mezuak ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak.</li> <li>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.</li> <li>- Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.</li> <li>- Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.</li> <li>- Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.</li> <li>- Puntuazio-markak erabiltzea.</li> <li>- Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.</li> <li>- Testu koherenteak lantzea.</li> <li>- Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea.</li> <li>- Norberaren profilarekin lotzen den lan-eskaera egitea: curriculum eta motibazio-gutuna.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskarri telematikoak: fax, e-mail, burofax, web-orriak.</li> <li>- Hizkuntzaren erregistroak.</li> <li>- Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.</li> <li>- Europako Curriculum Vitaearen eredia.</li> <li>- Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>- Beste kultura batzuen alderdi profesionalekiko interesa erakustea.</li> <li>- Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.</li> <li>- Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.</li> </ul>

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea.</li> <li>- Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokoloak baloratzea.</li> <li>- Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.</li> </ul>

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziazioa

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoen eta sintaktikoen ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza—gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena garatzea da lortu beharreko helburua. Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bitzita profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irmotu beharko litzuzke, gero eta autonomoagoak izan daitezzen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan

daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarritzko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarritzko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalek eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren ginetik, eta ahoskera eta jarria azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahozko mezuak sortzen. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak), eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, etab.) eskaini behar zaizkie ikasleei.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesez erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezzen, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikaturik dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehenetsunez ahozko hizkuntza erabiltzea lanbide-inguruneari dagokion materialekin: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskaintako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektorerako enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharra egitea norbaiti edo norbaiten mandatura uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae aurkeztea txartel eragingarriarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, etab.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarriketak bidez grabatzea, geroago aztertzeko.



## 10. lanbide-modulua

## 10

## IKUS ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN PRODUKZIO PROIEKTUA

## a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzio-proiektua</b>
Kodea:	0922
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	50 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu-mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu eta, horretarako, sail bakoitzaren funtzioak eta antolamendu-egitura eman du aditzera.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskaerei erantzuteko behar den proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien iritsiera identifikatu du.
- e) Egiteko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatze beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektua gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Proiektua ezartzeari datzekion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.
- f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzate-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- g) Ezartzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Proiektua ezartzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta izan daitezkeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berriazko dokumentuak prestatu ditu.
- g) Proiektuaren baldintza-agiria betetzen dela bermatzeko sistema ezarri du, halakorik dagoenean.

5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du. Horretarako, eraginkortasunez erabiltzen ditu proiektua gauzatzean eta heziketa-zikloko ikasteko prozesuan bereganatutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.
- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.
- c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- e) Proiektua babestu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderari.

### c) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua da heziketa-ziklo osoan zehar landu diren kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeenak eta gaitasun osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen eginkizuna garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez "Lantokiko prestakuntza" moduluarekin, praktikak egiten direneko enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria izango da tutoreak garatu ahal izango diren zenbait proiektu teknikoki bideragarri eskura izatea.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Definizioa eta helburuak.
- Beharrak hautematea edo arazoak identifikatzea.
- Diseinua eta plangintza.
- Jarraipena eta kontrola.
- Amaiera eta ebaluazioa.

Azkenik, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta gauzatu du, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako aurkezpen-teknikak erabiliko ditu.

#### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (*Problem Based Learning*, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren kompetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berariaz oinarritutako PBL metodologia erabili daiteke. Metodologia horiek ikaslea behartzen dute problemak identifikatzera, horiek konpontzeko hautabideak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, aipatutako metodologiek une batzuetan sustatzen dute bakarlana garrantzitsua da taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektuaren defentsan ondoren erabili beharko dituen ezagupenak eta kompetentziak bereganatzeko.

Bestalde, talde-lanak harreman-kompetentziak garatzen ditu ikasleengan, eta taldeen funtzionamenduari eta ondoriozko guztiarekin ohitzen ditu ikasleak: talde-antolamenduari, rolen eta zereginen banaketarekin, pertsonen arteko komunikazioarekin, gatazken ebazpenarekin, eta abarrekin lotutako guztia.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berariazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Komunikazioari dagokionez, ikasleen kompetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie (diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak eta abar lantzeko informatika-aplikazioak). Horretarako, proiektzio-kanoiak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte, etorkizunean lanaren jardunean erabilgarriak izango dituzten erremintekin ohitzeko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzeko garaian, garrantzitsua da proiektuaren —azken produktu gisa— eta proiektua egiteko jarraitu den prozesuaren ebaluazioa egitea. Talde-lanaren funtzionamenduari buruzko informazioa jaso beharko da, baita taldekide bakoitzak proiektuan eta zereginetan izandako inplikazioari buruzko informazioa, taldean sortutako zailtasunei buruzko informazioa, eta ikasle bakoitzak eskuratutako kompetentzia pertsonalei eta sozialei buruzko informazioa ere, besteak beste.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- Aurkezpena lagunduko duten baliabideen erabilera: informatika-baliabideak, ereduak, maketak, eta abar.
- Azalpenaren argitasuna.
- Azalpenaren antolamendua.
- Azalpenaren bizitasuna.
- Azalpenaren eraginkortasuna.
- Erakutsitako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa.
- Ebaluazioaz arduratzen diren irakasleek egindako galderei erantzuteko gaitasuna.



Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektua babestean. Horrela, norbanako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak proiektuko moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

Azkenik, komeni da produktua, prozesua eta proiektuaren azalpena ebaluatzean hautemandako puntu sendoak eta ahulak nabarmenduko dituen erantzun xehatua ematea proiektuko talde bakoitzari. Horrela ikasleek erraz identifikatu ahal izango dituzte lan-jardunean egin eta azaldu beharreko beste proiektu batzuetan zer alderdi hobetu beharko duten.

# 11. lanbide-modulua

## LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Laneko prestakuntza eta orientabidea</b>
Kodea:	0923
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	14.a / 15.a / 16.a / 20.a / 21.a / 27.a

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Titulari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilaria lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-ingurune lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritako teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.



## c) Oinarrizko edukiak:

1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.</li> <li>- Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.</li> <li>- Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea.</li> <li>- Norberaren ibilbidea planifikatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Beharrekina eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.</li> <li>▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.</li> </ul> </li> <li>- Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzen zerrenda bat ezartzea.</li> <li>- Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.</li> <li>- Erabakiak hartzeko prozesua.</li> <li>- Sektorerako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.</li> <li>- Europar ikasi eta enplegatze aukerak. Europass, Ploteus.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.</li> <li>- Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.</li> <li>- Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea.</li> <li>- Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea.</li> <li>- Lanarekiko konpromisoa izatea. Lortutako trebakuntza baliaraztea.</li> </ul>
2. GATAZKA ETA LAN-TALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea.</li> <li>- Antolamendu-egiturak aztertzea.</li> <li>- Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.</li> <li>- Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.</li> <li>- Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.</li> <li>- Gatazkek ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.</li> <li>- Lan-taldearen sorrera aztertzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.</li> <li>- Talde motak sektorerako industrian, dituzten eginkizunen arabera.</li> <li>- Lan-taldearen sorrera aztertzea.</li> <li>- Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa.</li> <li>- Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak.</li> <li>- Gatazkaren definizioa: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.</li> <li>- Gatazka ebazteko edo deuseztatzeko metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.</li> </ul>

<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea.</li> <li>- Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen alde onak eta txarrak baloratzea.</li> <li>- Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.</li> <li>- Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.</li> <li>- Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.</li> </ul>
---------------------	--

### 3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.</li> <li>- Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.</li> <li>- Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.</li> <li>- Nomina interpretatzea.</li> <li>- Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren arteztarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.</li> <li>- Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.</li> <li>- Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.</li> <li>- Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).</li> <li>- Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.</li> <li>- Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ.</li> <li>- Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.</li> <li>- Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.</li> <li>- Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.</li> <li>- Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arautzearen beharra baloratzea.</li> <li>- Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea.</li> <li>- Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.</li> <li>- Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetarako.</li> <li>- Gizarte hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea.</li> </ul>

### 4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.</li> </ul>
-----------------------	--



	- Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.</li> <li>- Enpresaburuen eta langileen betebeharr nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.</li> <li>- Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.</li> <li>- Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.</li> <li>- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.</li> <li>- Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.</li> </ul>

### 5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.</li> <li>- Arrisku-faktoreak aztertzea.</li> <li>- Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.</li> <li>- Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea.</li> <li>- Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrisku profesionalaren kontzeptua.</li> <li>- Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa.</li> <li>- Profilarri lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.</li> <li>- Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia ezagutzea.</li> <li>- Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea.</li> <li>- Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.</li> <li>- Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea.</li> </ul>

### 6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarritzko prebentzio-tresna gisa.</li> <li>- LAP Laneko Arriskuaren Prebentziorari buruzko oinarritzko araua aztertzea.</li> <li>- LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea.</li> <li>- Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.</li> <li>- Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.</li> </ul>
-----------------------	---

<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.</li> <li>- Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.</li> <li>- Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.</li> <li>- LAPea eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.</li> <li>- Prebentzioaren kudeaketa enpresan.</li> <li>- Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria).</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.</li> <li>- Prebentzioaren plangintza enpresan.</li> <li>- Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- LAParen garrantzia eta beharra baloratzea.</li> <li>- LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea.</li> <li>- Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.</li> <li>- Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.</li> </ul>

## 7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA

<b>prozedurazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norbera babesteko teknikak identifikatzea.</li> <li>- Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea.</li> <li>- Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.</li> <li>- Larrialdi-egoerak aztertzea.</li> <li>- Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.</li> <li>- Langileen osasuna zaintzea.</li> </ul>
<b>kontzeptuzkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.</li> <li>- Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.</li> <li>- Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak.</li> <li>- Seinale motak.</li> </ul>
<b>jarrerazkoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Larrialdien aurreikuspena baloratzea.</li> <li>- Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.</li> <li>- Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.</li> </ul>

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.



- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

- a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

- c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein supoziziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Segurtasun-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkariak.
- Negoziatio kolektiboak.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.

- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzeagatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, banaka nahiz taldean: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasle arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkak... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazo konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatu-etako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, etab.), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarriko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboaren bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktiko baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoetan lan-eskaintzak hautatzea.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziarako produkzio-sektorea deskribatzea:
  - Erreferentziarako produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
  - Sektorian enplegatzeko aukerak identifikatzea.
  - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
  - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
  - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.



- Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
  
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
  - Lan-taldeen tipologia identifikatzea.
  - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
  
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
  - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
  - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
  
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea.
  - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
  
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
  - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
  - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
  - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
  - Bizitza osoan ikastearen garrantzia baloratzea.

## 12. lanbide-modulua **12** ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Enpresa eta ekimen sortzailea</b>
Kodea:	0924
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	15.a / 16.a / 17.a / 19.a / 22.a / 23.a / 24.a

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziatzko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) "Kontabilitatearen" oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.

- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarriko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

### c) Oinarriko edukiak:

1. EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).</li> <li>- Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza.</li> <li>- Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.</li> <li>- Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.</li> <li>- Enpresaburu kontzeptua.</li> <li>- Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.</li> <li>- Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.</li> <li>- Ekintzaileen arteko lankidetzak.</li> <li>- Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.</li> <li>- Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.</li> <li>- Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikotan eta toki-esparruan.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.</li> <li>- Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea.</li> </ul>

2. ENPRESA ETA HAREN INGURUNEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.</li> <li>- Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.</li> <li>- Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbide-arloko ereduzko enpresa bat aztertzea.</li> <li>- Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.</li> <li>- Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.</li> <li>- Erabakitako ideien gainean berrikuntza-ariketak egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra).</li> <li>- Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.</li> <li>- Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.</li> <li>- Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.</li> </ul>

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.</li> <li>- Genero-berdintasuna errespetatzea.</li> <li>- Enpresa-etika baloratzea.</li> </ul>
--------------	--

### 3. ENPRESA BAT SORTU ETA ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marketin-plana finkatzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.</li> <li>- Produkzio-plana prestatzea.</li> <li>- Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.</li> <li>- Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.</li> <li>- Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.</li> </ul>
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.</li> <li>- Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.</li> <li>- Zerga-arloa enpresetan.</li> <li>- Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste).</li> <li>- Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.</li> <li>- Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.</li> </ul>
----------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea.</li> <li>- Administrazio eta legezko izapideak betetzea.</li> </ul>
--------------	--

### 4. ADMINISTRAZIO-FUNTZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.</li> <li>- Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.</li> <li>- Merkataritzako dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.</li> </ul>
----------------	--

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.</li> <li>- Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.</li> <li>- Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).</li> <li>- Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.</li> </ul>
----------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.</li> <li>- Administrazio eta legezko izapideak betetzea.</li> </ul>
--------------	--

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, etab. aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarrizko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzaitza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Ikasleari liburu edo artikulua jakin batzuk ere irakurraraziko dizkio, ondoren haien edukia kurtsoko proiektura egokitu ditzan.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banan-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sensibilizatzea:
  - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
  - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
  - Enpresaburu izatearen alde onak eta txarrak bilduko dituen taula egitea.
  - Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
  - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
  - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
  - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
  - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilita, etab.



- Hautatutako negozioerako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
- Ideari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
- Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
  - Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
  - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
  - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
  - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
  - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
  - Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
  - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
  - Merkataritzako dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.

## 13. lanbide-modulua **13** LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Lantokiko prestakuntza</b>
Kodea:	0925
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	360 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu-mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta, horretarako, ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen produkzioarekin eta merkaturatzearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura eta sektorean dauden ereduak enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

- Lanpostuan beharrezkoa den pertsonal- eta denbora-eskuragarritasuna.
  - lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
  - jarrerazko eskakizunak, lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
  - lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
  - Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
  - lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
  - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu, baita lanbide-jardueran aplikatzekoa den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak ere.
  - c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.
  - d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
  - e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
  - f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
  - g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
  - h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.
  - i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu du.
  - j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten aurreproduzioaren antolakuntzan hartzen du parte, eta, horretarako, bere ezaugarri espezifikoak eta produkzioa gauzatzeko behar dituen prozesuak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Antolakuntzako eta enpresako funtzioen ezaugarriak definitu ditu, bai eta ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten errealizazioan biltzen diren produkzioko prozesuak eta faseak ere.
- b) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat abian jartzeko beharrezko baliabide materialak eta logistikoak, eta giza baliabideak xehatu ditu.
- c) Aurrekontuek emandako aukeren arabera, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten errealizaziorako behar diren giza baliabide artistikoen eta teknikoaren ezaugarri espezifikoak definitu ditu.
- d) Proiektu bat gauzatzeko beharrezko baliabide teknikoaren, materialen, makineriaren eta ekipoen ezaugarri espezifikoak definitu ditu.
- e) Ikus-entzunezko proiektu baten errealizaziorako kokaguneen, dekoratuen, estudioen eta hauei dagokien girotzearen ezaugarri espezifikoak definitu ditu.
- f) Ekitaldia edo ikuskizuna eskaintzeko antzezlekuek eta bertako instalazioek bete behar dituzten baldintzak zehaztu ditu.

4. Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat produzitzeko prozesuaren planifikazioan hartzen du parte, eta, horretarako, diseinuan aplikatutako prozesu metodologikoa eta hartutako erabakiak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten produkzioaren antolakuntza-sistema eta laneko behin betiko faseak zehaztu ditu.
- b) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten produkzioaren fase bakoitzerako beharrezko baliabide materialen eta logistikoen, eta giza baliabideen xehazea balioztatu ditu.
- c) Proiektu baten produkzioa garatzean halabeharrak eragin ditzaketen elementuak edo egoerak identifikatu ditu.
- d) Produkzio-prozesuaren plangintza- eta jarraipen-dokumentazioa osatu du.
- e) Eskura dagoen aurrekontura, tarteko eta amaierako produktuak aurkezteko epeetara, eta eskatutako kalitatera doikuntza egiaztatu du.
- f) Ekitaldiko, musikako, arte eszenikotako edo ikus-entzunezko proiektu baten produkzio-plana egin du.
- g) Ikus-entzunezko proiektuaren errealizazio-prozesu osoan ingurumeneko eta laneko arriskuak prebenitzeko arauak betetzen direla hartu du kontuan.
- h) Larrialdi- eta ebakuazio-plana diseinatu du. Bertan biltzen dira esparruaren ezaugarrien arabera laneko arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko neurriak, erabili beharrezko baliabide teknikoak eta ikuskizunetarako eta ekitalditarako jendea biltzen den lokaletan segurtasuneko araudi espezifikoak.

5. Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten aurrekontua osatzen laguntzen du, eta, horretarako, proiektua osatzen duten partiden eta kontzeptuen kostuak, batetik, eta merkatuko prezioak eta sektoreko ohiko estandarrak, bestetik, alderatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten kudeaketa ekonomikorako aurrekontu-eredua, informatikako aplikazioa eta kalkulu-prozedura egokiena aukeratu du.
- b) Aurrekontu-partidetan giza baliabideen, baliabide materialen, logistikoen eta beste edozein motatakoen premiak taldekatu ditu.
- c) Ikus-entzunezko produkziarako zerbitzuen hornitzaileei eskaintzak egitea eskatu die, eta finkatutako ezaugarri eta aukera ekonomikoetara gehien egokitzen direnak aukeratu ditu, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektua produzitzeko.
- d) Produkzioaren estandar ekonomikoen arabera, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten aurrekontua egin du.
- e) Ikuskizuneko edo ikus-entzunezko produkzio baten aurrekontua osatzeko eta ondoren kudeatzeko informazio guztia idatziz jasotzen duen memoria ekonomikoa osatu du.

6. Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat kudeatzeko eta abian jartzeko prozeduretan hartzen du parte, eta, horretarako, giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta logistikoen kudeaketari lotutako arazoak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten produkziarako behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta artistikoak aukeratzeko eta kontratatuzko plana egin du.
- b) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten produkzioaren faseetan giza baliabideen banaketa eta esku hartzeko baldintzak programatu ditu.
- c) Proiektu bateko produkzio-prozesuan esku hartzen duten baliabide teknikoaren, materialen eta logistikoen jasotze-, kontrol- eta jarraipen-sistema aplikatu du.
- d) Proiektuan ezarritako irizpide estetikoaren eta ekonomikoaren arabera, estudioak, kokaguneak, dekoratuak eta baimenak kudeatzeko jarduerak gauzatu ditu.
- e) Ikus-entzunezko proiektu bat filmatzeko/grabatzeko lanak gainbegiratu ditu.



- f) Ikus-entzunezko proiektu bat muntatzeko eta postproduzitzeko prozesua planifikatu du.
- g) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten entseguak, antzezpena eta bira antolatu eta kudeatu ditu.
- h) Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten produkzioaren administrazio, ekonomia, zerga eta antolakuntzako alderdiak ixteko prozedurak burutu ditu.

7. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen proiektuaren sustapen-plana osatzen hartzen du parte, eta, horretarako, banaketa-sareen eta -kanalen ezaugarriak eta merkatuaren egituratzea identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko produktu edo ikuskizun baten ustiapen-kanalak aukeratu ditu, produktuaren berezko ezaugarriak eta itxaropen komertzialak kontuan hartuz.
- b) Zine espainiarraren eta Batasunekoaren hedapena, eta ikuskizunaren industriaren hedapena sustatzeko dauden laguntza posibleak eskuratzeko eskaerak kudeatu ditu.
- c) Ikuskizun edo ikus-entzunezko lan bat aurkezteko ikus-entzunezko eta ikuskizuneko merkatu, jaialdi, erakusketa eta lehiaketa egokiak aukeratu ditu.
- d) Ikuskizun baten edo ikus-entzunezko lan baten ustiapen komertziala planifikatu du, badauden banaketa- eta erakusketa-kanalen arabera.
- e) Ikus-entzunezko produktuaren edo ikuskizunaren publizitate-kanpaina kudeatu du erabilitako euskarrietan eta baliabidetan, finkatutako sustapen-helburuak jarraituz.
- f) Finkatutako baliabideen planaren, publizitate-kanpainaren eta marketin-planaren balorazioan oinarrituz sustapen-gastua kalkulatu du.

### c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
- ✓ Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea.
- ✓ Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten aurreproduzioaren plangintzan parte hartzea, bere ezaugarri espezifikoak eta produkzioa gauzatzeko behar dituen prozesuak erlazionatuz:
  - Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten produkzioaren antolakuntza-sistema eta laneko faseak zehaztea.
  - Produkzio-prozesuaren plangintza- eta jarraipen-dokumentazioa osatzea.
  - Eskura dagoen aurrekontura, tarteko eta amaierako produktuak aurkezteko epeetara, eta eskatutako kalitatera doitzea egiaztatzea.
- ✓ Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat produzitzeko prozesuaren planifikazioan parte hartzea, diseinuan aplikatutako prozesu metodologikoa eta hartutako erabakiak justifikatuz:
  - Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten produkzioaren antolakuntza-sistema eta laneko behin betiko faseak zehaztea.
  - Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten produkzioaren fase bakoitzerako beharrezko baliabide materialen eta logistikoen, eta giza baliabideen xehaztea burutzea.
  - Produkzio-prozesuaren plangintza- eta jarraipen-dokumentazioa osatzea.

- Ekitaldiko, musikako, arte eszenikotako edo ikus-entzunezko proiektu baten produkzio-plana egitea.
- ✓ Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten aurrekontua osatzen parte hartzea:
  - Ikus-entzunezko produkzioarako zerbitzuen hornitzaileei eskaintzak eskatzea.
  - Aurrekontu-eredua, informatikako aplikazioa eta kalkulu-prozedura aukeratzea.
  - Produkzioaren estandar ekonomikoen arabera, ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu baten aurrekontua egitea.
  - Aurrekontuaren kudeaketari buruzko informazio guztia idatziz jasotzen duen memoria ekonomikoa osatzea.
- ✓ Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen proiektu bat kudeatzeko eta abian jartzeko prozeduretan parte hartzea:
  - Giza baliabide teknikoak eta artistikoak aukeratzeko eta kontratatzekeo plana sortzea.
  - Giza baliabideak eta produkzioaren fasetan haien esku-hartze baldintzak banatzea.
  - Baliabide teknikoak, materialak eta logistikoak jasotzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema aplikatzea.
  - Estudioak, kokaguneak, dekoratuak eta baimenak kudeatzea.
  - Ikuskizun- edo ekitaldi-proiektu baten entseguak, antzezpena eta bira antolatzea eta kudeatzea.
  - Produkzioaren alderdi administratiboak, ekonomikoak, fiskalak eta antolakuntzakoak ixtea kudeatzea.
- ✓ Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen proiektuaren sustapen-plana osatzen parte hartzea:
  - Ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktu bat ustiatzeko kanalak aukeratzea.
  - Zine espainiarraren eta batasunekoaren hedapena sustatzeko egon daitezkeen laguntzak kudeatzea.
  - Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen merkatuak, jaialdiak, erakusketak eta lehiaketak aukeratzea.
  - Ikus-entzunezko edo ikuskizuneko produktuaren publizitate-kanpaina planifikatzea eta gauzatzea.
  - Finkatutako baliabideen planaren, publizitate-kanpainaren eta marketin-planaren balorazioan oinarrituz sustapen-gastua kudeatzea.

## 4 GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### 4.1 Espazioak:

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (M <sup>2</sup> ) / 30 IKASLE	AZALERA (M <sup>2</sup> ) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Ikus-entzunezko produkzioen estudioak	180	180
Agertokiko gela	150	150
Irudi eta soinu gela teknikoa	60	40

### 4.2 Ekipamenduak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arbela.</li> <li>- Ikus-entzunezko baliabideak (TB, DVD, CD erreproduktoreak).</li> <li>- Sarean instalatutako ordenagailuak, abiadura azkarreko inprimagailua, proiektagailua, Internet eta audio-sistema.</li> </ul>
Ikus-entzunezko produkzioen estudioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Honako elementu hauek dituen telebista-estudioa:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideokameradun platoa, tripodeak edo oinarriak dituen estudioa konfiguraturuz, makinari-materiala, argiztapen-parrilla erregulatzeko eta elkar komunikatzeko sistemarekin eta soinua jasotzeko sistemarekin.</li> <li>• Errealizazio-kontrola kameraren kontrol-sistemekin, monitorizazioa eta audio- eta bideo-kontrola, bideo- eta audio-kontrolako eta kudeaketako sistema informatikoa, elkar komunikatuzeko eta datuak biltegitzeko kanpo-sistema.</li> </ul> </li> <li>- Bideoa eta audioa jasotzeko ekipo autonomoak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kamaskopio trinkoak, tripodeak, bateriak eta kargagailuak, elikadura-iturriak, argiztapeneko ekipo autonomoak eta soinua jasotzeko ekipoak.</li> </ul> </li> <li>- Ikuskatzeko ekipoak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Monitorez, aurikularrez, DVD grabagailu/erreproduktorez, Blu-ray erreproduktorez osatuak.</li> </ul> </li> </ul>
Agertokiko gela	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Argi, soinu eta eszenografiako tresnak ipintzeko egitura edo <i>truss</i>, konexio elektrikoko kutxekin.</li> <li>- Proiektorez (Fresnel, PC, jarraipen-kanoi eta ebakinak) osatutako argiztatze-sistema, banderak, argi-sorta kontrolatzeko osagaiak eta argien mahaiaren eta <i>dimmerren</i> bidez argiztapena erregulatzeko sistema.</li> </ul>

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gutxienez hiru haga dituen eszenako makineria, ehungailuan.</li> <li>- Soinua erreproduzitzeko eta kontrolatzeko sistema.</li> <li>- Irudi finkoak eta mugikorak proiektatzeko eta ikusteko sistema.</li> <li>- Interkomunikazio-sistemak.</li> </ul>
Irudi eta soinuko gela teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bakarkako ordenagailuak, soinua erreproduzitzeko sistemarekin eta pantailekin, sarean ipiniak eta Interneterako sarrerarekin.</li> <li>- Proiekzio-pantaila eta soinua erreproduzitzeko sistemadun bideo proiektorea.</li> <li>- Laser inprimagailua.</li> <li>- Eskanerra.</li> <li>- Bulegotikako aplikazio informatikoak (testu-prozesadorea, datu-basea, aurkezpenak, kalkulu-orria, eta abar).</li> <li>- Ikus-entzunezko proiektuak eta ikuskizunak planifikatzeko, produzitzeko, kudeatzeko eta errealizatzeko informatikako aplikazioak.</li> <li>- Irudi finkoa sortzeko eta lantzeko informatikako aplikazioak.</li> <li>- Irudi mugikorra sortzeko, lantzeko eta editatzeko informatikako aplikazioak.</li> <li>- Irudiko efektu bereziak errealizatzeko informatikako aplikazioak.</li> <li>- Soinua sortzeko, tratatzeko eta editatzeko informatikako aplikazioak.</li> <li>- DVDraiko informatikako aplikazioak.</li> </ul>

## 5. IRAKASLEAK

### 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioko heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOIA
0915. Ikus-entzunezko proiektuen plangintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0916. Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0917. Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
0918. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0919. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0920. Aderazpen-baliabide ikus-entzunezkoak eta eszenikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0910. Bitarteko tekniko ikus-entzunezkoak eta eszenikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0921. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen administrazioa eta sustapena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0922. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzio-proiektua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
E-200. Ingeles teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ingelesa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0923. Laneko prestakuntza eta orientabidea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko prestakuntza eta orientabidea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>

0924. Enpresa eta ekimen sortzailea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko prestakuntza eta orientabidea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
0925. Lantokiko prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideak eta Prozesuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>

## 6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

LOGSE LEGEAN EZARRITAKO HEZIKETA ZIKLOEN BARNEAN HARTZEN DIREN LANBIDE MODULUAK (LOGSE 1/1990)	HEZIKETA ZIKLOAREN LANBIDE MODULUA (LOE 2/2006): IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN PRODUKZIOA
Zinema-/bideo-produkzioa Telebista-produkzioa	0915. Ikus-entzunezko proiektuen plangintza
Zinema-/bideo-produkzioa	0916. Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa
Telebista-produkzioa Irrati-produkzioa	0917. Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa
Ikuskizunen produkzioa	0918. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza 0919. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa
Ikus-entzunezko lengoaiak eta eszena-lengoaiak	0920. Adierazpen baliabide ikus-entzunezkoak eta eszenikoak
Ikus-entzunezko baliabide teknikoak	0910. Bitarteko tekniko ikus-entzunezkoak eta eszenikoak
Ikus-entzunezko, irrati eta ikuskizunen produkzioaren kudeaketa eta sustapena	0921. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen administrazioa eta sustapena
Ikus-entzunezkoen, irratiaren eta ikuskizunen produkzioko goi-mailako teknikari tituluaren lantokiko prestakuntza	0925. Lantokiko prestakuntza

## 7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1. Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATAL EGIAZTATUAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE MODULUAK
UC0207_3: Telebistako proiektuen produkzioa antolatzea. UC0703_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produkzioa antolatzea.	0915. Ikus-entzunezko proiektuen plangintza
UC0704_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produkzioko baliabideak kudeatzea. UC0209_3: Telebistako produktuaren lan-prozesuak kontrolatzea eta egiaztatzea.	0916. Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa
UC0208_3: Telebistako produkzioko baliabideak kudeatzea. UC0209_3: Telebistako produktuaren lan-prozesuak kontrolatzea eta egiaztatzea.	0917. Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa
UC1405_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien proiektuen aurreprodukzioa antolatzea eta kudeatzea.	0918. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza
UC1406_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien produkzioa eta antzezpena kudeatzea. UC1407_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien proiektuen emaitzak ebaluatzea.	0919. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa

Heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonen tituluaren barnean hartzen diren konpetentzia-atal guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatu badituzte –1224/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzeari buruzkoa–, honako lanbide-modulu hauek izango dituzte baliozkotuta: 0920. “Adierazpen-baliabide ikus-entzunezkoak eta eszenikoak”, eta 0921 “Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen administrazioa eta sustapena”.

## 7.2. Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA-ATALAK
0915. Ikus-entzunezko proiektuen plangintza	UC0207_3: Telebistako proiektuen produkzioa antolatzea. UC0703_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produkzioa antolatzea.
0916. Zinema-, bideo- eta multimedia-proiektuen kudeaketa	UC0704_3: Zinematografiako proiektuen eta ikus-entzunezko lanen produkzioko baliabideak kudeatzea. UC0209_3: Telebistako produktuaren lan-prozesuak kontrolatzea eta egiaztatzea.
0917. Telebista- eta irrati-proiektuen kudeaketa	UC0208_3: Telebistako produkzioko baliabideak kudeatzea. UC0209_3: Telebistako produktuaren lan-prozesuak kontrolatzea eta egiaztatzea.
0918. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen plangintza	UC1405_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien proiektuen aurreprodukzioa antolatzea eta kudeatzea.
0919. Ikuskizun- eta ekitaldi-proiektuen kudeaketa	UC1406_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien produkzioa eta antzezpena kudeatzea. UC1407_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien proiektuen emaitzak ebaluatzea.





*Instituto Vasco del Conocimiento  
de la Formación Profesional*

*Lanbide Heziketaren  
Ezagutzaren Euskal Institutua*

Vía Galindo Kalea, 14  
48910 – Sestao, Bizkaia

T. 944 47 40 37  
F. 944 47 38 62

[www.ivac-eei.eus](http://www.ivac-eei.eus)  
[web@ivac-eei.eus](mailto:web@ivac-eei.eus)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Formación  
Profesional